

# Jakin158

urtarrila-otsaila  
2007



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



ZENBAKI HONETAN

**7**

LIBURUAK

**11** Euskal liburugintza 2005  
**JOAN MARI TORREALDAI**

GAI NAGUSIA 50eko hamarkada euskal kulturari

**53** *Jakin* (1956), aurreko eta berehalako  
testuinguruan  
**JOSEBA INTXAUSTI**

**77** Hizkuntz ereduaren eztabaida  
Jakinarrien bilerak  
**JOXE AZURMENDI**

GAIK

**123** Pio Barojaren euskotasunaz  
**JON MIRANDE**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2007ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	9,50 €
KANPOAN		
Harpidetza	48 €	—
Ale arrunta	8 €	11 €

## S U M M A R Y



### **BASQUE BIBLIOGRAPHY 2005**

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2006. In this year, 2,016 books were published in the Basque language, 165 more than in 2004. Most of these publications are school books (30,6%), followed by children's and young people's literature (23%), books on human and social sciences (21,5%) and literature for adults (12,2%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. **JOAN MARI TORREALDAI**

### **THE 1950s IN THE BASQUE CULTURE**

*Jakin* (1956), in its previous and immediate context Joseba Intxausti, writer, historian and member of *Jakin*, analyzes the cultural context in which the magazine *Jakin* emerged in 1956. He provides us with the cultural backcloth of the 1940s and early 1950s, as well as the movements and initiatives that started to take shape after 1956—according to Intxausti, a key year for Basque literature and culture, with the publication of books and literary magazines, social and cultural initiatives in favour of the Basque language and the appearance itself of the magazine *Jakin*. **JOSEBA INTXAUSTI**

## The debate about the linguistic model

Joxe Azurmendi, writer, professor and member of *Jakin*, revives the history of the first ten years of the magazine *Jakin*, set up in 1956 by a group of philosophy and theology students from different seminary schools in the Basque Country. This group of students held a meeting for the first time in September 1956, and continued to meet every year until 1967 (except in 1966). The main subject of debate revolved around the choice of the linguistic model —a debate which, as the years have gone by, has become embodied in the conflict about the cultural, ideological and social model of the magazine. **JOXE AZURMENDI**

## THE BASQUEISM OF PIO BAROJA

On the occasion of the anniversary of the death of Pio Baroja in October 1956, an anonymous article appeared in the magazine *Euzko Deya* of Paris on the 1st December in which his unquestionable Basqueness was emphasized. Joxe Azurmendi, in a brief introduction to the article which we publish in its entirety and in its original language of French, points out that the text contains evidence revealing the fact that the article's author may have been Jon Mirande. The publication of this short text may serve as a reminder of Pio Baroja in this, the fiftieth anniversary of his death, as well as helping to recover a written document which has hitherto not been identified as being by Jon Mirande. **JON MIRANDE**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 158. zenbakia da eta 2007. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako edukiak bi atal nagusitan daude sailkatuta. Batetik, *Liburuak* sailean, Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2005. urtean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten digu. Bestetik, *Gai nagusia* sailean, iazko azaroaren 7, 8 eta 9an Koldo Mitxelena Kulturunean «50eko hamarkada Euskal Herrian» gaiaren inguruan antolatutako hiru mahai-inguruetatik lehenengoan urte haietako kultur giroari eta hizkuntz auziei buruz Joseba Intxaustik eta Joxe Azurmendik egindako gogoetak jasotzen dira. Hurrengo zenbakian agertuko dira, hain zuzen, *Jakin*-en 50. urteurrenaren kariaz antolatutako mahai-inguru horietan politika, ekonomia eta gizar-teari buruz egindako hitzaldien testuak.

*Liburuak* sailean, bada, 2005ean euskaraz argitaratutako liburuei buruzko Joan Mari Torrealdairen azterketa dator. Izan ere, Torrealdai urtero egiten duen lana ez da mugatzen liburuen zerrenda hutsa osatzera ([www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com) webgunean dago 2005eko liburuen zerrenda hori). Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du.

2005eko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, liburu produkzioaren zifren eta iturrien fidagarritasunaren auzia; bigarrenik, liburuaren munduaren balizko krisiari buruzko gogoeta: tituluak eta tiradak, merkatua, subentzio politika, ikasmaterialgintzaren auzia; hirugarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; lau-garrenik, argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifra, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak;

eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearen, 2005ean 2.016 liburu argitaratu ziren, 2004an baino 165 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 618 (produkzio osoaren %30,6); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (463, %23), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (429, %21,5) eta helduen literaturakoak (247, %12,2).

*Gai nagusia* sailean, esan bezala, Joseba Intxausti eta Joxe Azurmendiren artikuluak datoz, «50eko hamarkada Euskal Herrian» mahai-inguruetako lehenengoan urte haietako euskal kulturari eta *Jakin*-i buruz esandakoak biltzen dituztenak.

Joseba Intxaustik, lehen artikuluan, *Jakin* aldizkaria sortu zeneko kultur testuingurua aztertzen du. 1940 eta 1950eko hamarkadetako kultur gertakari nagusiak aipatu ondoren, 1956tik aurrerako ekimen eta mugimenduen berri ematen digu, euskal kultura eta literaturarentzako aro berri baten aurrerapen direnak: liburugintza eta aldizkarigintzaren esparruetako berrikuntzak, euskararen aldeko gizarte eta kultur ekimenak, *Jakin*-en sorrera bera.

Bigarren artikuluan, Joxe Azurmendik *Jakin*-en lehen hamar urteen historian kokatzen gaitu. Aldizkaria sortu zuen ikasle seminaristen taldeak 1956ko irailean antolatu zuen lehen bilera Arantzazun, eta handik aurrera eta 1967ra arte, salbu 1966an, urtero bildu ziren. Bilera horietan hizkuntz ereduaren hautaketa zen eztabaidagai nagusia. Urteek aurrera egin ahala, aldizkariaren izaera ideologiko eta sozialaren mailan planteatzen da eztabaida zuzen-zuzenean.

Azkenik, bitxikeria bat dakar zenbaki honek, *Gaiak* sailean.

Pio Barojaren heriotza zela-eta, haren euskotasuna omentzen zuen artikulua bat agertu zen Parisko *Euzko Deya*-n 1956ko abenduaren 1ean, egilearen izenik gabe. Original frantsesean berrargitaratzen dugun artikuluari egindako sarreratxoan, hauxe adierazten du Joxe Azurmendik: «Testuan hainbat zantzu dagoela, iruditu zaigu, autorea Jon Mirande baino besterik ezin izan litekeela, pentsarazten duena». Uste horretan berrargitaratzen dugu hemen, «omenduaren hala omendailearen oroiz», Pio Barojaren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenaren kariaz, eta orain arte aintzat hartu gabeko Miranderen idazkitxo bat berreskuratze-ko asmoz ere. ¶







LIBURUAK

Euskal  
liburugintza  
2005

**11** JOAN MARI TORREALDAI

# Euskal liburugintza 2005

JOAN MARI TORREALDAI

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

Iazko liburugintzaren azterketa landu nuenean ikerketa luze-zabalago bat agindu nuen, 1976tik gaurdainoko liburu ekoizpenaren aurkezpena edo.

Zer dela eta? Noski, badu horrek bere zioa, eta da aurtengo azterketarekin 30 urte jarraian fitxa bibliografikoak egin eta azterketa burutu izan dudala. Hori «ospatu» nahian-edo urte horien guztien errepaso egin nahi nuen, hogeita hamargarren urteurrenak horretarako aukera polita ematen zuela eta.

Zoritxarrez, ordea, hitza jan beharrean nago. Ez dut astirik. Ez nuen ondo kalkulatu, ezin nezakeen egin orduan, *Jakin* aldizkariaren 50. urteurrenak emango zigun lana. Gaur biharamuna da, baina atzeratutako lanak eguneratu ezinda gabiltza. Barka.

## Fitxa bibliografikoak interneten

Hasi nintzen egunetik gaur arte, 1976ko liburuekin hasita alegia, bitan banatua eman dut urteko liburugintzaren errepaso: fitxa bibliografikoa, eta azterketa. Fitxa bibliografikoa gizenduz joan da (1976ko 95 tituluetatik gaurko 2.016

arte bada alderik!), eta azterketa ere trinkotu egin da abe-rastearekin batera.

Urtero-urtero, bada, eredu bera jarraitzen dut: azterketa eta fitxa bibliografikoa. Baina iaz hasita liburu zerrenda ez dugu aldizkarian ematen, geroz eta orri gehiago hartzen zitu-  
tuen eta. Irakurle interesatuak zerrenda osoa interneten aur-  
kituko du, aldizkarian eman ohi genuen formatu berarekin, *Jakin*-en webgunean: [www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com). Zerrenda horret-  
tan, gainera, azterketarako kontabilizatzen ditugunak baino  
fitxa bibliografiko gehiago daude, ISBN gabeko zenbait.

Aldizkaria arintzekotan hartu dugun bideak, hala ere, for-  
matuaz gainera berberak ditu helburuak, hau da, kontsulta,  
noski, baina baita ere begi zorrotzeko azterketa. Akatsen bat  
aurkituko lukeenari eskertuko genioke zuzenketa *Jakin*-era  
bidaltzea, harik eta denon artean euskal bibliografia guztiz  
fidagarri bat lortu arte ez baitugu atsedunik.

## Fidagarritasuna auzitan?

Urtea joan eta urtea etorri, gauza beretsua esanez hasi be-  
har izaten dut beti, euskal liburugintzaz informazio oso des-  
berdinak azaltzen direla. Apirileko liburuaren eguna dela eta,  
edo Durangoko Azoka datorrenean, orduan interesatzen da  
prentsa. Holakoetan agertzen diren balantze eta balorazioak  
hobe ez entzun edo irakurri. Gutxienez, errezeloz hartu.

Mezulariari errua egozte da errazena, hala ere. Errua,  
egotekotan, beste nonbait dago. Informazioaren iturburue-  
tan daude desinformazioaren erroak. Hona adibide bat:

Iturria / Urtea	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Precisa	1.589	1.621	1.588	1.576	1.584	2.094
ISBN espainiar agentzia	1.425	1.326	1.342	1.487	1.681	1.534
Joan Mari Torrealdei	1.519	1.488	1.665	1.945	1.851	2.016

Aztertzaile bakoitzak dauka bere iturria, eta zertan esanik  
ez bere metodologia propioa. Ni ez naiz sartuko besteenak  
baloratzen.

Bakarrik esan ISBN espainiar agentziak beti nik baino kopuru apalagoak ematearen esplikazioa zera izan daitekeela, berrinprimaketa askoren berri ez zaiola iristen, argitaletxeek bidaltzen ez dituztelako.

Ohartzekoa da, bestalde, Precisa azterketa etxeak aldaketa nabarmena egin duela aurten, EAEz gainera Euskal Herri osoa aintzat hartu baitu. Titulu kopuru orokor altuak harritzen banau ere, badirudi barneko analisiak zehatzagoak direla aurten.

Nirera itzuliz, azalpento batzuk zor dizkiot irakurleari nire neure informazio-iturriez eta metodologiaz.

Hasteko, informazio homologatu bat lortze aldera, hau da, nire datuak besteekin kontrastatu ahal izateko, ISBN daukaten tituluak kontsideratu ditut soilki, iaz egin nuen gauza bera. Beste asko, niretzat ISBNdunak bezain liburu direnak, kanpoan utzi ditut (ez webgunean argitaratu den zerrendatik, baina bai kontaduriatik) hain zuzen ere, berriz diot, ISBN edo liburu karnet hori ez daukatelako.

Irizpideak zehaztea baino korapilatsuagoa da informazioa eskuratzea. Informazioa lortzeko, bide desberdinez baliatu ohi naiz. Oinarrizko informazio-iturria argitaratzaileek berek ematen didatena da: batzuek liburuak materialki bulegoan gure esku uzten dituzte, eta besteek fitxa bibliografikoak osatzen dizkigute. Horrela eskuratzen dugu informazio gehiena, eta informazio hori argitu/garbitu/kontrastatu/osatu egin behar da gero, eta kontraste horretarako daude Euskal Herriko hainbat liburutegi lagun, liburu-zerbitzuak eta ISBN agentziako fitxategiak.

## Liburuaren mundua krisian?

Azterketa zehatzetan murgildu aitzin, zertzelada orokor batzuk egin nahi nituzke liburuaren egungo egoeraren inguruan. Hainbat kontu gure ekoizpenari zuzen dagozkioke, eta beste batzuk zeharka edo urrunagotik, baina on da jakitea zertan garen berdin eta zertan diferente.

Galdera-markarekin hasi naiz, ez bainago seguru krisi hitza egokia den egoera azaltzeko orduan. Bestalde, ez dut krisiaren objektua ere zehazten, horregatik diot «liburuaren mundua». Izan ere, liburuak ertz ugari ditu, oso gai konplexua da.

Krisiaz mintza gaitzekeen ez dakit, baina aho batez aipatzen da liburuaren egoera kezkarria. Eta urrats bat gehiago emanda, euskal liburuari dagokionean egoera larria azpimarratuko nuke nik. Besterik ez bada, liburuak oro har jasaten dituen joera negatiboak gurean are negatiboagoak direlako gure tamainaren txikia kontuan hartuta. Gure kultur industria txikia eta ahula da, oso ahula.

• *Zenbat buru, hainbat aburu*

Krisiaren edo dena delakoaren diagnosia egiteko orduan, hipotesi desberdinak landu ohi dira.

Batzuen iritzian, irakurketaren krisia dago oinarrian. Balizko irakurleak, batez ere gazteak, muzin egin dio irakurketari. Errazago eta maizago kontsumitzen ditu irakurketa exijitzen ez duten bestelako produktuak, teknologia berrietakoak.

Beste batzuek diote irakurketa barik liburuaren formatua eta euskarria dagoela krisian. Irakurri orain ere irakurtzen dela eta asko, baina beste modu batez, pantailan. Eta aldatu dena, paper euskarriarekin batera, kultur paradigma dela.

Eskaintzaren gehiegian eta merkatuaren saturazioan bilatzen dute errua zenbaitek. Hauen esanetan, gaurko argitaletxe handiek errotazioa eta etengabeko produkzioa lehenesten dute, liburu txarrei ere paso emanez, eta horrek merkaturua gainezkatu du. Merkatuak ez du modurik produkzio hori guztia irensteko. Liburu-dendek leku mugatua dute, inbutua egiten dute, eta liburuaren bizialdia laburtuz doa urtetik urtera. Ondorio txar bat gehiago ere badakar horrek, eta da itzulketak ugartuz doazela, eta hori sekulako zama dela liburuaren komertzializazioan.

Ezaugarri horietatik oso aparte ez da egongo euskal liburuak, baina kalko hutsa ere ez da agian. Bertagotik ikusteko asmoz zenbait puntu seinalatuko ditut jarraian.

<i>Urtea</i>	<i>Tituluak</i>	<i>Tirada</i>	<i>Ale kopurua</i>
2000	%100	%100	%100
2001	97,9	100,6	102,6
2002	109,6	95,4	95,3
2003	128, -	82,8	82,1
2004	121,8	76,2	75,9
2005	132,8	68,9	82,1

Iturria: Precisa.

- *Tituluak gorantz*

Tendentzia orokorra da Mendebalean, eta gurean, geroz eta titulu gehiago ateratzea. Aurtengo produkzioak ere koska bat gora egin du. Nik positibotzat daukat datua, ez uste dudalako titulu gehiago ateratzeak eskaintza kalitatez hobetu eta aniztu egiten duela nahitaez, baizik eta konbentziturik nagoelako gure eskaintza ez dela gehiegizkoa, eskaria dela eskasegia.

Ñabardurak azterketan zehar ikusiko ditugu, baina titulu ekoizpenari oso gaintetik begiratu hutsarekin zer ikusten dugu? Produkzioaren ia erdia haur eta gaztetxoentzat dela (ikas-material edo literatura gisa). Hori bateko. Eta besteko, beste liburu asko, erakunde publikoek-eta argitara ematen dituztenak, publiko berezi edo mugatu batentzat direla. Zenbat dira orduan publiko arrunt orokor eta zabalarentzat direnak? 700 bat? Eta hona nire galdera: 700 liburu (ezen ez 700 titulu berri) urtean gehiegi al da? Horregatixe diot euskal liburugintzan ez zaidala soluzio iruditzen tituluen murrizketa.

- *Tiradak beherantz*

Ezaugarri finkoa da hau ere, bai munduan eta bai gurean. Han eta hemen joera bera izanik ere, ondorioak ez dira berdin-berdinak leku guztietan. Jakin badakigu Frantzia eta Espainiako tiradak ere garai batetik hona erdira etorri direla, baina haiek orain ere 7.800 eta 4.600 aleko tiradak dauzkate, hurrenez hurren. Jaitsiera hori kezka bizi dute arduradunek.


Joera, berriz diot, gurean ere bera da, baina zifrak askoz baxuagoak. 2000ko edizioan batez besteko tirada 2.900 ale omen zen. Eta 2005ean 2.000koa da. Liburuko 900 ale gutxiago banatzea ez al da esanguratsua bezain kezkarria?




Gurean 2.000 aleko tirada asko ala gutxi den ez dakit. Zifra hori, gainera, «batez bestekoa» da, eta nork ez daki maila horretaraino igotzeko tira egiten dutenak ikasmaterialak direla eta horien ondoan liburu praktikoak eta hiztegi eta entziklopediak? Aurrenekoak, ikasmaterialak, «merkatu gaitibu»-ra doaz, eta besteak ez dira ugari. Esan gabe doa, hortaz, zifraren maila horretatik behera, oso behera, daudela beste batzuk, hala nola, helduen literatura (1.019 ale), haur eta gazte literatura bera ere (1.924 ale), giza eta gizarte zientzietakoak (1.178) eta berdin zientzia edo teknikari dagozkionak (1.178). Ikasmaterialen tiradizoa desagertzen bada, zein litzateke batez bestekoaren kopurua? 1.200?, 1.000?, 700? Eta errentagarri al da hori? Baldintza horietan mantendu al daiteke editorearen profesionaltasuna?

- *Ale gutxiago merkatuan*

Tirada txikiagoak egitea ekintza editorial hutsa izan liteke, hau da, teknologia berriek erraztuta edizioak momentuko eskarira doitzen direla. Baina ez da hori bakarrik, tamalez. Ez da hori batez ere, tiradak murrizten diren hein berean ez baitira biderkatzen berrargitalpenak. Dakigunez, tiradak murriztu dira, bai, baina deboluzioak ez dira desagertu. Gure kasuan tiraden jaitsierak arrazoi nagusi bat dauka: merkatuan gutxiago saltzen da. Ez da ahaztu behar, gainera, nobedadeen erdiak eta gehiagok itzulketa edo deboluzioa izan ohi dutela.





Aleen murrizketaren datuak hor daude: baldin 2000 urtean 4.611.487 ale zabaldu baziren (ekoitzi behintzat), 2005ean 3.787.000koa da urteko ale-kopurua. Hau da: 824.500 ale gutxiago bost urteren buruan.

Errealitate hori guztiz kaltegarria da enpresarialki zein kulturalki. Editore profesionalaren lana eteteraino irits liteke ale-murrizketa hori. Eta kulturaren ikuspegitik ere oso ezkorra da, azken batean eskaintzaren demokratizazioa baita gutxitzen dena, esku gutxiagotara iritsiko baita euskal liburua.

- *Merkatuaren saturazioa?*

Diagnosi askoren arrazoi giltzarri nagusia hauxe da: merkatua saturatuta dago, eta arintzera jo behar da. Liburu-denda baten egoera ikusi besterik ez dago: uholdeka iristen zaizkio titulu berriak eta ezin die denei erantzun. Inbutua da, gainezka dago.

Eta hori bera liburuaren kaltetan gertatzen da. Liburu onaren kaltetan batez ere. Liburu txarrak liburu ona zokoratu egiten du. Kantitatea kalitatearen aurka doa.

Ikuspegi horrek argudiaketa egokia du, baina soluzio zaila. Egia izanik ere liburu txarrak «zentsuratu» egiten duela liburu ona eta baliozkoa, zeinek erabakitzen du «kalitatea»? Ortega y Gasset ezagunak ere gauza bera zioen, eta berak liburuzainak proposatu zituen ebazle. Bai, baina gero zentsu-

ra frankistak haren proposamena Estatuaren zentsura bihurtu zuen.

Inork egitekotan, sektoreak berak, editoreen elkarteek berak egin beharko lukete gogoeta eta, ahal izanez gero, proposamena.

Euskarazko liburuaren merkatura mimetikoki aplikagarria al da aipatu berri dugun ikuspegia?

Ez dakit. Edozein modutan, bi arazo desberdin daude hemen: bata, merkatuaren saturazioarena; eta bestea kalitatearena.

Produkzioaren kalitateari dagokionez, ba al da zer hobeturi gurean? Esan dut hori egokien konpon dezaketenak editoreak berak direla. Kanpotik salatzea erraza da, egiazki soluzionatzea zailago. Euskal editoreen kasuan badirudi horren kontzientzia behintzat badela, Elkarteko lehendakaria den Jorge Gimenezen aitortzak salatzen duenez. Testuingurua beste bat izanik ere, subentzioena, ekoizpen zikinez eta zarata handiegiaz ari da. Hona bere hitzak:

Dena den liburuaren kasuan bada honekin lotutako beste gai mingarri bat saihestu ezin duguna, guztiz ezinbestekoa den diru laguntza sistema publikoaren ondorio kaltegarria: gaur egun bada argitaratzailerik diru laguntza badagoelako argitaratzen duenik. Gure sektoreak eta zehazki Euskal Editoreen Elkarteak Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin duen kontua da eta badakigu Jaurlaritzako Kultura Sailaren kezka ere badela, baina ez diogu taxuzko irtenbiderik aurkitzen arazoari. Ikusten dugu zarata asko ari dela sartzen liburuen merkatuan, merkatua zikindu baino egiten ez duen produktu asko dagoela, baina orain arte ez gara gai izan —eta saiatu gara— formula bilatzeko.

Niri hemen gehiago interesatzen zaidan auzia bestea da: euskal merkatua saturatua al dago?

Badira bi esaldi, egia izanik ere, errealitatea ezkututzen dutenak: «irakurtzen denerako gehiegi publikatzen da euskaraz»; «publikatzen den guztia ezin da irakurri».

Biak dira egia, berriz diot, baina irtenbidea ez da iradokitzen dutena: alegia, gutxiago argitaratu behar dela. Kontrara

baizik. Produkzioa ikusi besterik ez dago, produkzio mota alegia, euskaraz bizi nahi duen gizarte edo herri baten ikuspegitik gutxi(egi) publikatzen dela ondorioztatzeko. Gure liburugintzaren soluzioa ez dator eskaintza murriztetik, eskaria handitzetik baizik. Irakurri egiten da gutxi, ez gehiegi publikatu. Irakurketa da bultzatu behar dena, eskaria.

• *Subentzioetatik inbertsioetara*

Gaur egun euskara idatziaren mundua sustatzeko administrazioaren modu nagusia subentzio gisako diru-laguntzen bidezkoa da. Bai komunikabideetan eta bai editorialgintzan. Laguntza mota horren zehar-kaltetzat jo du Jorge Gimenezek «merkatuaren zikintzea». Ez da zehar-kalte bakarra seguruenik, jauziak aurrera egin ordez daukaguntxoarekin konformatu eta goxo egotean ere badu agian zerikusirik. «Biziraupena kolokan» jar daitekeela-eta, urduri jartzen garenez, hobe geld, hobe isilik, eta eman daitezkeen urratsak eman gabe zoritxarrez. «Zero arriskua» bide da leloa.

Jorge Gimenezek ez dio hori baina urduritasunaren logikan ikusten dut nire konklusioa. Hauek dira Editoreen Elkarteko lehendakariaren hitzak:

Esan beharra dago serio eta era profesionalean ari den euskal editorearentzat laguntza publikoa oraindik ere, tamalez, ezinbestekoa dela eta horri mugak jartzeko orduan denak jartzen gara urduri, biziraupena ere kolokan jarri daitekeelako zenbait kasutan.

Inoren biziraupena kolokan edo auzitan jarri gabe, bade-la ordua iruditzen zait subentzioetatik harago inbertsioetara igarotzekoa. Subentzioak motz gelditzen dira kultur industriek behar dituzten planteamenduetan. Diru-laguntzen sistema publikoak apustu berriak egitea eskertuko luke sektoreak, laguntza logika aldatzea, ez bakarrik zehar-kalteak ekiditeko, baizik eta batez ere euskal kulturaren apustu berriei erantzuteko. Produktua laguntzetik harago, enpresa eta proiektu anbiziotsuak lagundu behar dira, egiturak eta azpiegiturak indartu behar dira.

Gutziz inportantea da nire irudiko diagnosia ongi egitea: sobera dugu eskaintza? Ala eskas dugu eskaria? Berriz diot nire iritzian eskariaren eskasian dagoela gakoa. Hortik bi ondorio gutxienez atera daitezke: batetik, industria editoriala indartu egin behar dela; eta, bestetik, eskaria suspertu eta sustatu egin behar dela. Lehentasun kronologikoa luke, hipotesi horretan, sustapen politika indartsu batek. Gauza jakina da promozioak saltzen duela, promozioak. Munduko produkturik onena ere ezdeusa da merkatuan promozio gabe. Eta bestetik, hau ere gauza jakina da, euskarazko produktua ez dago merkatuan bera bakarrik eta isolatua. Borroka egin behar du doakoarekin (internet) eta erdarazkoekin. Eta biak datoz promozioaren olatuaren bizkar gainean. Euskal produktuek duten defizit handienetakoa, handiena ez bada, sustapen eza da. Bere burua ezagutzera eman ere egin gabe hiltzera kondenatuta daude asko eta asko.

• *Ikasmaterialgintzaren krisiaren zain?*

Hiruzpalau urte barru ikusi ahal izango dira agian liburu mota honek hartu duen jipoiaren kalteak zenbatekoak diren. Orduan ikusiko da, bestalde, nola eragiten duen krisi horrek liburuaren produkzio osoan. Kalteak, gainera, produkzioa gaindituz, liburuaren komertzializazio eta liburu-dendetara, salmenta-guneetaraino, iritsiko dira. Sektoretik harago, liburuaren ekosistema osoa kolpatuko du Hezkuntza Sailaren erabakiak.

Liburu mota hau argialetxe handien oinarria da, oinarri sendoena. Irakaskuntzako liburuak produkzio osoan duen garrantzia edo pisua erakusten saiatu nintzen iazko azterketan. Aurtengoan, datuak gaurkotzeaz gainera, gogoratu egingo dut atzera: tituluetan %30,6 suposatzen du; tiradak batez bestekoak baino altuagoak ditu (2.436 vs 2.000); euskaraz ekoizten diren ale guztien erdia eta gehiago (%54) berea da; eta, azkenik, fakturazio osoan %67,2 suposatzen du liburu mota honek. Neurri zuzentzailerik ez badago, epe ertainera euskal liburugintzak oso bestelako bisajea izango du. Eta ez

da politagoa izango, gaurko arazo guztiei krisi larriarena erantsi beharko zaie eta.

## Jardun editoriala

Argitaratzailea bera eta beronen lana hurbilagotik ezagutzeko asmotan abiatzen gara kapituluska honetan.

Hainbat zertzeladaren bidez jakin nahi dugu zeintzuk eta nolakoak diren editorialak, nola kokatzen diren produkzioarekiko, hizkuntzarekiko, hitz bitan esan, beren izaera, tipologia eta jarduna.

## Atomizazioa

Egungo jarduera editorialaren ezaugarrietako bat atomizazioa da. Ugari, oso ugari dira libururen bat atera duten eragileak. Banan-banan zenbatuta 290. Tartean daude enpresak, elkarteak, erakunde publikoak, taldetxoak, kanpokoak, bertokoak... eta 30 udal. Asko dira «argitaratzaile-edo» dei genitzakeenak. Gehiegi.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	163
2-4	62
5-9	21
10-19	26
20-29	6
30-39	2
40-49	1
50-59	2
60-69	1
70-79	1
80-89	0
90-99	0
100-149	4
150etik gora	1

Nola baloratu behar den kopuru handi hori? Atomizazioa aberasgarri izan daiteke, aukera anitzen isla, ikuspegi asko eta askotarikoen berme. Atomizazioa negatibotzat ere har

genezake, ahuldade ekonomiko eta kulturala adierazten duelako, merkatuan eragiteko indar falta. Eta argitaratzaile edo dena delako horietako asko eta askoren edizio lan hori puntuala edo okasiozkoa denean, zer nahi duzu esatea?

Atomizazioak aberasgarri izateko, goiko taularen beste konfigurazio bat beharko luke. Liburu bakarreko eragile gutxiago beharko luke eta ez %56,2. Eta batez ere urtean 20tik 60ra bitartean aterako lituzketenak oraingo %3,8 izan ordez %10 bat balira, orduan bai legokeela aniztasunaren bermea. Gaur-gaurkoz, ordea, ugaritasun horrek aniztasuna barik ahultasuna eta barreiaketa islatzen ditu.

Euskal liburuaren etorkizuna bermatzen dutenak ez dira taula horren goiko parteko argitaratzaile ugari horiek, eta bai beheko aldean dauden banakako beste hauek, kopuruz gutxi izanik ere.

## Kontzentrazioa

Aurreko taulak bistan utzi du edizio altukoak gutxi batzuk direla: zehazki, ehun titulutik gora daukatenak %1,7 bakarrik dira. Hauek: Elkar, Ikastolen Elkartea, Ibaizabal, Eusko Jaurilaritza eta Erein. Gutxi horien eskuetan al dago edizioa?

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkar	73	163	203	10,1
Elkar/ Ikastolen Elkartea	17	128	145	7,2
Ibaizabal	57	80	137	6,8
Erein	54	61	115	5,7
Ttarttalo	51	21	72	3,6
Anaya	34	26	60	3,-
Giltza-Edebé	28	27	55	2,7
Zubia-Santillana	46	7	53	2,6
Alberdania	30	13	40	2,-
Hiria	39	0	39	1,9
<i>Guztira</i>	<i>429</i>	<i>526</i>	<i>918</i>	<i>45,5</i>

Hamar handienetako zerrenda horretan argitaratzaile pribatuak daude bakarrik. Titulu kopuruei soilki erreparatuta,

barruan beharko luke Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusiak. Baina, ohikoa denez holakoetan, ez dugu hemen aintzakotzat hartzen, publikoa delako.

Hamar horien produkzio indarra %45,5 da, iaz baino bost puntu gutxiago. Urte askotan aurreneko hamarren ekoizpen maila %50en jiran ibili da, aurten baino altuago. Aurtengo jaitsiera, gainera, ez da bakarrik portzentuala, hau da, besteek gora egin dutelako, zenbaki absolutuetan ere 32 unitate galdu baitituzte.

Hamarreko multzo hori ez da homogeneoa. Desberdintasunen artean bi azpimarratuko nituzke: ekoizpen-indarra guztiz desberdina da batzuen eta besteen artean: handienak urtean 203 liburu plazaratzen dituenen, txikienak 39 argitaratu ditu. Eta bigarren aldea berrargitalpenean dago. Batzuen kasuan erdia eta gehiago da berrargitalpena: Elkar-Ikastolen Elkarteak (%88,3), Elkar (%69,1), Ibaizabal (%58,4) eta Erein (%53). Berrogeita hamarreko marrik behera berrargitaratu dituzte hamarretik seik: Giltza (%49,1), Anaya (%43,3), Alberdania (%30,2), Ttartalo (%29,2), Zubia (%13,2), eta, azkenik, jokabide harrigarria erakusten duen Hiria, berrargitalpen bat bera ere gabe. Jorge Gimenezek salatzen zuenetik ez dela aparte ibiliko iruditzen zait.

## Argitaratzaile motak

Argitaratzaileen izaera, jatorria eta jarduna aintzat hartu eta osagai desberdinok uztartuta egin ohi dut bosteko tipologia hau.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	44	1.002	46,4
Argitaratzaile publikoa	63	300	14, -
Elkarte, talde, fundazio, erlijio-etxe...	112	245	11,5
«Kanpokoak»	27	331	15,3
Irakaskuntzakoa	27	244	11,3
Besterik	10	37	1,5



Multzo bakoitzeko ezaugarriak zehatzago azalduko ditugu ondoko lerrootan.

- *Bertoko argitaletxea*

Bertoko argitaletxe pribatu komertzialak dira hauek, esan nahi baita, Euskal Herrikoak direla, bere egiteko arrunta liburuak editatzea dela, ez direla administrazioaren baitakoak, eta merkaturako lan egiten dutela liburuak salduz.

Multzo honen barruan ere sailkapenak egin daitezke, handien eta txikien artean esaterako. Izan ere, horietatik 25, hau da %56,8, dira urtean 10 titulura iritsi ez direnak.

Guztira 44 dira bertoko argitaletxetzat eman ditugunak, argitaratzaileen %15,1 besterik ez, baina horien eskuetan dago ekoizpen osoaren erdia, %49,7.

Argitaratzaile horiek berrargitalpenari indar handia ematen diote, %56,8.

Multzo honek markatzen ditu gai-sailkapenaren ildo nagusiak. Hauen produkzioan haur eta gazteentzako liburuak %37 du, irakaskuntza liburuak %30, literaturak %17, eta giza zein gizarte zientzietakoak eta zientzia nahiz teknikakoak %10 eta %3 hurrenez hurren.

- *Argitaratzaile publikoa*

Aurreko multzokoak baino ugariago dira: 63 dira, %21,6 alegia, eta ekoizpenaren %14,8 osatzen dute.

Administrazioiko eta administraziopeko guztiak sartu ditugu hemen (EHU kenduta): Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Diputazioak, Eustat, Udalak, etab.

Kopuruz gehienak udalak badira ere, ekoizpen-indar handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (%41), eta askoz gutxiagorekin datoz beste hauek: Gipuzkoako Foru Aldundia (%7,5) Nafarroako Gobernua (%5), EITB (%4,5) eta Eustat (%3,5).

Produkzioaren ezaugarriak aurreko multzotik arras diferenteak dira. Hauen produkzioa giza eta gizarte zientzietan zentratua dago (%61), eta urruti kokatzen dira besteak, hala zientzia eta teknika (%15) edota irakaskuntza liburuak (%13).

Merkatuan indar gutxiko liburua da gehienetan eta bizialdi laburrekoa. Berrargitalpenak ez du indar zipitzik hemen (%2,6).

- *Elkarte, fundazio eta beste*

Argitaratzaileen multzo zabalena da berau (%43), baina ez indartsua edo produkzio handikoa inondik ere: %12.

Multzo honetan kokatu ditugu kultur gune eta eragile ugari, eta alor desberdin askotakoak: kirola, kultura, artea, aisia, erlijioa, ekonomia, finantzak, fundazioak, sindikatuak, alderdiak, kultur etxeak, museo etxeak, euskara taldeak.

Horiek publikatzen duten gehien-gehiena, aurreko kasuan bezala, giza eta gizarte zientzietan kokatzen da (%49), baina literatura ere argitaratu dute (%17,5), edo liburu zientifikoa (%12,5). Harritu nau aisiako liburu gutxi (%5) argitaratu dutela ikusteak.

Merkatuan intzidentzia eskaseko liburua da normalki, eta berrargitalpenik gabea.

- «*Kanpoko*»

Etxe nagusia edo jatorrizkoa Euskal Herriko mugetatik at daukana bataiatzen dugu honela.

Multzo honetan badira enpresa editorialak, indartsuak, eta badira bestelakoak, askotan jarraikitasunik gabekoak. 27 dira guztira (%10,3), eta ekoizpenaren %16,4 zor zaie.

Hauetako enpresen liburu politikan bi liburu mota daude: batik bat irakaskuntza (%73), eta gero gazteentzako liburua (%25,5). Bestelako liburuetan ez dute parte hartzen. Berrargitalpenak indar nahikoa badu: %28. Itzulpenak ere badu berea, baina irudi arazoengatik-edo, ezkutatu edo mozorrotu egin ohi dira aitorpenak.

- *Irakaskuntzako*

Ekoizle guztien %10,3 osatzen dute irakaskuntzaren alorrean lan egiten duten hauek, eta ekoizpenaren %12 gauzatu dute.

Irakaskuntzarekin loturiko eragile ez editorialak dira guztiak, ikastetxeak direla, edo elkarteak nahiz unibertsitateak (EHU eta Nafarroako publikoa barne). Eta aurtan Ikastolen Elkarteak Elkarrekin batera argitara eman duen guztia ere hemen kokatu dugu, bai berak bere aldetik publikatu duena bai Elkar argitaletxearekin batera emandakoa.

Multzo honetako eragile nagusi jakina Ikastolen Elkarteak da %63,5ekin, eta nabarmen gutxiagorekin datoz hurrengoak: EHU (%13), UEU (%4).

Uste izatekoa da gaia irakaskuntzaren jirakoa izango dela, eta halaxe da neurri handiengan (%67). Baina ez osoki, hala ere: giza eta gizarte gaiak (%19,5), zientzia eta teknikak (%8,5) eta gazteentzako liburuak (%4) badute bere zatia.

Berrargitalpena indar handiz (%53,5) ageri da, baina irakaskuntzako liburuari dagokio eta, zehazkiago esan, ia osoan Ikastolen Elkarteko ikasmaterialgintzari.


## Eskaintza editoriala

Eskaintza editorialaren azterketan, liburugintzaren lerro nagusiak eta alderdi kuantitatibo esanguratsuenak ikusiko ditugu. Eta grafiko eta taulez lagunduta egingo dugu aurkezpena, mila hitz alferretan galdu ordez. Hiru grafiko mota landu ditugu: bat, balio absolutuen eboluzioa erakusten duena; bigarrena, eboluzioaren balioak bistaratzen dituena; eta hirugarrena, urte batetik bestera eduki duen eboluzioa nabarmenduko duena.

Urteko emaitza testuinguruan kokatzeko eta baloratzen laguntzeko, modu diakronikoan landu ditugu grafikoak, 10-11 urteko perspektiba eskainiz.


## Tituluak: hamaika urteko maila gorena

Urte batean hainbeste titulu ez da orain arte sekula argitaratu. Egia esan, eboluzio lerroa begien aurrean daukagula ikus dezakegu gehienetan gertatu dela gorakada. Noiz arte? Sabaia noiz joko duen ezin da orain esan.




Azken hamaika urteotako batez bestekoa 1.540 titulu da, eta aurreko urteetako batez bestekoa 1.132 titulu da. ISBNren identifikazio marka hori gabe ere bai, dezentziaz argitaratu dira, paper euskarrian bezala euskarri teknologikoan, baina esan bezala, zifren homologazioa tarteko ez ditugu aintzakotzat hartu.

### Tituluen eboluzio-lerroa



Tituluen eboluzioaren grafikoak 1995 du erreferentziazko urtea. Urte horrekiko balio portzentualak markatu ditu grafikoak, eta urte bakoitzak izan dituen gorako zein beherako koskak seinatzen ditugu. 2005eko produkzioan, duela 11 urte baino ia 65 puntu gorago dago ekoizpena. Bada zerbait bere eskasian!


*Tituluen eboluzioaren indizea*



Horra hor urte batetik bestera zein den aldea, aurreko urtearen erreferentzian. Zutabe gehiago dira positiboak, hori bateko; eta besteko, hazkundera markatzen duten zutabeak askoz garaiagoak dira. Beste modu batera esanda, agian baieztza daiteke jaitsaldiak nahiko anekdotikoak edo puntualagoak izan direla. Batez beste ageri den joera gorakoa da, positiboa.

**Nobedadeak eta berrargitalpenak**

Berriz ere hamaika urteko ibilaldian, kontzeptu hauetako bakoitzak zein ekarpen egin dion liburugintzari agertu nahi dugu grafiko eta laukien bidez.




Elkar osagarri diren kontzeptu hauen urtez urteko erlazioa hobeto azaltze aldera, ondoko taulak balioen zehaztapena eranstean dio aurreko grafikoari.

Urtea	Nobedadea	Berrargitalpena
1995	77,8	22,2
1996	77,9	22,1
1997	71,-	29,-
1998	69,9	30,1
1999	70,6	29,4
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,2	27,8
2003	72,1	27,9
2004	75,6	24,4
2005	71,7	28,3
Batez beste	73,7	26,3

Hamaika urte horietako batez bestekoa honoko hau da: nobedadea %73,7 eta berrargitalpena %26,3. Eta zein da aurtengoa, 2005ekoa? Aurten berrargitalpena indartu egin da (%28,3), eta hortaz nobedadeek puntu batzuk galdu dituzte: %71,7.


Datu horien arabera, aurtengo gorakadan berrargitalpenak eragin du gehiena, iazkoaz gain 118 unitateko ekarpena egin baitu eta lehen edizioak 47, erdia ere ez.

### Nobedadeen eboluzio-lerroa




1995eko erreferentzian 51,8 goitik daude nobedadeak aurren, baina gero ikusiko dugunez dezente handiagoa da berrargitalpenak izan duen igoera (102,8).

*Nobedadeen eboluzioaren indizea*



2004ko jaitsiera-puntutik abiatuta 3,4 igo da 2005ean. Ez da gorakada handia, zenbaki absolututan 47 titulu gehiago suposatzen baitu, tituluen igoera oro har 165 unitatekoa izan denean.


*Berrargitalpenen eboluzio-lerroa*



1995ean baino 102,8 puntu goitik dago berrargitalpena oraingo honetan. Inoiz egon den punturik gorenean, hain zuzen ere.

Iazko jaitsaldia zela-eta kezka agertu nuen, nire ustetan berrargitalpenak, liburu jakinetan asmatu izateaz gainera, irakurle berrien etorrera adierazten baitu eta baita, aldi berean, editorialen finkapena ere. Aurten, arestian aipatu dugunez, hamarkadako batez bestekoaren gainetik dago berrargitalpena (%28,3).

### *Berrargitalpenaren eboluzioaren indizea*



Hamaika urte hauetan, bitan salbu, gora egin du berredizioak. Urte beltz horietako bat iazkoa izan zen, 2004koa, 16,6 jaitsi baitzen. Aurtengoak, ordea, iazkoa harrapatu eta pasatu egin du, esan ohi den bezala. Orain arteko igoerarik altuena berau da, gainera: 26,1. Seinale ona. Iaz baino 165 unitate gehiago argitara eman badira aurten, horietatik 118, hau da %71,5, berredizioari dagozkio.

### *Berrargitalpenen mailaketa*

Zertan azpimarraturik ez da, baina ohartzea komeni bai, berredizioak ez duela gaur garai bateko garrantzia. Orain baino lehen, duela hamabost bat urtera arte edo, tiradak handiagoak egin ohi ziren. Orain, ordea, merkatuaren premietara doitzen dira tiradak, biltegiak garesti direlako eta teknologiaren aurrerapenei esker berriz editatzea erraztu eta merkatu egin delako. Edozein modutan ere, kopuru handiago ala txikiagoak gorabehera, bigarren edizioak bi-



garren bizitza esan nahi du liburuarentzako, bai lehen eta bai orain.

### *Berrargitalpenen maila*

Lehen argitaraldia.....	1.459 titulu
Bigarren argitaraldia.....	208
Hirugarren argitaraldia.....	122
Laugarren argitaraldia.....	58
Bosgarren argitaraldia.....	56
Seigarren argitaraldia.....	44
Zazpigarren argitaraldia.....	18
Zortzigarren argitaraldia.....	12
Bederatzigarren argitaraldia.....	11
Hamargarren argitaraldia.....	9
Hamaikagarren argitaraldia.....	4
Hamabi argitaraldi edo gehiago.....	53

Urteko titulu guztietatik %28,3 da berrargitaratua izan dena, lautik bat eta gehiago. Zerrendak erakusten duen moduan, gehien-gehienek argitaraldi bakarra izan dute, noski. Baina ez dira gutxi bigarren aldi batez argitaratu direnak, eta badira argitaraldiak metatuz doazenak.

Aurtengo edizioan 208 titulu dira bigarren aldiz editatu direnak. Horiek, bada, aurreneko berrargitaraldia izan dute aurten. Eta dagoeneko hirugarren argitaraldia edo hortik gora hamargarrenera bitartean izan dituztenak beste 321 titulu dira.

### *Hamar argitaraldi eta gehiago*

10. argitaraldia	
<i>Bihotz ausarta</i>	Urkixo, Joanes
<i>Dorian Gray-ren erretratua</i>	Wilde, Oscar
<i>Erinias taberna</i>	Ormaetxea, Amaia
<i>Euskara eta Literatura - Lan-koaderno 2 (DBH)</i>	Aldasoro, Mikele eta beste
<i>Euskara eta Literatura - Lan-koaderno 4 (DBH)</i>	Berazubi
<i>Hitz egingo balute</i>	Herriot, James
<i>Koaderno handia</i>	Kristof, Agota
<i>Ostiralak</i>	Arretxe, Jon
<i>Txan fantasma</i>	Landa, Mariasun

11. argitaraldia  
*Bakarka 2*  
*Euskara - Lan-koadernoa 15 (LH)*  
*Euskara eta Literatura - Lan-koadernoa 1 (DBH)*  
*Ingurunea 4 (LH)*  
 Letamendia, Jose Antonio  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Berazubi  
 Sudupe, M. Lurdes eta beste
12. argitaraldia  
*Behin batean - Idazketa 1 (LH)*  
*Behin batean - Idazketa 2 (LH)*  
*Euskara - Lan-koadernoa 10 (LH)*  
*Euskara - Lan-koadernoa 11 (LH)*  
*Euskara - Lan-koadernoa 12 (LH)*  
*Euskara - Lan-koadernoa 13 (LH)*  
*Euskara - Lan-koadernoa 14 (LH)*  
*Euskara 5 - Hizkuntza (LH)*  
*Euskara 6 - Hizkuntza (LH)*  
*Indiana Jones-en zamarra*  
*Ingurunea 6 (LH)*  
*Tentazioak*  
 Olabarri, Miren eta beste  
 Olabarri, Miren eta beste  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Agirretxe, Joxean eta beste  
 Aldasoro, Mikel eta beste  
 Aldasoro, Mikel eta beste  
 Balzola, Asun  
 Lasa, Jaione eta beste  
 Osoro, Jasone
13. argitaraldia  
*Haltzak badu bihotzik*  
*Hiztegia 2000. Eskola hiztegia*  
*Ingurunea 5 (LH)*  
 Mendiguren Bereziartu, Iñaki  
 Kintana, Xabier eta beste  
 Sudupe, M. Lurdes eta beste
14. argitaraldia  
*Bakarka 4*  
*Hamaseigarrenean, aidanez*  
*Jolas egiteko ipuinak*  
*Maripertxenta*  
*SPrako tranbia*  
 Mujika, Jose Antonio  
 Lertxundi, Anjel  
 Rodari, Gianni  
 Ormazabal, Joxantonio  
 Elorriaga, Unai
15. argitaraldia  
*Bakarka 1*  
*Maite zaitut*  
*Obabakoak*  
*Tunel luzea*  
 Letamendia, Jose Antonio  
 McIver, Nick  
 Bernardo Atxaga  
 Milne, John
16. argitaraldia  
*Ezer baino lehen*  
*Ezin da ipuinik asmatu ala?*  
*Katu beltza*  
 Iturbe, Arantxa  
 Mendiguren Elizegi, Xabier  
 Milne, John
17. argitaraldia  
*Atzapar arrastoak*  
*Connemara gure bihotzetan*  
*Irakasle alu bat*  
*Nikolas Txiki*  
 Landon, John  
 Gabiria, Julen  
 Mendiguren Elizegi, Xabier  
 Goscinnny, René

18. argitaraldia	
<i>Eztia eta ospina</i>	Zubizarreta, Patxi
<i>Goizuetako ezkongaiak</i>	Garate, Gotzon
<i>Izurri berria</i>	Garate, Gotzon
<i>Kittano</i>	Ormazabal, Joxantonio
19. argitaraldia	
<i>Desagertutako emakumea</i>	Prowse, Philip
<i>Eskubeltz taldearen abenturak</i>	Jürgen Press, Hans
22. argitaraldia	
<i>Istanbulen elkartuko gara</i>	Chisholm, Richard
24. argitaraldia	
<i>Babilonia</i>	Irigoien, Joan Mari
26. argitaraldia	
<i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
29. argitaraldia	
<i>110. Street-eko geltokia</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki
35. argitaraldia	
<i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

Berredizioen maiztasunari buruz behar diren erlatibizazio guztiak eginda ere, berrargitalpena beti da liburuaren arrakastaren neurgailua.

Neurgailuaren marra hamargarren berredizioan jartzen badugu, maila altua eskatzen ari gara. Bada, hamar edizio edo gehiago pilatuta dauzkaten tituluak 55 izan dira 2005eko liburugintzan.

Zerrenda horretan denetik dago, helduen literatura, haur eta gazteena edo ikasliburua hiztegiekin batera. Maila gorenean, ordea, literatur liburua ageri da, gehienetan liburu irakurteraza, eta hori ere ez da esangura gabea. Orain dela gutxi irakurri nion idazle gazte bati literatura irakurteraz hori bultzatu behar dela jendea euskarara erakarri ahal izateko. Ez dago gaizki esana. Arrakastak berak erakusten du bidea.

### *Argitaraldi bat baino gehiago urte berean*

1/2 edizioak	
<i>Egundokoa haiz, Segundo!</i>	Esnal, Pello
<i>Medikuak esan dit minbizia dudala</i>	Aranzabal, Joxe
<i>Komunista.com</i>	Irigoien, Joan Mari
<i>Ikusmen jokoak 1</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste

<i>Ikusmen jokoak 2</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Ikusmen jokoak 3</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Logika jokoak 1</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Logika jokoak 2</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Logika jokoak 3</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Orientazio jokoak 1</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Orientazio jokoak 2</i>	Blanch i Gisbert, X. eta beste
<i>Egizu lo. Lotarako ipuinak</i>	Igerabide, Juan Kruz eta beste
<i>Gorka konpontzailea</i>	Murua, Mitxel
2/3 edizioak	
<i>Elezaharren bidetik</i>	Anso, Martin
<i>35 kilo esperantza</i>	Gavaldà, Anna
<i>Maitasuna besterik ez</i>	Arold, Marliese
<i>Palestina, zure mina</i>	Bilbao Alboniga, Begoña
<i>Garmendia errege</i>	Uribe, Kirmen
<i>Aita despistatu bat</i>	Gregori San Juan, Josep
2/3/4 edizioak	
<i>Hamabost zauri</i>	Jaio, Karmele
3/4/5/6/7 edizioak	
<i>Gloria Mundi</i>	Morillo, Fernando
4/5 edizioak	
<i>Han goitik itsasoa ikusten da</i>	Gabiria, Julen
7/8 edizioak	
<i>Elhuyar hiztegi txikia. Euskara-gaztelania / Castellano vasco</i>	Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuak
14/15 edizioak	
<i>Bakarka 1</i>	Letamendia, Jose Antonio
14/15/16/17 edizioak	
<i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
15/16 edizioak	
<i>Ezin da ipuinik asmatu ala?</i>	Mendiguren Elizegi, Xabier
17/18 edizioak	
<i>Goizuetako ezkongaiak</i>	Garate, Gotzon
<i>Kittano</i>	Ormazabal, Joxantonio
18/19 edizioak	
<i>Eskubeltz taldearen abenturak</i>	Jürgen Press, Hans
25/26 edizioak	
<i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
28/29 edizioak	
<i>110. Street-eko geltokia</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki
34/35 edizioak	
<i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

2005eko titulu batzuek, 33 tituluk, edizio bat baino gehiago izan dituzte urte berean. Horietako gehien-gehienek, hori bai, bi edizio izan dituzte. Berrietako 13k urteko lehen edizioa errepikatu egin dute. Aurrenekoa ez baizik bigarren edizioa errepikatu dutenak sei dira.

Urte berean hiru edizio liburu batek izan du, lau beste batek eta bosteko bat ere badago, Fernando Morilloren *Gloria Mundi*.

Zer adierazten dute edizio-errepikapen horiek, tiraldien doikuntza estuegia ala editorea ustekabeen harrapatu duela liburuaren arrakastak?

## Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuak

Berrargitaraldietan luze bidaiatu ondoren, gatozen atzera nobedadeetara, lehen ediziora.

Ikusia dugu jada nobedadeko liburuaren konportamendua zein den. Hitz batean, mantendu egin dela esan genezake, goranzko joera txiki batekin.


Baina mantentze hori zeri zor zaio, euskaraz sorturiko liburuari ala itzulitakoari? Lehia hori jatorrizko liburuak irabazi dio aurten itzulitakoari.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	73,9	26,1
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6
2002	67,3	32,7
2003	69,2	30,8
2004	73,-	27,-
2005	73,5	26,5
<i>Batez beste</i>	68,8	31,2

Hizkuntz jatorri ezberdineko liburuak dira batzuek eta besteak, euskaraz sorturikoak batzuk eta erdaretatik ekarri-


takoak besteak. Edizioak elkarrekin bizitzen jartzen ditu. Zein da, ordea, elkarbitza orekatutzat eman genezakeena? Auskalo. Nik ez dakit behinik behin. Euskal edizioari so, esan dezagun azken hamaika urteotako ibilaldian jatorrizkoak %68,8ko batez bestekoa lortu duela, eta itzulitako liburua %31,2koa. Aurtengo edizioan jatorrizkoak gora egin du, %73,5 lortu du.

*Jatorrizko liburua eta itzulpena elkarrekin*




Azken 11 urteotako eboluzioari begira, jatorrizko liburua gorabehera gutxi xamar izan du, koska txiki batzuk behera; gorabeheratsua izan da itzulitakoa.

*Jatorrizko liburuaren eboluzio-lerroa*




Hamaika urte hauetan, grafikoak erakusten duenez, bi goraldi garrantzitsu izan ditu jatorrizko liburuak, urtero duen goranzko joera motela bizkortuz. Eta 2005ean jo du goia, 1995ean baino 85,2 puntu gehiago duelarik. Aurtengo nobedadeen hazkundera ere jatorrizkoari dagokio, 44 titulu berriekin.

*Jatorrizko liburuaren eboluzioaren indizea*




Hiru zutabe beltz horiek seinatzen dute urte horietako ahulaldia. Hiru ez da asko eta batez ere jaitsiera txikiak dira. Igoerak ere normalean ez dira handiak, esan bezala, goian seinalaturiko bi horiek kenduta.

*Itzulitako liburuaren eboluzio-lerroa*



Lerro hautsia irudikatzen du aurreko hamarkadak, baina mende berri honetan sekulako progresioa izan du, iaz behe-  
ra egin zuen arte. Aurten iazko balioetan mantendu da.

### *Itzulitako liburuaren eboluzioaren indizea*



Bizitza gorabeheratsua salatzen dute zutabe hauek, batean  
koxxa bat gora, bestean beheara, eta lantzean behin modu  
nabarmenean.


Azken zutabeek erakusten dute iaz jaitsi egin zela dezent-  
te, eta aurten mantentzea lortu duela baina ez dela gauza  
izan aurreko maila berreskuratzeko.

## Gaiak

Liburugintzari aterako diogun argazki hau barne begira-  
tua da, kualitatiboa da, sakona. Zertaz diharduten liburuek,  
hori da argitu nahi duguna. Gai-eremu zabal jakinetan bil-  
du ohi dira liburuak oro. Gurean, urtea joan eta urtea eto-  
rri, jakinak dira gai-sail horiek, beti berak baitira, baita hie-  
rarkian ere, nahiz eta ez beti proportzio beretan.

Gaien araberako banaketa hori bi modutara emango dugu  
ondoren: lehenik grafiko batean agertuko dugu; eta lauki gi-  
sa segidan, osagai berri bat erantsiz, erreferentzia gisa har-  
tua dugun 1995 urteari begira zein den eremu bakoitzaren  
posizioa.





Gai multzoa	Zenbaki absolutuak	%	2005/1995
Hezkuntza. Irakaskuntza	618	30,6	+ 69,3
Haur eta gazteentzako liburuak	463	23,-	+ 49,3
Giza/gizarte zientziak	429	21,5	+ 66,9
Helduen literatura	247	12,2	+ 3,7
Zientzia. Teknika	136	6,7	+ 300,-

1995etik hona gorakada handiena zientziak egin du, 300 puntu gora. Bere tokian ikusiko dugunez, ordea, oso maila apaletik abiatua da.

Bigarren hazkundera inportantziaren mailan irakaskuntzari dagokio (69,3), eta laugarrena haur eta gazteentzako liburarena da (49,3).

Hirugarren hazkundera garrantzitsuena gizarte zientziakoa da (81 puntu), baina kasu horretan ere zientziari buruzko liburuari egin diogun ohar bera egin beharko genuke, oso behetik hasia dela ibiltzen hori ere. Hazkuntza abiada da handia, ez maila.


Orain arte aipatu ditugun hiru multzoen hazkundera positiboa izan da, oso positiboa. Guztiz negatiboa izan gabe bada ere, literaturak ez du asmatu gora egiten. Aurten gora egin duelarik ere, 1995eko kopuru berdinetan dabil helduen literatura.

## Hezkuntza eta irakaskuntza: 618 titulu

Sail honek biltzen du bere baitan 2005ean argitara eman denaren %30,6. Titulu horietako asko eta asko berrargitalpenak dira, zehazki %46,3. Itzulpenaren ekarpena %22 da.

Idatzi dut arestian liburu mota honen garrantzia zein den handia. Ikusten dugu produkzioan, baina are handiagoa da ale-kopurutan eta, ondorioz, argitaletxeen urteko fakturazioan. Horrekin esan nahi dut, Hezkuntza Sailak mailegu bidezko doakotasuna erabaki ostean, goitik behera alda daitezkeela balio horiek. Ez dakit, ez dakidanez, lauzpabost urte barru zein egoeratan aurki gaitzkeen.

### *Irakaskuntzaren eboluzio-lerroa*




1995etik hona asko irabazi du liburu honek. Orduan baino beherago hasiera hartan bakarrik egon da. Gorago ibilita ere, dena den, jaitsaldiak izan ditu bere bidean. Duela bi urte jo zuen gailurra, eta harrezkero beheraka doa.

Ez dakit beherakada horiek interpretatzen, zerikusi zuzena baitute alde batetik irakaskuntzako «merkatu gatibu»-arekin, jaiotze tasetatik hasi eta hezkuntza plangintzetan amaitu.

### *Irakaskuntzaren eboluzioaren indizea*

Urtez urteko konportamenduak azaltzen duena zera da: bateko, igoyerak indartsuagoak direla; eta besteko, beheraldiak bina urte irauten dutela. Ikusteko dago hemendik au-

rerrerakoa. Aurtengo jaitsera, iazkoa baino txikiago izanik ere, aurrekoari erantsi behar zaio, eta bi urteotakoa metatuta ia 200 titulu gutxiago editatu dira.



### Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	4,7
Hezkuntzaren antolakuntza.....	3,7
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	21,8
Lehen Hezkuntza.....	36,9
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	27,5
Euskararen irakaskuntza.....	3,2
Besterik.....	2,2

%100

Sailaren barruan bi material klase sartu ohi ditugu: irakaskuntzaz ari diren liburuak eta ikasmaterialak. Gehien-gehienak ikasmaterialak dira: %91.

Ikasmaterialen mostratxo gisa, esan dezagun lehen hezkuntzak biltzen duela ekoizpenaren %36,9, DBHk %27,5, eta haur eskolak edo oinarrizko irakaskuntzak beste %21,8 biltzen duela bere baitan.


### Haur eta gazteentzako argitalpenak: 463 titulu

Liburu mota hau ere oso garrantzitsua da euskal edizioan. Irakaskuntzako liburuarekin konpartitzen du merkatua. Bien pisua kontuan hartuta, euskal edizioko titulu guztien %63,6

dira haurren eta gazteen zerbitzura eginak. Horixe da inguruko eremu handiko kulturetatik nabarmen desberdintzen gaituen faktorea. Frantsesaren edo gaztelaniaren merkatuarekin, esate baterako. Frantziako produkzioan bi aldagai horien pisua %31 da; eta Espainian, gaztelaniaz, %34,2.

Eremu zabaleko kulturetatik desberdintzen gaituen faktore horrek berak hurbiltzen gaitu beste batzuegana. Eta esplikatzeko erraza da, bai katalanak bai gailegoak beren hizkuntza propioaren berreskuratze prozesuan baitaude gu bezala. Bi liburu mota horiek edizio katalanaren %61,6 osatzen dute, eta argitalgintza gailegoaren %64,8. Tamaina beretsuan gabiltza hiruok.

#### *Haur eta gazte liburuaren eboluzioa*




Produkzioaren baitan %23 suposatzen du haur eta gazteentzako argitalpenak, ia lau titulutik bat. Tradizionalki asko elikatzen da itzulpenaz, aurten ere bai, baina iaiztik hona dezente jaitsi da: lehen edizioan %55 zen itzulpena iaz, eta aurten %47an gelditu da.

Liburu mota honen eboluzioa ikusten badugu, lerro gorabeheratsuak darama arreta.

#### *Haur eta gazte liburuaren eboluzioaren indizea*

Urte batetik bestera egon ohi den alde maizenik txikia izanda ere, atentzioa ematen du hiru urtetako gorakadak.

Horietako bat aurtengoa bera da, aurreko urtetik 17,8 puntu hazi baita. 70 liburuz ari gara.




## Giza eta gizarte zientziak: 429 titulu

Urteko ekoizpenaren baitan bere pisua hazi da, %19,5etik aurtengo %21,5era igaro da. Itzulpenak %21eko indarra du, baina egiazki dezente gehiago dela ziur nago, administrazio-ko liburu asko, ele biz agertu ala ez, itzulitakoak baitira nahiz eta liburuaren kredituetan ez aitortu.


Berrargitalpenaren datua (%6), hori egiazkoa izango da, liburu mota hau arrakasta sozial gutxikoa baita gehienetan, gaietatik batzuetan eta eremu jakinekoei zuzendua delako bestetan.

## Giza eta gizarte liburuaren eboluzio-lerroa



Oso apal ibili den liburua da. Eta orain ere ez dago fanfarroi, nahiz eta 1995etik hona 66,9 puntu irabazi. Esanguratsua da hazkuntza, baina deus gutxi da, euskal kulturaren normalizazioak gai horietan ekoizpen askoz handiagoa eskatuko bailuke. Zer gertatzen da? Erdaraz kontsumitzen ditugula gai horiek, erdaraz bizi dugula gehienbat eremu honetan sartzen diren liburuen mundua, adibidez, politika, soziologia, administrazioa, zuzenbidea, linguistika, historia, geografia, eta beste. Ikusi besterik ez dago, esaterako, politikariei buruzko liburuak zein hizkuntzatan argitaratu ohi diren.

*Giza eta gizarte liburuaren eboluzioaren indizea*



Hiru urte segidan igoera ematen du ekoizpenak, iazkoa oso eskasa izan bazen ere. Aurtengoak badu eduki pittin bat gehiago, 70 titulu gehiagoz ari baikara.

*Barne sailkapena*

Filosofia eta psikologia.....	3,2
Soziologia eta estatistika.....	6,3
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	10,9
Zuzenbidea. Administrazioa.....	10,9
Linguistika eta filologia.....	16,7
Geografia eta bidaiak.....	3,5
Historia eta biografiak.....	15,8
Etnologia.....	5,3
Edertia.....	14,2
Hirigintza eta arkitektura.....	5,1
Besterik.....	7,7


-----  
%100

429 titulu horiek askoren artean banatzekoak dira. Bakoi-tzari gutxi egokitzen zaio, halabeharrez. Gure hizkuntz erabilerara diglosikoaren isla hoberik ez dago. Erakundeen inpul-tsurik gabe, gainera, hutsaren hurrengoa litzateke gai-sail hau.

## Helduen literatura: 247 titulu

Literatura sailean argitarata emandako 247 titulu horiek ur-teko produkzioan %12,2 suposatzen dute. Horietako lautik bat berrargitaratu egin da (%24,7), eta lautik ia bat, baita ere, itzuli egin da (%24).

### *Literaturaren eboluzio-lerroa*




Gai handien artean literatura da, bera bakarrik, beheranz-ko joera maiz erakusten duena. Eskerrak 2000. urtean gra-fikoak markatzen duen jauzia egin zuen. Azken bi urteotan 1995eko erreferentziazko marraren azpitik egon da, eta aur-ten erdietsi du atzera duela hamaika urteko maila.

Hamaika urteotako batez bestekoa 228 titulu urtean litza-teke, eta aurrean 247 atera ditugu, nahikoa izan ala ez, okerra-go egon izan garen seinale, grafikoak erakusten duen bezala.

### *Literaturaren eboluzioaren indizea*

Urte askok dute beltz kolorea, egoera beltzaren adierazga-ri. Jaitsierak, egia esan, ez dira amildegia, igoeren kontra-

ra, baina maiztasuna dute handia: 6. Aurtengo iguera ez da xanpainarekin ospatzekoa, 19 titulu baitira guztira, eta gainera itzulpenari eta berrargitalpenari zor zaie.



### Generoka

Eleberria. Ipuina.....	62,3
Olerkia.....	14,5
Antzerkia.....	2, -
Herri-literatura. Bertsoa.....	3,2
Saioa. Poligrafiak.....	3,2
Beste zenbait genero.....	8,1
Besterik.....	6,4
	%100

Narratibaren gailentasuna gero eta handiagoa da. Genero horretan sartzeko ez baita eleberria edo ipuina bakarrik. Beste zenbait genero gisa eman ditugunak ere sail berekoak dira, horretan sartzen baitira gutunketa, kazetaritza, historia, erotika eta beste. Narratiba ez beste genero guztiak jaitsi dira aurtengo ekoizpenean.

### Gainerakoak


Aurreko sailkapenean ez dira liburuetakoa gaiak oro agortzen. Gehienak haietan kokatzen dira, hori bai, baina beste bik ere merezi dute gure arreta. Biak dira, gainera, modernitatearen sinbolo. Zientzia zein teknikako liburuez eta ai-siako liburuez ari gara.



## Zientzia eta teknika: 136 titulu

Liburu mota hori ekoizpenaren %6,7 da aurten. Iaz baino gehiago (%5,3). Liburu mota horren buztinezko zangoa, beste kasu batzuetan bezalatsu bestalde, berrargitalpenik eza da: %6 bakarrik berreditatzen da, huskeria.

### Zientzia eta teknikaren eboluzio-lerroa



Goranzko joera etengabea da, batzuetan bestetan baino indartsuagoa. Gorako joera garbia markatzen duen urte horietako bat hain zuzen ere aurtengoa da, iaztik 37 puntu pasa igo baita. 1995ean baino 300 puntu gorago dago aurten.

### Barne sailkapena

Giza eta gizarte zientzien antzeratsu, gai-sail hau ere zabal da, bertan kokatzen baitira zientzia, fisika, kimika, botanika, zoologia, ingeniari-tza, merkataritza, medikuntza, industria, teknologia, eta beste gai asko.

Zientzia. Kultura.....	7,3
Zientzia zehatzak.....	29,4
Natur zientziak.....	9,5
Ingeniari-tza. Teknologia. Industriak.....	8,1
Medikuntza.....	22,8
Nekazaritza.....	5,8
Merkataritza.....	10,2
Besterik.....	6,6

%100

**Aisia liburuak: 86 titulu**

Gizarte moderno edo postmodernoarene ezaugarrietako bat aisiaren garrantzia omen da. Gure gizartean ere indar-berriturik daude eremu honetako gaiak, musika, zinema, argazkia, kirola, jokoa, atletismoa, mendizaletasuna. Baina euskaraz gutxi: urteko liburuen %4,2. Zer da, bada, 86 titulu urteko? Ez dugu euskaraz kontsumitzen. Erdaraz bizi gara lanean noski, baina aisian ere bai. Eta hori ez digu inongo estatu edo ugazabak inposatzen.

Musika. Argazkia.....	41,8
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	28,-
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	16,2
Komikia.....	14,-
	%100

## 2005eko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>478</b>	<b>23,7</b>
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak.	15	0,7
Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	463	23,-
— Haur eta gazteentzako argitalpenak		
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>14</b>	<b>0,7</b>
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	14	0,7
<b>2. ERLIJOA. TEOLOGIA</b>	<b>22</b>	<b>1,1</b>
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala. Liturgia.		
Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	22	1,1
<b>3. GIZARTE ZIENTZIAK</b>	<b>762</b>	<b>37,8</b>
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea.		
Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	144	7,1
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	618	30,7
<b>5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK</b>	<b>56</b>	<b>2,8</b>
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.		
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	56	2,8
<b>6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>71</b>	<b>3,5</b>
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia.		
Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza.		
Sukaldaritza	71	3,5
<b>7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>159</b>	<b>7,9</b>
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.		
Margogintza. Argazkigintza. Musika	134	6,6
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	25	1,3
<b>8. FILOLOGIA. LITERATURA</b>	<b>319</b>	<b>15,8</b>
— Hizkuntzalaritza. Filologia	72	3,5
— Literatura. Literatur generoak	247	12,3
<b>9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA</b>	<b>103</b>	<b>5,1</b>
— Geografia	20	1,-
— Biografiak	44	2,2
— Kondaira	39	1,9
<b>SAILKATU GABE</b>	<b>32</b>	<b>1,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.016</b>	<b>100</b>

# 50eko hamarkada

## euskal kulturaren

**53** *Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan  
**JOSEBA INTXAUSTI**

**77** Hizkuntz ereduaren eztabaida  
Jakinarrien bilerak  
**JOXE AZURMENDI**

# *Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan

JOSEBA INTXAUSTI

Idazlea, historialaria eta *Jakin*-eko kidea

*Jakin* 1956ko udazkenean jaio zen, eta urte-modu hartako euskal bizitza kulturalari begiratu bat ematea dagokit.

Orain hogeita hamarren bat urte egin behar izan nuen gauza bera<sup>1</sup>, baina handik hona idatzitakoa (guztia ez bada ere) gogoan hartuz egingo dut oraingoan. Izan ere, ez da falta garai hartaz azterlanik: hauetako batzuk euskal kulturari orokorrean dagozkionak izan dira<sup>2</sup>; besteak, berriz, Erbeste kulturala aztertu dutenak<sup>3</sup>, eta, azkenik, baita *Jakin* aldizkariaren historia arakatu digutenak ere<sup>4</sup>.

Lehen urte haietako *Jakin*-en historia errealitate mugatua da, noski, gizarteko barruti jakineko lana, baina ez da historia isolatua, inondik ere, eta aldatuz datorren euskal kulturako azalpen aski adierazgarria gerta daiteke. Eta, agian, lagun lezake, gainera, urak bere orokorrean nondik zihoazen so egiteko. Dena den, ez naiz azterlan sakonago eta zabala-goetan sartuko, eta bizi izandako garai haien lekuko bezala ere jardungo dut hemen.

## Bi hamarkada kontrajarri: 1940koa eta 1950ekoa

Hasteko, esan dezadan frankismoko lau hamarkadak ez zirela izan mortu eta hilak, gorabehera eta aldakuntzarik gabe-koak (1936-1975); hau da, boteredunek ez zuten beti berdin zapaldu edo mugatu, eta euskal gizarteak molde ezberdinetako erantzun eta ekimenak izan zituen denboraren harian, alderdi politiko kontrajarrien aldetik ere. Begi bistakoa da hori.

1940.ekoa gerraoste gordinena izan zen, eta horren barruan euskarazko produkzioak ez zuen lekurik izan Hegoaldean, harik eta 1947-1949.etan zerbait-zerbait mugitzen hasi zen arte<sup>5</sup>. 1950eko hamarkadan berritasun nabari eta jakin-neko batzuk behintzat ezagutu genituen; horien artean bat, *Jakin* aldizkariarena bera. 1960ko hamarkada oso bestelakoa da: ikastolak datoz, Irratia ere bai, astekariak, kanta berriaren lehen pausoak, argialetxe berriak, etab.

1950.eko hamarkadan, badirudi euskal kulturgintzan Erbesteak eta Barruak elkarri begiratzuz eta elkarren lehian ariko direla, urruntasun geografikoaren gainetik hurbiltasun sozio-kulturala bilatuz, batzuetan hala nahi izan zelako eta bestetan parean gertatu zelako, gehiago gabe. Ikus dezagun xehetasun gehiagoz.

Hamarkada batetik besterakoan, ez gaude, noski, bat-bateko bihurgune hertsian, baina bai bihurgune mantso eta kalkulatu batean. Estrategia politiko eta kulturalak aldatze-ra doaz, apurka-apurka.

Erbesteak eratutako kultur produkzioarik zabalena, Buenos Airesen, Ekin argialetxetik zetorrena zen (1942...)<sup>6</sup>. Zoriturrez, urrun egoteaz gain, Hegoaldera sartzeko bidezidor bihurriak bilatu behar izaten zituen honek.

II. Mundu-Gerra amaitu eta Gerrate Hotzera pasatu aurretik ere, Erregimenak komenigarri ikusi zuen euskal kulturari (oraindik gaztelaniaz bakarrik) leihatilaren bat irekitzea, segur aski sistemaren barruko zenbait kritikoaogok premiazkoa ikusten zuelako eta aurpegia zerbait garbitu beha-

rra zegoelako. Une horretan jaioko da Donostian Euskal-erriaren Adiskideen Elkarteko *Boletín* zeritzana (BRSBAP, 1945), bizitza luzekoa eta garrantzizko historia egin duena<sup>7</sup>.

Gogora dezagun nortzuk dituen *Boletín* horrek lehen urteetako lankideak, nortzuk eta zein koloretakoak.

Lehenengo, noski, Erregimenekoak edo berorren hurbilekoak daude: Erregimenetik datozen J. M. Areilza (1945), J. L. Banús Agirre (1945)<sup>8</sup>, A. Tovar (1945)<sup>9</sup> eta J. Berruezo (1945)<sup>10</sup> edo J. Urkixo karlista (1945)<sup>11</sup>, nahiz M. Ciriquiain-Gaiztarro (1945). Bestalde, ez da falta jende libreagorik: F. Arozena (1945), J. Caro Baroja (1945), J. B. Merino Urrutia (1945). Horra datoz laster tradizio abertzalekoak ere: Jesus Elozegi (1946), A. Irigarai (1946)<sup>12</sup>, Justo Garate (1947), Jose Artetxe (1948), I. M. Barriola (1948), Manuel Lekuona (1948), Aita Donostia (1949), eta are nabarmenago: K. Mitxelena (1949), Jesus Galindez (1951), Antonio M. Labaien (1951).

Idazleon historia pertsonalak ezagutzen dituenak badaki, berorien aldizkariko presentziak zer esan nahi zezakeen: Hegoaldean hurbiltasun kultural berriak jaiotzeaz daude, konbentzimendu politikoetan dimisiorik eman gabe. Gerrako garaituetako batzuek, bederen, onartu dute Aldundi frankistak abiarazi duen kultur aldizkari berriaren balio kultural posiblea.

Aldizkari-harpidedunen zerrendak ezagutzen ditugu, eta kopuru polita zen horiena: 1945eko izendegiak erakusten duenez, 580ren bat harpidedun izan zuen urte hartan, eta 1949ko albisteetan gora egiten du kopuruak: milaren bat harpidedunetara edo iristen ari zen *Boletín*-a<sup>13</sup>, hutsarte kultural nabaria zerbait betetzera zetorrelako, noski.

Dena den, artean (1945), dena erdaraz dago.

Azken gerrate karlistaren ondoren bezalatsu, badirudi kultur bideei ekin beharko zaiela gerra zibil galduaren ondoren eta guretzat hutsala gertatutako Aliatuen garaipenaren biharamunean.

Testuinguru politikoa berria da European eta munduan. 1945ean aliatuek irabazi dute beste gerra handia, baina Fran-

cok bere eserlekuan jarraitzen du, aldakuntzaren itxaropenak gero eta urriagoak direla. Estatu Batuek onartu dute Erregimenaren lankidetzeta, Espainiaren nazioarteko politikari ateak irekitzen dizkiote iparramerikarrek (1950), Vatikanok Konkordatua sinatu du (1953) eta Espainia onartu dute NBEen (1955). Gerrate Hotzean gaude.

1940.eko hamarkada amaitzean zantzu berriak suma daitezke: Arantzazukoek lortzen dute beren *Egutegia* argitara eman eta milaka ale banatzea (1947), Lekuonak heldu dio berriz bere idazketari (*Jesus aurraren bizitza*, 1948); bestalde, S. Mitxelenak molde berriko saioak egingo ditu bere *Arantzazu* poeman eta historian (1949, 1951). Baina, batez ere, ikustekoa da hamarkada hura itxi orduko nola berreskuratzen duen euskal kulturak, aspalditik iragarritako poema handia (Orixeren *Euskaldunak*, 1950), eta urte berean baita garaian guztiz praktikoa eta noblea zen *Meza-Bezperak* liburua (1950) (ertzak urreztatuta zituena!). Esan daiteke, bi liburu hauetan dutela beren lehenengo hitzordua aurreko belaunaldiak eta garaiko gazteek.

Laster, 20ren bat urte beteko ditu gerra ezer gutxi ezagutu zuen gazteria batek, baina haren oroitzapen isildua gogoan duenak. Euskaltzalea da gazte hori, eta badaki gurasoekin bidegabekeria latzak egin zirela.

Arrazoi kontrajarriengatik, euskal Erbeste politikoak eta Erregimen frankistak ere molde berri batez begira dezakete edo behar dute euskal kulturarekikoa, nahiz eta azken xedeak, alde batean eta bestean, zinez kontrajarriak dituzten.

1950.eko hamarkadan euskal Erbeste politiko-kulturala ekimen berrietan sartuko da: Eusko Ikaskuntzak Kongresuak antolatuko ditu (Miarritze, 1948; Baiona/Uztaritze, 1954) alde batetik<sup>14</sup>, eta Jaurlaritzak I. Euskal Batzar Orokorra (*I Congreso Mundial Vasco*) bilduko du geroxeago (Paris, 1956-09-23 / 1956-10-01)<sup>15</sup>.

Erregimenak, edo berorren ildoko zenbait disidentek, euskarazko kulturari tartetxo bat bederen eman diezaiokeela uste du, nonbait. Nazioartean jada lortu duen segurtasun



berriak, batetik, eta kanpoko euskal salakuntzei aurre egin nahiak, bide zerbait liberalagoak urratzera eramango du.

Hemen eman daiteke, segur aski artean euskalgintzatik kanpo ageri zaigun, baina pisu ideologiko-kultural handia izan zezaketen *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* deituak (1947-1959). Urtero ospatu ziren Europako intelektual katoliko demokraten topaketa hauek, Karlos Santamariaren gidaritzapean, eta 1950.eko hamarkada bete-betean hartu zuten. Garbia zen hor katoliko liberalen ahotsa, eta bere aldizkaria ere izan zuen (*Cuadernos*); Kontzilio aurreko bururik argienak pasatu ziren Elkarrizketa haietatik, eta prentsako haien oihartzuna handia zen nazioarteko aldizkari katolikoetan, eta Espainiako egunkarietan ere. Ikerlanak dauden puntuan egonik, zaila da jakitea zein pisu izan zuten euskaltzaleen artean, nahiz eta badakigun Santamariak bere sustapen eta antolakuntza lanetan zebilela, abertzaleak ere aintzakotzat hartu izan zituela<sup>16</sup>.

Zenbait politikari eta intelektualek, gerra pasatua dela, eta utzitako zaurien ondorioak leundu egin beharko direla uste du. Hezkuntzako Ministerioan Ruiz Jiménez dago, hain zuzen Tovar Salamancako Unibertsitateko Errektore den urte ber-beretan (1951-1956). Giro berritze horregatik ere sortu ziren, noski, Salamancako «Cátedra Larramendi» hura (1952)<sup>17</sup>, eta Donostiako Urkixo Mintegia, bere *Anuario* eta *guzti* (1954)<sup>18</sup>. Gerraurretik zetorren zenbait ikertzaile ere hurbilduko zen, orduan, Donostiara, J. M. Lakarra nafarra, adibidez<sup>19</sup>.

Bien bitartean, euskal Erbeste kulturala berean ari da, Mexiko, Caracas edo Buenos Airestik. Iparraldea ere ez dago geldirik, eta iristen dira, tantaka bada ere, euskararen eta euskal kulturaren azalpen berriak, aldizkariak bezala liburuak ere. Ale gutxi sartzen dira barrura, baina datozen gutxi horiek eskuz esku doaz, bereziki Ikastegi eliztarretara heltzen direnean. Dena den, txikia eta erdi ezkutua da irakurlego hori.

Politikariak ari dira, beren isilpeko aldizkarietan: *OPE* berriemailea (Oficina de Prensa Euzkadi), *Euzko Deya* guz-

tiak, etab. Baina aldi berean, 1950eko horretan kultur aldizkariak ere beren lekua hartuko dute, eta ez Erbestean baka- rrik, baita Hegoaldean ere; lehenengoak gaztelaniaz edo fran- tsesez datoz: *Eusko-Yakintza* (Baiona, 1947), *Boletín del Insti- tuto Americano de Estudios Vascos* (Buenos Aires, 1950)<sup>20</sup>.

1950eko hamarkadak bestelako berritasun ausarta dakar euskal kulturara, Erbestean bezala Hegoaldean ere: euskaraz- ko kultur aldizkari erdi-goikoena. Bi izen dira aipatzekoak:

- Bata Ameriketako *Euzko-Gogoa* (Guatemala, 1950-1955; Miarritze 1956-1959).
- Bestea bertakoa, *Egan* (Donostia: 1948, 1954...).

Berritasun nabaria da hau, kultura jaso eta eskolatua eus- karaz ere egin daitekeela baieztatzen diguna. Esperientzia berri hau ezinezkoa zen 1940ko hamarkadan, baina eginga- rria gertatu zen hurrengoan.

Erbesteak hartu zuen ahalegin honetan aurrea. Erbesteak orokorrean baino gizon eta lagun-talde batek, *Euzko-Go- goa*-n Zaitegi baita lehenengo, eta hura bezala, batez ere La- gunditik ateratako jende eskolatua (Orixe, Andima, Argara- te, etab.)<sup>21</sup>.

Horrelako jatorria ez duen hainbat lagun ere ingurura bil- tzea lortu zuten, gainera: lehenengo urtean bertan, J. Mi- rande, T. Monzon, J. M. Barandiaran, Iratzeder, G. Urrutia, A. Zatarain, N. Tauer, etab. Guztiak ere libertate-usaina du, eta leialtasun abertzale politikoen aurpegia ez du mozorro- tuko *Euzko-Gogoa*-k. Amerikan jaioa izanik ere, *Euzko-Go- goa*-k ia bere bizialdiaren erdia Miarritzen eman zuen (1956-1959), Euskal Herrian bertan, beraz, baina zorigai- tzeke muga-hesia tarteko zela.

Euskarazko *Egan*-en kasua oso bestelakoa da. *BRSBAP*-en eranskin bezala agertu zen lehenengo (1948); hortaz, Euskale- rriaren Adiskideek eraman zituzten orduan formalki orrialde haiek. Lehenengo ibilaldiko *Egan* elebidunean (1948-1952), erdal idazle ezagun batzuk baditugu: 1948an bertan, Blas de Otero, J. M. Azaola, G. Celaya, M. Ciriquiain-Gaiztarro, eta

euskal lanetan M. Lekuona, K. Sagartzazu eta Salvatore Mitxelena ageri dira. Urte horietan idatzi zuten, gainera, Emerterio Arrese, Jose Agerre, Julian Alustiza, Jautarkol (Luis Jaurégi), Orixe edo Xanti Onaindiak.

Bost urte geroago (1953), urte horretako zenbaki bakarra erabat euskaraz agertu zen, eta Julio Urkixo Mintegiak bere ardurapean hartu zuenetik (1954), aldakuntza adierazgarri baten aurrean geunden. Aldizkariaren asmoak birdefinitu egin ziren orduan, «Asmo berri» editorialean: jada erabat euskarazko kultur aldizkari bihurtzea erabaki baitzen<sup>22</sup>:

- Kalera begira ari nahi dugu, baserrira begira baino gehiago. Eta, kalean, gure gisako ikasi edo erdi ikasientzat.
- [...] berdin zaigu hizkera hemengo edo hangoa izatea, euskara —izenez eta izanez euskara— baldin bada.

Une hartako eta ondoko gidariak ezagunak ditugu beren izen-abizenekin: Antonio Arrue (1903-1976)<sup>23</sup>, Aingeru Irigarai (1899-1983) eta Koldo Mitxelena (1915-1987). 1954-1955. etako emaitza ez zen izan handia, artean, beharbada euskal idazleen indarrak *Euzko-Gogoa*-n eroso zebiltzalako.

Garaiko gazte euskaltzaleok adi-adi geunden *Euzko-Gogoa*-ri zein *Egan*-i, aldizkari bakoitzak baitzituen bere xarma eta erakarmena, elkarren osagarri edo kontrajarriak zirenak<sup>24</sup>.

Bestalde, 1950eko hamarkadak bestelako berritasunik ere ekarri zuen euskaltzaleon mundura: Euskaltzaindia abiaraztera zihoan Krutwig<sup>25</sup>, artean bizirik zegoen Azkue jaunaren ondoan (†1951). Euskaltzain berriak izendatuko ziren, urratsez urrats: besteak beste, Krutwig (1947), P. Lafitte (1949), M. Lekuona (1950), L. Villasante (1951), K. Mitxelena (1952), A. Arrue (1954), etab. Eta Eladio Espartza karlista nafarrari ere eman zitzaion bere lekua.

Oso apalki izan arren, liburugintza ere suspertzen ari zen, kopuruz zerbait, baina batez ere lekukotasunez, euskal literaturaren historia gure eskuetan jarriz, bertantxe eta bero-bero. Euskal Literatura bat izana zela jakin eta sentitzeko parada izan genuen, bi liburutako orrialdeetan: Axularren *Gero*

ekarri zigun M. Lekuonak (1954)<sup>26</sup> eta urte berean S. Onaindiak *Mila euskal olerki eder*. Ordudanik, ez zen liburutegi handirik behar, iragan hori barruntatzeko. Pribilegiatu batzuek, gainera, aukera izan genuen J. Mokoroa *Ibar-en Genio y lengua* (1935) irakurtzeko.

Iragana berreskuratzen edo ari ginen, beraz. Idazle berriak ezagutzeko, ostera, Zarauztik zetorren notizia: Patxi Unzurrunzagaren *Itxaropena* argialetxetik, hain zuzen<sup>27</sup>. 1949an hasia zen uzten ziotena egiten, eta 1952an *Kuliska Sorta*-ri ekin zion. Batzuetan lan xumeak, baina inoiz edo beste baita mardulago eta berritzaile ere: ez da ahaztekoa Jon Etxaide-ren *Joanak joan* (1955). Belaunaldi berriko idazlana zen hau, eta literaturan ere guri itxaropena piztu ziguna<sup>28</sup>.

Kultur aldizkaritan nobedade handiena *Euzko-Gogoa* hamarkadaren erdi aldera (1956), Guatemala utzita Miarritzera etortzea erabaki baitzuen Jokin Zaitetik<sup>29</sup>. Aurreko urtean etorrita zegoen Orixe ere, eta *Egan* sortu berriak ongi etorria eman zion idazle handiari, «Orixe gure artean» zioen artikuluan<sup>30</sup>.

Bazirudien, bada, argitalpen-alorrean garai berriren baterako leihoak irekitzen ari zitzaizkiola euskarazko kulturari.

Aurrekari horien ondoren, argitalpen alorrean hurrengo urteak berritasun anitz metatuko du bere hamabi hilabete laburretan, ikusiko dugun bezala.

## 1956ko euskalgintza-ekimenak

Urte hasiera hartan ez zegoen, artean, guretzat Txillardeirik edo Aresti ezagunik, eleberrian nahiz olertian<sup>31</sup>. Saia-kerak bazuen lekurik, aipatutako aldizkarietan, baina aurreko belaunaldikoen eskuetatik zetorren, ia osorik.

Aurreko urtean pauso ederrik eman da argitalpenetan, noski: *Hamabost egun Urgain'en*, edo aipatutako *Bidalien egiñak* eta *Joanak joan*, edo Iparraldean *Katalinen gogoetak*.

Baina 1956ko urtea da literatura eta kulturazko euskalgintzan muga berria marraztuko duena, egingo diren argitalpe-

nei esker, zenbait ekimen sozial tarteko dela, eta udazkenean *Jakin*-ek berak ere hurrengo urratsak iradokitzen dituelarik.

## Argitalpenak

Euskal liburugintzak entsegu ausartak egin zituen kultura eskolatuan. Kopuruak zerbait gora egin du, baina eskuetara datozkigun «piezak», balio berezi-berezikoak dira, batez ere gazteontzat.

Aurreko urtean bezainbat izan gabe, 1956an, ostera ere iraganeko obrei dagokien ekarpena dago, prosan bezala poesian. Literatura zaharretik, *Peru Abarka* izango da kaleratu-ko dena; bere hirugarren argitaraldia du (aurrekoak: Durango, 1881 eta 1904)<sup>32</sup>. Gerraurreko balioei ere emango zaie lekurik, hiru liburu ezagunekin: Bustintzaren *Abarrak* eman zen argitara (partez), Lizardiren *Biotz-begietan* eskue-  
ran izango dugu, berriro, eta Agirreren *Garoa* ere jarriko da kalean<sup>33</sup>. Ez da uzta handia, eta okerrago oraindik: ez dago literatur produkzio originalik.

Itzulpengintza da, ordea, biziki bizkorra agertuko dena, burutzen diren lanen tamainagatik baino gehiago gainditu behar izan den erronkagatik. Altu jarri zen langa klasikoen eta pentsamenduaren munduan, baina ez da asebeteko lanik lortuko. 1956an bi dira gogoan hartzeko ditugun itzulpen handi horiek: Orixek eskaini zuen *Agustin Gurenaren aitorkizunak* (Zarautz: Itxaropena), eta G. Barandiaranek itzulitako *Iliasena* (Gasteiz), biak ere kritika-modu ezberdina-  
nak jaso eta garaian begi zoliz begiratu zirenak. Berriz ere, Mitxelena da horren lekuko<sup>34</sup>.

Kritikaren arabera, badirudi kultura gora eraman nahi genuela hizkuntza, baina hiztun-idazleek hainbestetarako indar edo gaitasunik ez zutela<sup>35</sup>. Esan daiteke neurri on batean kale eta pot egin zutela azken bi ahalegin horiek, eta zenbait gazteri begiak irekiarazi zizkigutela. Berehalako batean, bi horien kritikari, Olabideren Biblia itzulpenari egin-  
dakoa gehitu zitzaionean, zalantzatarako toki gutxi geratuko

zitzagun batzuo<sup>36</sup>. Euskal hitzen euskaltasuna definitzeko Euskaltzaindiak emandako irizpide-agiriak berretsiko zuen zahar-berria zen bidea (1959)<sup>37</sup>. Baina aurrera baino lehen, begira dezagun besterik zer den 1956ko urte hartan.

1956ra itzuliz, ezagunak ditugun bi aldizkari handietan berrikuntza eta aldakuntza nabariak aurkituko ditugu: *Euzko-Gogoa* jada «etxera» etorri da, eta formatu txikiko 720 orrialdeko testu-masa eskainiko du, Hegoaldeko sinadura berriekin (E. Ezkiaga, Garmendia *Zeleta*, Aurraitz, J. Agerre, L. Villasante, I. Bereziartua, S. Berasaluze, Lafitte *Ithurralde*), eta *Egan*-ek aurrerapauso luzea eman zuen: 1954ko 79 orrialde haiek, 1956an 484 bilakatu ziren. Norbaitek lan egin zuen, beraz.

Baina kultur aldizkaritan, beste bi ekarpen eman behar dira zerrenda honetan: Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria agertu zen berriro, gerraondoan lehenengoz, horrela Era-kundearen izanberritzearen lekuko gertatuz (eta 1941az geroztiko aktak eskainiz). Agerien zegoen lan berrietarako gogo. Lanen sinatzaileak aipatzekoak dira hemen: Altube, Tovar, Villasante, Mokoroa, Txillardegi, Lekuona, Bouda, Lafon, Mitxelena, etab. Euskalari atzerritarrak presente daude, gerraurrekoren bat edo beste ere bai, barruko gazteagorik ez da falta.

Halako babes handirik gabe, urte horretan jaio zen *Karmel* aldizkaria ere, S. Onaindiaren eskutik, gaur egun arte iraun duen aldizkaria, eta bere aurrekinak *Karmengo Amaren Egu-tegia*-n zituena. Datua interesgarria da, Ordena erlijiosoetako euskaltzaleen gogoia eta indarra ere erakusten baititu.

## Hizkuntzaren aldeko ekimen sozialak

Hizkuntzaren inguruko jendearen elkartzea ez da aldizkari eta argitaletxeetan bakarrik egiten 1956an; euskaldun-goak gero eta premiazkoago ikusten du, euskaltzaleak, euskalariak eta hizkuntzaz arduratu oro elkarretaratzea, elkarrekin lanean jartzea.

1956ko data honetan, bi Bilera Nagusi aipatu behar dira. Euskal Akademiaren aldizkaria ez ezik gerraosteko lehen Biltzar irekia ere egingo da urte horretan: euskalariak eta euskaltzaleak, denek, izango dute jendaurreko plazara inguratzeko aukera, euskararen Erakunde ofizial horrek deituta. Hilabete bakar baten buruan (1956ko irail-urrietan) Erbesteak bezala Hegoaldeak euskal kulturaren eta hizkuntzaren inguruan beren gogoeta irekia egiteko parada izan zuten: Arantzazun 1956-09-14/16an eta Parisen astebete geroago<sup>38</sup>.

Parisekoan, Euskal Herria bere balio kultural guztiekin begiratu nahi izan zen, eta hizkuntzaren egoera ere gogoan hartzen zela. Ez dago ikusi besterik zein idazlan aurkeztu ziren, eta berorien aurkezpenen ondoko eztabaidak nolakoak gertatu<sup>39</sup>. Dena den, Paris urrun zegoen, artean, Hegoaldean bizi ginen gazteontzat.

Arantzazuko Batzarrak beste gisa batean lagundu zituen euskararen aldeko lanak eta itxaropenak: hasteko, irekia eta baimendua zenez nornahik izan zuen hara joateko egokiera, eta gero, bertan esan eta gertatutakoen berri jakiterik ere egon zen, Pariseko hura erdi isilduta eta urrun geratu zitzaizgun bitartean.

Gogora ditzagun Arantzazun erabilitako gaiak: euskal dialektologia (Altuna, Gandiaga, K. Izagirre), bertsolaritza (A. Zavala), hizkuntzaren egoera-etorkizunak (Villasante, Txillardeggi, Ibar, Urrestarazu). Egoera politikoari buru egiteko babesa ere bilatu zen, eta J. M. Lojendio eta Arrue tartean daude; hain zuzen, azken honek egin zuen itxierako hitzaldia.

Arantzazuko fraide gazteek garbi ikusi zuten bazegoela gizarartean lagunarte euskaltzale bat, euskal idazlanak jasotzeko prest zegoena, prest eta irrikatzen. Inoiz ez bezala, euskaltzale haien artean ibiltzeko egokiera izan zuten Batzar horretan. Ez ziren asko, baina leialak eta lagun onak izan zitezkeenak. Gazteek Santutegian bertan ezagutu zituzten Batzarrean bildutakoak.

Aukera hartaz baliatu beharra zegoen, Ikastetxe eliztarretan gora zetorren euskaltzaletasunari bide emateko.

### *Jakin*: elkartasunen emaitza

Aurreko lerroetan euskal kulturako zenbait ezaugarri aipatu dut, datu orokorrak, eta eliz munduaren kanpotik zebiltzanak, nahiz eta sarritan tartean elizgizonik ere egon zen.

Eliza aipatzean, maizegi sartzen dugu dena zaku berean, baina gogora dezadan hemen Eliza Katolikoaren barruan, Diozesiek eta Erlijosoen munduak ez zutela, ez orduan eta ez gero, buruzagitza bat bera izaten.

Erregimen frankistaren barruan Diozesiak eta Gotzainak dira zuzenean eta gertutik Gobernuak begira ditzakeenak; Konkordatuak ere badu horrekin zerikusirik. Baina Erlijosoen Erakundeek beren Nagusiak hautatzeko eskubidea osorik eskuetan dute, teoriarik bederen. Erregimenaren arduraren larriena Diozesietako egiturak kontrolatu eta Seminarioak eskuetatik ez galtzea da.

Erlijioso-Erakundeena, ostera, zeharbidez egingo du, eta denbora pasatu ahala, Erakunde bakoitzeko indarrek are eta askatasun handiagoz erabakiko dute etxe barneko kultur politika. Nabaria da hau karmeldar eta frantziskotarren artean, adibidez. Josulagunek 1960ko urteetan eraiki zuten beren Loiolako Probintzia, Euskal Hegoalde osoa besarkatuz.

Frantziskotarren artean gertakari bikoitza azpimarratuko nuke: Nagusien kultur politika nabarmenki aldatzen da, Paulo Lete probintzialarekin (1949-1952)<sup>40</sup>, eta aldi berean ikasle gazteek idatz-ekimen berriak hartzen dituzte, irakasle-goaren laguntzarekin, lehenengo Erriberriko Filosofi Ikastetxean (*Gure Izarra*, 1950) eta berehala Arantzazuko Teologia Ikastegian (olertia, itzulpen literarioak, sorkuntza)<sup>41</sup>.

Horren guztiaren ondorioz, 1940ko hamarkadan, artean, estari eta erdi gordean zebiltzan idazle frantziskotarrak argitaratu eta etorriko dira, batzuk hurrengo mende-erdian gorenko sinadura izango direnak (L. Villasante, S. Mitxelena edo B. Gandiaga, K. Izagirre dialektologoa ahortzi gabe)<sup>42</sup>. Hauen egitekoa ez da beti gazteekiko zuzeneko irakas-lana izango,



baina gizartean lortuko duten itzalak (sariak, izendapenak, estimua...) komentatu barruetan ere indar egingo du, fraideartean eta Nagusiengan. 1950az geroztik fraide euskaltzaleek errespetagarritasun osoa irabazita dute, eta miretsi ere egiten da haien lana.

Aldi berean (1950-1955), Arantzazuko Basilika berria Euskal Herriko proiektu artistiko handi bilakatu zen, garai-ko nabarmenena; eztabaidatua zelako ere etorkizun berri baten ikurra izateraino. Esan dezagun, Oteiza zigortua kultur askatasunaren bandera ere bilakatu zela. Historia hori ikerturik dago, eta merezi du aintzakotzat hartzea<sup>43</sup>.

*Jakin*-en beraren bezperako kontuak dira hauek, hain zuzen «Arantzazuko Jubileu-Urtean» beren tontorra izan zutenak, musika- eta olerki-sariketa eta guzti (1956). Nolabait esateko, Arantzazuko Andre Mariaren «arrakasta soziala» handia izan zen urte hartan. Ez da gaur erraza, hori dena ulertzea, baina halaxe ziren orduan gauzak<sup>44</sup>.

Arantzazun ikasten ari ziren 20-24 urteko gazte haiek bazuten, bada, inguruak «lardaskatzen» hasteko gogo eta modurik, are gehiago *Gure Izarra* aldizkarian egindako lana (etxe barruan ezkutatua) zinez itxurosoa zela jakinda. Nafarroako Erriberan egindakoak ez zeukan zergatik ez aurkitu Arantzazun bere segidarik.

Bestalde, 1950-1956.eko urteak dira, segur aski (artean, Kontzilio eta horrelakorik gabe), harremanen mailan bederen Arantzazuko Fraidearteak bere osoan (apaiz eta ikasle) izan zuen lehen irekiera modernoaren garaia. Eta ez alferrik.

Hortik, sortzen da, uste dut, *Jakin* aldizkariari balio erantsi bat emango diona, zera erabakitzean: sortzeko zen aldizkaria ez zela Santutegiko ikasleena bakarrik izango, eta ahal zelarik, Euskal Herri osoko Ikastetxe eliztarretako ikasleen lankidetzara ere bilatuko zela.

Bateratasun horren ideia eta asmoa erabakigarriak gertatuko ziren berehala, aldizkariaren nortasuna definitu, hedapen soziala segurtatu eta hizkuntzaren batasunean ere eragile izateko. Gainera, ekimen hau laster eredugarri eta era-

gile gertatu zen Ikastetxe eliztarretako euskaltzale-taldeentzat<sup>45</sup>, euskal lanetan zebiltzan onenei (edo ausartenei) gizarte osorako plaza zabalago bat eskaintzean, bide batez Etxe bakoitzeko kultur ekimen euskaltzaleak zuzenetsi eta bideratzen lagundu baitzuen Ordena edo Kongregazio bakoitzean.

*Jakin* aldizkaria (beste gisa batean baina *Euzko-Gogoa* edo *Egan* zirena baino areago, nik uste) lantalde bilakatu zen, hau da, eliz ikasle euskaltzaleen bilgune, baina ez idazkien bidezko lankidetzaz eramateko bakarrik, baita laster eratuko ziren «jakinlarien» bileretan parte hartuz ere. Denon ahuldadeari aurre egiteko premia kotzat geneukan lagunarte-batasuna indartzea, komentu-etxe bakoitzeko ikasle goaren barruan eta Probintzia erlijiosoetako Nagusien aurrean. Jendeak pertsonalki elkar ezagutzeko balio izan zuten bilerek, eta bestalde, lan idatzirako batasuna bultzatzen ahalegindu ziren urteroko topaketa haiek.

Bilerek eta etxe-arte idazketa-elkarlanek une hartako gazteria euskaltzale, eskolatu eta han-hemen lekutua bata bestearekin harremanetan jarri zuten. Hori uste dut izan zela gerorako lorpenik emankorra. Elkar ezagutu genuen, elkarren lankide izan ginen, elkarri lagundu genion gure euskarazko kultur idazlana aurreko belaunaldiari eta euskaltzale orori aurkezten. Horren arrastoan, edo horren ondoren, sortu ziren protagonismo berriak ez ezik Ikastetxe eliztarretako barne-kanpoko euskal aldizkariak (*Laiaketan* pasiotarra, 1959-1969; *Arnas* sakramentinoena, 1959-1967; *Erein* laterandarrena, 1960-1966; *Gogoz* karmeldarrena, 1965-1968).

Data horietan ikusten denez, gero 1968ko iraulketak moztu zuen kimu berrion talde-etorkizuna (adibidez, Nobizio-etxeen itxierak 1968koak dira batik bat), baina baita, aldi berean, barreiatu ere Unibertsitate (Bartzelona, Madril, Valladolid, Deustua, Paris, Leuven, Erroma) eta komunikabideetan (prentsa eta irrati) gazte euskaltzale ongi alfabetatuak, euskal kulturgintza bizkortuan (eta bizkortzekoan)

aurreko belaunaldiari erreleboa hartu eta bide-urratzaile izango zirenak.

Horren aurretik, Ikastetxeen arteko gutxieneko loturak korapilatzea lortu zen orduan, ez modu formalegian, baina bai era praktikokan. Eta gure arteko hizkuntz eredua arautzen hasteko tresna egokia gertatu ziren bilerak, eta bi urrats jakingarri eman genituen: bata, aldizkarirako bertarako idatz-arauak abiarazi ziren eta hein batean finkatu ere, eta, bigarrena, han barruan sumatutako batasun-premiak beste zerbaitera eramanean zuen lankide-taldea, Ikastetxe eliztarretatik kanpo ere abiatu nahian ageri zen batasun-proposamenak begiratu, onartu eta sustatzera.

Horrela, 1964ko «jakinlarien» bilera zuzenean lotu zen Baionako Batasun Bilerarekin (1964), ikasleen artean Arantzazun landutako proposamenak hara eramateko eta Baionako erabakiak alde aurretik ere onartutzat emanez. Taldearen izenean, Bilera hartan egoteko parada izan nuen<sup>46</sup>.

Handik aurrera, elkartasun berriak sortu ziren aldizkariaren inguruan, unerik egokienean (bide-zati bat jada urruttuta zegoenean, baina artean 1968ko ezta daren aurretik, esan nahi dut). Torrealdaik eratutako lantalde eliztar-sekular berria da horren lekuko. Bere jatorria ukatu gabe, aldizkaria kalteratu ez ezik hiritartu egin zen eta, nolabait, modernitate sekularrari heldu (zuzendaritza, lankidego eta edukietan); berehalako eta geroko luma ezagun zenbait bildu zen *Jakin*-era orduan: K. Santamaria, R. Arregi, I. Sarasola, X. Kintana, R. Camblong, Letamendi, etab. Nahikoa da 1965-1968.eko lankide-zerrenda begiratzea.

Hortaz, laster hustuko ziren Seminario eta Ikastetxe eliztarretako idazle-harrobi sakabanatuek ez zuten utziko *Jakin* erabat lankiderik gabe, «paisanoek» edo «paisanotuek» jada eskubide aitortua baitzuten aldizkarian norbait izan eta beren hitza esateko.

Hortik aitzina, kalean bizirik dauden arazoak ukituko dituzte aldizkariak, eta horien artean Euskara Batuarena (Ermua eta Arantzazu, 1968).

## Ondorioak

Zenbait puntu gutxitan laburtuko dut euskal kulturaren garapenean berrogeita hamar urte betetzen dituen *Jakin* honen jaiotzean izan zuen testuingurua.

Aldizkaria ez zen aurrekaririk gabe sortu, eta gutxiago sortu eta garaiko euskal kulturari txertatu. Komentu barruetan eta kanpoan izan zituen aurrekari horiek. Komentuz kanpokoen artean daude, alde batetik, aldizkariak (kulturalak eta politikoak) eta, bestetik, liburuak, geure iragan kulturalaren oroitzapena izanberitu zigutenak eta kultur jomuga jasoagoak proposatu edo egikaritu.

Erdi- eta Goi-Irakaskuntzako ikasle gazteriarik zabalena eta jasoena biltzen zuten Seminario eta Ikastetxe eliztarretako kultur giroa zerbait lasaituz joan zen 1950.etan; ez denetan noski, eta ezta beti maila berean ere. Horietako euskarazko alfabetatzaren historia egin gabe daukagu oraindik, baina jakina da zenbait kasutan euskararen irakaskuntza leku ofizial edo ofiziosoren bat hartuz joan zela, 1950etik aurrera (kasu aurreraturen batean edo bestean baita lehentxeagotik ere).

Bestalde, Unibertsitaterakoa artean oso gutxirena zen, eta gutxi horien artean ez bereziki euskaldunena; bestalde, euskarak ez zuen berorietan inolako lekurik, lan-tresna bezala. EHU sortzeko zegoen, gainera (1980), eta Deustua (1886, 1956, 1963) eta «Estudio General de Navarra» hura (1952, 1960) beste orbita batean zebiltzan.

1950eko hamarkada hartan Euskal Erbesteak bezala Barrualdeak lagundu zuten, euskarari bere kultur betekizun modernoak bilatzen (artean, Letra eta Humanitateetan ari zela). Baina Erbetea eta Barrualdea, artean, aldendurik ageri ziren, geografiaz urrun zeudenak belaualdiz ere tartea eginez joango ziren, 1955-1960.etan etena gertatu zen arte. Hizkuntz erdua eta kultur modernitatea modu kontrajarrian definitu zirelako.

Eten horretan, lehenengo batean, gehiago aipatu ziren ezin konpondu linguistikoak, ideologikoak baino; baina au-

rrera egin ahala hizkuntz ereduan ez ezik kultur proiektuan ere gero eta alde handiagoak agertu ziren.

Bestalde, 1959-1961. etako hizkuntz ereduaren *Jakin*-eko hautapenik gabe, indar gazte haiek askoz zailagoa izango zuten, sakabanatuta, Euskara Batuaren proposamena onartuz joatea, eta berorri etorkizuna segurtatzea. Horrela, jakindarren eredu-hautapenak eta arau-gogoak, Baionako batasun-proposamenak (1964) eta Ermuko Euskal Idazleen bilerak samurtu zuten Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batasun Batzarraren egitekoa (1968)<sup>47</sup>.

*Jakin* aldizkari eta taldea, zalantza batzuen ondoren (1956-1958), ongi txertatu zen euskararekiko proiektu berrian (1959...)<sup>48</sup>, Euskaltzaindiaren proposamenei eutsiz eta beroriek zabalduz, eta urrats berriak emateko proposamenak landuz. Hizkuntza estandarraren eta hizkera modernoaren jomugari lehentasuna eman zitzaion 1950etako azken urteetatik aurrera, maileguen hartzeari lotsa eta beldurra galduta.

Oro har, hobespen horiek ez zuten atzetik garapen teoriko handirik, baizik eta taldearen eta norberaren lanen bidez, inguruko proposamenak behatuz eta erabaki praktikoz eramandako burubidea izan zen. Saio eta lanaren poderioz eta denen arteko elkarrizketan finkatu zen gizartean eredia.

Eliz munduan<sup>49</sup>, burubide hori ez zen izan Arantzazukoa eta Arantzazutik sustatua bakarrik, baizik eta lankidego aski zabala bildu zen ahalegin berean edo bertsuan Ikastetxe eliztarretatik, betiere kultura eskolatuari euskarazko bidea ahalbideratzeko.

Zientzia positiboena geroago etorriko zen: gazte euskaldun euskaltzaleak Goi-Irakaskuntzan sartzean, Ikastolak berea egin eta hizkuntzarekiko herritarren kontzientzia biziberri-tzean. Hurrengo hamarkadatik aurrera (1965...) indartuko zen hori dena. Horren aurreko hamarkadan (1955-1964), gizarte zibilaren borondate eta erabaki euskaltzale ekilea pizteko zegoen, artean, bere orokorrean.

*Jakin*-en zeregina izan zen (barruko zuzendaritzan, lankideen artean eta beste Ikastetxeetako euskaltzale-taldeetan)

Ikastetxean ikasitakoa euskaraz emateko gogoia sustatu eta idatzitako lanei gizarterako bidea ematea, horretarako ikasleen eta Nagusien arteko elkartasun orekatu eta praktikoa zainduz.¶

- 
1. Ikus neure orduko lantxoak: Intxausti 1977.
  2. Iztueta 1991. Liburu honetako laugarren eta bosgarren zatietan biltzen da euskararen garaiko historia kulturala: 751-1020. Euskal literaturaren historia orokor berriek ere albiste franko dute, adibidez bertsoari (J. Garzia), olertia (I. Aldekoa), eleberria (M. J. Olaziregi), saiakera (X. Altziabar) eta antzertiari buruzko (P. Urkizu) atalburuetan: Urquizu 2000b. Gainera, Intxausti 1985; bertan ikus daitezke: Iztueta, P.: «Euskararen adierazpen sozialak gerraondoan (1937-1984)», 392-403; Otegi, K.: «Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa», 434-448. Garaiko arazo larrienak ezagutzeko, osagarri ona izango da Orixe (2006).
  3. Iztueta 1991, 794-810, Hegoaldeko albisteak ere tartean direla; Iztueta 2001a (*Euzko-Gogoa* eta *Zabal* aldizkariari buruzko azterlanak). Urquizu 2000a; Apaolaza et al. 2000. Liburu horretatik, interes hurbilagoa izan dezakete hemen ondokoek: Sudupe, P.: «Euskal kultura gerraondo minean», 225-246; Aulestia, G.: «Euskaldunak Ameriketako Unibertsitateetan», 255-280; Amézaga, E.: «Diáspora del 36. Nómina de Prensa y periodistas vascos en Ultramar», 281-314. Liburu berean B. Amézaga (X. Irujo: I, 477-516), I. López-Mendizabal (P. Urkizu: II, 347-354), M. Ugalde (I. Berti eta E. Etxeberria: II, 489-516) edo T. Etxebarriari (I, 31-59; II, 43-60) eskainitako idazlanak ere aipagarriak dira. I. López-Mendizabalek badu bere biografiatxoa: Telleria 1999.
  4. *Jakin* aldizkariaren zenbaki monografikoa: *25 urte euskal kulturaren*. 1981, 21. zenb.; Iztueta 1991, 950-969. Paulo Agirrebaltategik *Jakin*-en argitaratutako bi artikulu daude, gainera: «*Jakin* Kultur Taldea» (*Jakin*. 2006, 156. zenb., 15-39), eta «*Jakin* aldizkaria. Debeku eta oztopo administratioboen historia: 1961-1977» (argitaratzeaz).
  5. Liburuei dagokienez, ik. Torrealdai 1977, 572-575.
  6. Ekinen sortzailetako batek, A. M. Irujok, eman zuen argialetxe honen berri, Eusko Ikaskuntzaren 1954ko Kongresuan: Irujo 1954.
  7. Irakur bedi «Nuestro propósito», hasierako aurkezpena: Karlos III.aren garaia, gure herriaren katolikotasuna, Adiskideen tradizioa, etab. gogorazten dituen atarikoak da (*BRSBAP* I, 1945, 3-6). Ikus, gainera, Conde de Superunda-ren «¿Qué vamos a hacer?» (Ib., 73-74). Inondik ere Areiltzaren pentsamenduaren oihartzuna da berau: xedearen artean «difusión de la cultura en el mejor servicio de Dios y de España» aipatzen du Kondeak.
  8. Banúsen lanak ondoko gaia zuen: «Viejas Ordenanzas de Construcción de San Sebastián», in: Ib., 185-194.

9. Tovarren idazlana zera da: «Notas sobre el vasco y el celta», in: *Ib.*, 31-39.
10. *EGIPV* (Auñamendi), Bengoetxea, A., s. v. «Berrueto Ramírez, José».
11. Urkixok beste lan hau eman zuen: «M. de la Chaveaussière, junior, amigo del País y de los vascos. La boina. El texto en vascuence de Rabelais», in: *Ib.*, 7-23.
12. Irigarairi biografiatxo bat *Bidegileak* bildumak eskaini dio: Diez de Ulzurrun 1999.
13. *BRSBAP* I, 1945, 467-481; V, 1949, 513-530.
14. Larronde 2003a; Larronderen izenpean aipatu berria dudana VIII. Kongresua ere gogoan izan behar da (1954). Berorietan ikus daitezke garaiko kultur kezka nagusiak eta Erbestearen Kongresuko ekarpenak. Larrondek bi edizioei (2003) egin dizkien sarrerak gogoan hartzekoak dira.
15. Batzar haren 25. urteurrena ospatzean kaleratu zituen Eusko Jaurlaritzak orduko txosten eta aktak: [1981]: *Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
16. Elkarrizketa haietaz ari den lan bat badago Jakin Taldeak K. Santamariar burututako baina paper inprimatuan argitara gabeko ikerlanean: ikus beza irakurleak Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean.
17. Euskaltzaindiak 1947an (goiz eta garaiz, beraz) izendatu zuen Tovar bere urgazle, J. Vallejo eta A. Bausani Unibertsitate-irakasleekin batera. Badakigu Salamancan euskarari buruzko ikastaroa eman zuela 1947-48 negualdian (*Euskera*. 1956, 328, 329). Tovarrek gurean izandako lekuaz, gertutik zerbait zekienak eman zuen iritzia: Mitxelena 1988, VIII, 84-88. (*Euskera*-n emana, lehenengoz: 1985, 249-252): «Aldi luze bezain tristea ezagutu dugu batzuek, debekuz eta oztupoz betea, eta Tovar genuen orduan etxean nahiz atzerrian izan genitzakeen laguntzaile bakanetako» (87). Ikus daiteke, gainera: Yrizar 2001, 87-101.
18. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. Donostia: Real Soc. Vasc. de Amigos del País. Lehenengo zenbakiko sinatzaileen artean daude ondokoak: Tovar, Bidegain, Mitxelena, Larrinaga, Lafon, Irigarai, Gifford, P. Irizar.
19. Lakarraren hitzaldiak argitara eman ziren hurrengo urtean: Lacarra 1957.
20. Instituto Americano de Estudios Vascos delakoaz, begira: Larronde 2003b, 123-125 (Martin-Noël Iribar-en «El Instituto Americano de Estudios Vascos» txostena).
21. *Euzko-Gogoa*-ren historiaz bi lan aipatuko ditut hemen: Intxausti 1979-1980. Lan zabalagoa da beste hau: Iztueta 2001b.
22. Mitxelena, K. (1954): «Asmo berri», in: Mitxelena 1988, VIII, 91. Azken edizio honetako ortografia darabilgu.
23. A. Arrueren biografia laburrak: *EGIPV* (Auñamendi): Anaut, B., s. v. «Arrúe Zarauz, Antonio». Gerrako Batzorde karlistako lehendakaria izan zen (1937), berehala Gipuzkoako *Comunión Tradicionalista*-ren buruzagia hamabosten bat urte, eta alderdi horretako Batzorde Nazionaleko kidea. Frankismoko Gorteetan, Juan Carlos erregegaiaren hautapenaren aurkako botoa eman zuen (1969-07-22).

24. Bi aldizkarien arteko estimu eta hurbiltasuna ez dakit norainokoa izan zen, bateko nahiz besteko zuzendarien artean; baina elkarren errezelorik bazutela ere uste daiteke, *Egan*-ek 1956an argitara eman zuen Mitxelena-ren hura irakurrita: Mitxelena 1988, VIII, 125-132.
25. Ik. Kintana 2000. Beronen Euskaltzaindiko lanaz: 4-5.
26. Ik. edizioaren aurkezpena: Mitxelena, K. (1954): «Axular. Gero», in: *Egan*. 1954, 39. Orain: Mitxelena 1988, II, 39-42.
27. Patxi Unzurrunzagaren albisteak: Unzurrunzaga 1999.
28. Ikus Mitxelena-ren aurkezpen-kritika (1955), in: Mitxelena 1988, II, 55-58. «gaurko prosak dituen maisuen artean» jartzen du Etxaideren idazlana, eta zera gehitzen du: «euskaltzale guztiok poztu gaitu *Joanak joan*-ek». Horrek ez du esan nahi, ordea, eleberriak Mitxelena kritikaria asebeste zue-nik: idazlea bikaina da, nobelagilea ez hainbeste, dio honek. Gazteok ez genion erreparatu gehiegi eskastasun horri. Etxaideren ibilaldia ezagutzeko, laburki: Beola 1998.
29. Gogora dezadan Zaitegiren *Bidalien egiñak* Zarauzko Itxaropenak eman zuela argitara, 1955ean. J. Zaitegiren biografia ezagutzeko: Velez de Mendizabal 1981; Sudupe 2000a.
30. *Egan*. 1954, 3-4. Mitxelena 1988, VIII, 51-52. Laster, Orixe Euskaltzaindian sartzean (1958) azaldu zuen Mitxelena, hein batean bederen, idazle honekiko bere estimua (Mitxelena 1988, VI, 97-106).
31. Nahiz eta Arestiren lehen lanak 1954tik datozen: Z. Argia, *Egan*, etab.
32. Aldizkarietan emana izan da, atalka: *Beti bat* (1880) eta *Euskaltzale* (1898). Villasante: *Historia*. 236. zenb.
33. Dena den, Arantzazun (argitaraldi honi itxaron gabe), eskuetan izan genuen Seminario Txikian geundenok *Garoa* (1950), Zabaldundeak egindako gerraurreko edizioan. Gogoan dut oraindik, ikastaroaren erdian nola eskuratu zizkigun irakasleak (Karmelo Iturriak?) liburu haiek, ongi ulertzen genuen euskara txukun batean idatziak, eta maite genuen gure herrietatiko bizimodua idealizaturik erakusten ziguna.
34. Irten orduko eta urte berean egin zien bere kritika: *Egan*. 1956, (5-6), 142; 1956, (3-4), 102.
35. Beti uste izan dut (eta beharbada uste okerra), G. Barandiaran itzulpen-gintzan ez jarraitua, Mitxelena-ren kritika bortitz honi egotz dakiokela.
36. Bi liburu haiekiko K. Mitxelena-ren kritikak eta, berezikiago, hiru urte geroago Olabideren Biblia itzulpenari egindakoa (1959), erabakigarriak gertatu ziren niretzat. Olabideren ekarpena eta beronen lekua zein zen jakiteko: Altuna 2001; eta Iztuetak kritika-pasadizo honi eskaini dion azter-lana: Iztueta 1991, 991-1000. Mitxelena garbi utzi nahi izan zuen zein irizpide nagusirekin jokatu beharko zen premiazko euskara-eredua hautatzean, zer ez zen inondik ere egin behar eredua finkatzean eta etorkizuneko hizkuntzaren batasuna lantzean. Lauzpabost ereduaren aurrean aurkitu ginen gazteok: 1) garbizale sabindiarra (gugandik urrun sentitzen genuena); 2) tradizio josulagundarreko euskara dei genezakeena (Olabide, Orixe: *Euzko-Gogo*a: artean, gazteongan erakarmen bizia zuena); 3)



- gerraurreko Diozesiek landutako eredia (Lekuona, Baltzola, Ibartutxi, Intza: alor pastoralerako egokiro landua); 4) Krutwig/Villasanteren aurreko urteetako lapurtar klasikoarena (Villasantek berak ere jada utzia zuena); eta 5) Mitxelenak *Egan*-etik iradokitzen zuena (baina artean sobera zehaztu gabe eta batez ere terminologia arazo larria ukitzen ez zuena). Jada 1958an nabarmenki kontrajarrita ageri zitzaizkigun bi aldizkarietako ereduak. *Egan*-ekoa hobetsiko zen *Jakin*-en (1959...), teoriaraino praktikaraino, betiere geure gisara hiztegi-modernitateari bide libreagoa emanaz.
37. *Euskera*. 1959, 214. Hitz mailegatuei buruzko irizpideak Bilboko Bileraren arrastoan finkatu zituen Euskaltzaindiak (1958).
38. Arantzazuko Bileraz, ik. *Euskera*. 1956.
39. Ik. hainbat pasarte aipatutako *Munduko Batzar Orokorra* argitalpenean. Batez ere Monzon, Zaitegi (Guridi) eta Krutwigen ekarpenak. Ik. Iztueta 1991, 969-981 («54 txostenetatik, 29 hizkuntza eta literaturari buruzkoak dira», 976).
40. Paulo Leteren soslaia pertsonala egiteke dago: apaiz egin eta berehala Kubara joana (1927), bizitzera ez zen itzuliko Penintsulara 1949a arte, eta orduan Probintzia osoko Nagusi aukeratua izan zelako. Etorri bezain laster, Salvatore Mitxelenaz baliatu zen euskal kulturari bere lekua ematen hasteko (*Arantzazu* poema, 1949; Arantzazuko euskarazko historia: *Ama-emeak Arantzazuko kondairan*, 1951); biak Leteren erabakiz argitaratu emanak, azken hori gainera haren mandatuz idatzitakoa.
41. Arantzazuko ikasle teologoaren artean, *Jakin*-en aurreko lumak dira *Kuliska Sorta*-n eta beren gisara agertuko direnak: Sorarrain, Garaialde, Gallarra, Unzurrunzaga, Berasaluze, Astigarraga, Bilbao, J. Iturria, etab. Eta Gandiaga 1950-1955.etan.
42. Ezin da hemen ahortzi 1950eko hamarkadako Arantzazuko liburugintza (idazle frantziskotarrena eta EFA argitaletxearena): Torrealdei 2003 (bereziki, 600-604), eta Guerra 2003 (bereziki, 569, 575-578).
43. Eraikuntzaren historia ezagutzeko: Pagola 2005. Lorpen artistikoak ezagutzeko: Monforte García 1994. Fraideartean guztiak izan zuen eragina barruntatzeko, Santutegiko komentu-kronika begiratu behar da.
44. Urte hartan hasi zen, bestalde, tokiko euskal irratien garapena; Segura Irratia (1956), eta ondoren Bilboko Herri Irratia (1959), Arrate Irratia (1959), Loiolako Herri Irratia (1961) eta Donostiako Herri Irratia (1962). Xehetasun gehiagotarako, ik. Beloki 2003 (bereziki, 620-624).
45. Ik. [Iztueta, P.] 1981.
46. Baionako arauak berehala bildu zituen aldizkariak: *Jakin*. 1965, 18. zenb., 20-28.
47. *Jakin*-i buruz ari naizenez, ezin naiteke hemen batasunaren historia zabalagoa egiten hasi: azkenean protagonista nagusia Euskaltzaindia bera izan zen, eta gogora ditzadan G. Aresti eta Txillardegiren lanak, eta horietako bakoitzak zuen inguruko lagunartea, aipatutako Bileretan oso presente egon zena. 1970ean eman zuten argitara Aresti eta X. Kintanak *Batasunaren kutxa* (Donostia, Lur), jada batasun-bidean bigarren une batean sartzen ginenaren.

48. Premiazko sentitzen zen diziplina orokor bati jarraituz, *Jakin*-ek aldez aurretik onartu zituen Baiona (1964, abuztua) eta Arantzazun (1968, urria) biltzeko ziren Batzarren arauak. Garaiko testuak dira horren lekukoak.
49. Kultura eskolatuz ari naiz, ez Elizak bere ohizko zereginetan zerabilen euskarari buruz (liturgia, predikua, dotrina, etab.).

## Bibliografia

- [1981]: *Euskal Batzar Orokorra / Congreso Mundial Vasco. 25 aniversario*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Abellán, J. L. et al. (2000): *Memoria del exilio vasco. Cultura, pensamiento y literatura de los escritores transterrados en 1939*. Madril: Biblioteca Nueva.
- Agirrebaltzategi, P. (2006): «Jakín Kultur Taldea», in: *Jakin*. 2006, 156. zenb., 15-39.
- Agirrebaltzategi, P. «*Jakin* aldizkaria. Debeku eta oztopo administratiboen historia: 1961-1977». *Jakin* aldizkarian argitaratzeaz.
- Altuna, P. (2001): *Raimundo Olabide (1869-1942)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (*Bidegileak*, 22. emanaldia).
- Amézaga, E. (2000): «Diáspora del 36. Nómina de Prensa y periodistas vascos en Ultramar», in: Apaolaza 2000, 281-314.
- Apaolaza, X. et al. (ed.) (2000): *Hirurogei urte geroago / Sesenta años después: Euskal Erbestearen kultura / La cultura del Exilio vasco*. [Donostia]: Editorial Saturrarán. (Aipatuko ditudanez gain, begira hauek ere: B. Amézaga (X. Irujo: I, 477-516), I. López-Mendizabal (P. Urkizu: II, 347-354), M. Ugalde (I. Beti eta E. Etxeberria: II, 489-516) edo T. Etxebarriari (I, 31-59; II, 43-60) eskainitako idazlanak).
- Aulestia, G. (2000): «Euskaldunak Ameriketako Unibertsitateetan», in: Apaolaza 2000, 255-280.
- Beloki, J. (2003): «Arantzazutik. Irrati eta Telebista-emanaldien historia laburra», in: Intxausti 2003, 607-631.
- Beola, A. (1998): *Jon Etxaide (1920-1998)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (*Bidegileak*, 13. emanaldia).
- Boletín de la RSBAP* (1945): «Nuestro propósito», in: *BRSBAP*. I, 1945, 3-6.
- Conde de Superunda (1945): «¿Qué vamos a hacer?», in: *BRSBAP*. I, 1945, 73-74.
- Diez de Ulzurrun, E. (1999): *Aingeru Irigaray Irigaray (1899-1983)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (*Bidegileak*, 15. emanaldia).
- Guerra, J. A. (2003): «Arantzazu, centro de actividad literaria de 1936 al 2000», in: Intxausti 2003, 565-591.
- Intxausti, J. (1977): «Diez años cruciales: 1954-1964», in: *Torrealdai* 1977, 327-328, 351-358, 377-390, 401-402.
- Intxausti, J. (1979-1980): «Zaitegi eta 'Euzko-Gogoa'. I. 'Euzko-Gogoa'-ren lankideak eta «Zaitegi eta 'Euzko-Gogoa'. II. Hamar urteko lana», in: *Jakin*. 1979, 12. zenb., 120-137; *Jakin*. 1980, 13. zenb., 96-119.

- Intxausti, J. (zuz.) (1985): *Euskal Herria. II. Errealitate eta egitasmo*. Arantzazu: Jakin.
- Intxausti, J. (zuz.) (2003): *Arantzazu. Ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz*. Arantzazu: EFA.
- Iribar, M.-N. (1954): «El Instituto Americano de Estudios Vascos», in: Larronde 2003b, 123-125.
- Irujo, A. M. (1954): «La editorial vasca *Ekin* de Buenos Aires», in: Larronde 2003b, 113-115.
- [Iztueta, P.] (1981): «Eliz Ikastetxeetako aldizkariak», in: *Jakin*. 1981, 21. zenb., 49-71.
- Iztueta, P. (1985): «Euskararen adierazpen sozialak gerraondoan (1937-1984)», in: Intxausti 1985, 392-403.
- Iztueta, P. (1991): *Orixe eta bere garaia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Iztueta, P. (2001a): *Erbesteko euskal pentsamendua*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (*Euzko-Gogoa* eta *Zabal* aldizkarietako buruzko azterlanak).
- Iztueta, P. (2001b): «Kristau pedagogia klasizista: *Euzko-Gogoa* (1950-1959)», in: Iztueta 2001a, 13-148, 229-256.
- Jakin* (1981): *25 urte euskal kulturari*. *Jakin*. 1981, 21. zenb.
- Julio Urkixo Mintegia (1954): *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. Donostia: Real Soc. Vasc. de Amigos del País.
- Kintana, X. (2000): *Federiko Krutwig Sagredo (1921-1998)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. (*Bidegileak*, 15. emanaldia).
- Lacarra, J. M. (1957): *Vasconia medieval. Historia y filología. Conferencias pronunciadas los días 10 y 11 de Enero de 1956*. Donostia: Diputación Prov. de Guipúzcoa.
- Larronde, J.-Cl. (ed.) (2003a): *Eusko Ikaskuntzaren VII. Kongresua* [Miarrizte, 1948]. Donostia: Eusko Ikaskuntza. (2 liburuki).
- Larronde, J.-Cl. (ed.) (2003b): *Eusko Ikaskuntzaren VIII. Kongresua* [Uztaritze, Baiona, 1954]. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Mitxelena, K. (1988): *Euskal idazlan guztiak*. [Donostia]: Euskal Editoreen Elkarte. (Etor: II. liburukia; Kriselu: VI. liburukia; Labayru: VIII. liburukia).
- Monforte García, I. (1994): *Arantzazu. Arquitectura para una vanguardia*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Orixe (2006): *Gutunak (1917-1961)*. Donostia: Utriusque Vasconiae. (Paulo eta Ibai Iztuetak prestatua).
- Otegi, K. (1985): «Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa», in: Intxausti 1985, 434-448.
- Pagola, M. (2005): *La Nueva Basílica de Arantzazu*. Arantzazu: EFA.
- Sudupe, P. (2000a): *Iokin Zaitegi (1906-1979)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. (*Bidegileak*, 20. emanaldia).
- Sudupe, P. (2000b): «Euskal kultura gerraondo minean», in: Apaolaza 2000, 225-246.
- Telleria, X. (1999): *Ixaka López-Mendizabal*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. (*Bidegileak*, 16. emanaldia).

- Torrealdai, J. M. (1977): *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*. Arantzazu: EFA (Jakín).
- Torrealdai, J. M. (2003): «Fraide frantziskotarren euskarazko liburuak», in: Intxausti 2003, 593-606.
- Unzurrunzaga, I. (1999): *Patxi Unzurrunzaga (1906-1984)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. (*Bidegileak*: 16. emanaldia).
- Urquizu, P. (2000a): «La cultura del exilio vasco en eusquera», in: Abellán et al. 2000, 99-145.
- Urquizu, P. (zuz.) (2000b): *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED Ediciones. (Bertsolaritza: J. Garzia; olertia: I. Aldekoa; eleberria: M. J. Olaziregi; saiakera: X. Altzibar; eta antzertia: P. Urkizu).
- Velez de Mendizabal, J. M. (1981): *Iokin Zaitegi*. Arrasate.
- Yrizar, P. (2001): *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. Madril: RSBAP.

# Hizkuntz ereduaren eztabaida

Jakinlarien bilerak

**JOXE AZURMENDI**

Idazlea, EHUko Filosofia irakaslea eta *Jakin*-eko kidea

Gerra eta diktaturarekin, euskaltzalegoa sakabanatua zegoen, eta 50. urteetan euskaltzaleen aurreneko lana elkarretaratzea izan zen. Hala sortu dira *Euzko-Gogoa*, *Egan*, Euskaltzaindia berritua, etab., multzotxoak han-hemen, nukleo batzuen inguruan. Multzotxo hauen artean gero euren arteko harremanak edo borrokatxoak hasiko dira.

*Jakin* Seminario ezberdinetako filosofia eta teologiako euskal ikasle batzuen produktua da. Seminarista euskaltzale horiek ikastetxe bakoitzean irla txiki batzuk dira; batak besteekin ez du harremanik, ez dute elkar ezagutzen, aldizkaria sortzeko asmotan trukatu dituzten gutunen bitartez baino. Eskutitzezko harremanon zentroa, iniziatiba bertatik partitu delako, Arantzazu da. *Jakin* 1956ko udazkenean sortu da, eta 1957ko irailaren 11-12 egunetan lehenbiziko jakinlarien «urteko bilera» egin da Arantzazun, bi helburuokin: 1) elkar ezagutzea, eta 2) aldizkariaz gogoeta egitea. Handik aurrera eta 1967ra arte, salbu 66an, urtero egin dira bilera hauek. Bistan dagoenez, bilera horien historia aldizkariarenari lotua joan da; baina, bestetik, aldizkariarene-

tik hein batean menpegabetuz ere bai, historiatxo propio bat edukitzeraino. Horregatik aurten haien oroipentxo bat aparte ez dago lekuz kanpo.

Azalpena errazteko, bi zati, edo hobeto, bi alderditan banatuko dut historia txiki hori: bat, bilerak eta euren gaiak; eta bi, hizkuntzaren eta aldizkariaren ereduaren eztabaida. Bi alderdiok elkarri oso lotuak egon dira. Hurrengo bi ataletan berriro bilerak eta euren gaiak aipatuko dira, horien bigarren aldia, eta krisi eta bukaera.

## Bilerak eta euren gaiak: lehen aldia

«Jakinarrien bilerak»: horrela deitzen ziren *Jakin*-eko lan-kideen urteroko bilerak. *Jakin* sortu denean euskara normalizatu gabe dago, Euskaltzaindiak bere burua antolatzen dauka oraindik nahikoa lan, eta jakinlariak euskararen auto-didaktak dira gehienbat. Jakinlarion artean ere arazo nagusia euskara garbi ala mordoiloarena da. Baina, irizpide sanoarekin, soluzio posiblek gabeko auzia alboan laga, eta bai mordoilo eta bai garbizaleek onar litzaketen arloetatik hastea erabaki da: horrela euskara idatziaren batasun eta normalizazioari ekin zaio, aldizkarian denek erabiliko duten ortografia edo idazkera batzeari. Lehen bilera honetan hainbat arau erabaki da: nola idatzi aldizkarian «ba», «bait», «ez» aditz aurrean (enuke, etzegoen); izen propio arrotzen grafia (Voltaire); hitz tekniko arrunten grafia (Filosofia, Fisika, <Ph> gabe); izen nagusia eta atzizkia apostrofoz bereiztea (Donostia'ko, Jesus'en), etab., etab. Arau hauek *Jakin*-en barruan agintzen zuten. Baina, gainera:

*Yakin* aldizkariak kanpora ere batasun au [idazkerarena] lenbailen iritxi dedin, erabaki oien birridazki edo kopiak atera eta euskal idazleei banatzea erabaki zan (*Jakin* 4, 1957, 89).

Onak ez du esan nai euskera-kontutan legeak emateko eskubidea gureganatu dugunik. Gu ez gera inor legerik emateko. Baña batasun aundiagorik ez dagoen bitartean, alik eta geienak onela idaztea on aundia dana, Aizkorri baiño aundiagoko egia da ori (7, 1958, 103).

Garbi ala mordoilo auzia ezin zen guztiz ostendu kultur aldizkaria izan gura zuen batean. Joera kontrarioak zeudenez, ad libitum utzi zen zeinek zein bide segitu, baina guxtienez bakoitzak bere erabilera batzeko eta berdintzeko exijitu zen (komunismo, -ismu, eta gisako zalantzak arruntak ziren). Bigarren proposamen bat interesanteagoa: «norberak idazten dituan lanetan erabilitako kultur-itzak bildu eta artikularekin batera» bidaltzea; eta

kultur-iztegi arazoan eginda dagoen lana bildu eta besteak bezelaxe fitxatan *Yakin*-en zuzendegira bidali. Ortarako zenbait liburu zar eta berri banatu ziran iakinlarion artean, baita an etzeudenen artean ere. Fitxa auek *gutxienez* urteko iru aldiz bidali bear dira [...]. Gero, itz-pilla oiek bildu, eta *Yakin*-en argitaratuko genituzke kultur-iztegi bezela (4, 1957, 90).

Idea ez ezik, lan metodoa eta egindako fitxak ere, geroago UZEIra pasa ziren. Eta azkeneko asmo bat: testugintzarena edo monografikoa («ale bereziak eta jakintza liburuak»), kultur hiztegia era sistematikoan eta pragmatikoan lantzeko. Era honetan urte batzuen buruan terminologia teknikoa landuta edukitzea espero da teologia eta filosofiako diziplina ezberdinetan (mariologia, sakramentuak, etab.; Ib., 90).

Esan daiteke, beraz, jada aurreneko bileratik zehatz definitua ukan duela *Jakin*-ek bere funtzioa: helburua, euskarren batasuna eta normalizazioa (kultur mailan); metodoa, egindakoa, orain ala lehenago, fitxetan bildu (hiztegia) eta lexiko horren balioa testugintza praktikoan probatu.

Bat harritu egiten da fundatzaileen buruargitasunarekin printzipiozko planteamenduan. Edonola ere gogorarazi beharra dago, plan hori Arantzazun egin dela, baina ez Arantzazuko jendeak. Aipa dezagun, hortaz, plana erabaki duen hemeretzi laguneko ekipoa nola egon den osatua: diozesietako seminaristak zortzi (Bizkaia eta Gipuzkoa), frantziskotarrak sei, jesuitak lau, sakramentinoa bat.

Hala ere, plan hori oraingoz horixe besterik ez zen: plan ideal bat jakinlarien buruan. Praktikan piska bat ilunago ibiliko da, hurrengo bileran ikusi denez (1958). Zer da al-

dizkaria: euskara kultur arloan lantzeko eta estudianteak idazten trebatzeko saialeku bat (ikastetxe eliztarrek halako barne-aldizkariak edukitzeko tradizioa zegoen), ala zinezko publiko batentzako publikazioa? Irakurleria interesatu bat bilatu eta zabaldu gura bada, gaietan eskolako ikasgaien lantketa baztertu beharra dago, egungo gai bixiak tratatzeko; baina baita esposizio «eskolastikoa» ere, saio aldera jotzeko; eta, hirugarren, erraztu beharra egongo da euskara bera, euskal irakurle goarentzat ulergarria izateko. Izan ere,

erabiltzen diran itzak dira, batez ere, euskera biurritua egiten dutenak. Jakintza-arazoa erabakiko bada, berriz, naitaez itz berriak erabili bearra dago. Baiña kontuz. Berritasun geiegi erabiltzen badira, nazka eragiteko arriskua dago... (7, 1958, 106).

Ageri denez, jakinlariak de fakto garbizaleak dira, eta haien artean eztabaida ez da egiaz mordoilo ala garbi, baizik garbi ala total garbi. Eta zeharo garbik ematen du, saialeku batean balio lezakeela, baina irakurleria batentzako argitalpen batean ez.

Eztabaida au izan zan, noski, billerako ezurrik gogorrena. Atsaldeko eseri aldia etzan izan naikoa erabaki batera etortzeko [...], eta iluntzetik urrengo atsaldera bitarteko pakearen bearra izan genduan ura garbituko bazan (Ib., 107).

Horra dilema: batetik, euskarak irakurleen beharra dauka, eta irakurleak ugaritzeko gai arinak eta idazkera erraza eskaini behar dira; bestetik, euskarak jantzitasuna behar du, «ez dago jakintza-gaiak erabiltzeko landua eta tajutu egin bear da ortarako. Arazo au, berriz, *Yakin*-en muin-muiñekoa da» (Ib., 105). *Jakin* kontraesan ebidente baten zuloan erorita dago. Eta jakinlariak zulotik ez irtetea erabaki dute, praktikan ez nonbait teoriar bezain buruargiak: «alegia, jomuga bikoa duala *Yakin*-ek. Jakintzarako bidean euskerari laguntzea; eta euskera atsegin baten bidez irakurleak ugaritzea» (Ib., 107). Eta nola ezkontzen da bi hori?

Ezkondu, ezkontzen da, gero ikasi denez. Baina euskara garbiaren obsesioari betiko adio esateko kondizioarekin. Ho-



ri *Jakin*-en bilakabidean fundatzaileen ekipoaren ondoren bigarren zuzendaritza bat etorri denean jazo da: Joseba Intxausti eta Kepa Enbeita. 1959ko udaberriko zenbakia «Agur» batekin irekitzen da: sortzaileak badoaz eta esku berrietan uzten dute aldizkaria. Zenbaki berorretako azken atalean Joseba Intxaustiren «Illobira bultzaka» artikulukoa irakur daiteke, eraso frontal bat zuzen-zuzenekoa garbizalekeriari oro har eta, jendetasun piska batekin, *Jakin*-en ordura arteko bideari partikulari. Artikulu hori urtearen hasieran agertu da eta 1959ko jakinlarien bilera irailean izango da. Baina honen berri eman aurretik Intxaustiren artikuluz eta horren testuinguruaz jardutea komeniko da.

Hizkuntz ereduaren eztabaida: Intxausti,  
Txillardeggi

*Jakin*-en sortzaileek euren aldizkaria euskararen aldetik Zaitegi eta Orixeren ildoan amesten zutela —hein batean *Egan*-en aurka—, eta bide hori geroago hastiatu egin zela, nahiko idatzita dago, bai neuk beste toki batzuetan (ik. *Jakin* 21, 1981, 148-191; ik. orobat 230-246; *Euskera* 8/9, 1963-64, 336-371; nola hobeto Paulo Iztuetak, *Orixe eta bere garaia*, 1991, 950-969 eta 1000-1020). Gertakarien historia publiko hori utzi eta, oraingoan protagonista baten historia pertsonala jaulkiko dugu (historia beti izaten da biak, gertakari publikoak eta pertsonaien barnekiak): Joseba Intxaustirengan zentratuko gara. Horrela aldizkariaren etxe barruko bizitza piska bat ere urtebete oso batez agertuko zaigu —fundatzaileei omenaldi egiten ari garenez gero, urte horrek ia bigarren fundazio bat esanahi izan baitu—.

Konparatzea dago S. Berasaluze eta F. Mendizabal, Arantzazuko autoreetara mugatuz: *Jakin*-en hasieratik bi bideak entseatu dira, euskara garbiarena, behar diren neologismoak asmatuz, eta mordoiloarena, kultur lexikoa erdaratik mailegatuz. Nagusi-nagusia, hala ere, bide garbizalea izan da. Eta, garbizaleak ez baitu ozta ezer adierazten, esan dezagun,

Orixeren eredia izan dela teorian nagusia. Praktikan, «non cuius homini contingit adire Corinthum»: Orixe, bere akats guztiekin, sekulako idazlea zen; baina Orixeren miresle deboto izateak ez zuen inor Orixe bihurtzen.

Nola etorri da Joseba, nolabait esateko, Orixeren aurkako matxinadara? Joseba Intxaustik *Jakin*-en argitara duen estreinako artikulua 1957ko udakoa da, Iturriotz seudonimoagaz (4, 1957, 62-68): Salvatore Mitxelenari buruz da, eta haren antzeko euskara txukun «garbian» dago idatzia (gehiegikeria gabe). Lan hau aurretik *Gure Izarra*-n 1956an ikus daitekeen bera da, zuzenketatxo linguistiko batzuk eta aditz sintetiko (Mitxelenaren kritikak arren Orixeri!) eta errata grafiko gehiagorekin. Momentu horretan Joseba Erriberri-Oliten filosofia estudiantea da; Bastarrika/Txillardegi polemika-eta (1957-58ko negua), berak handik segitu ditu. 58ko udagoenean Arantzazura joan da teologia ikastera. Joan orduko jakinlarien bileran parte hartu dizu, garbi/mordoilo eztabaida goriko hura, eta hurrengo zenbakitik jada, Kepa Enbeitarekin batera, *Jakin*-en zuzendaritzan laguntzaile sartu da. Iraileko bileratik berehala, horrexek bultzatuta-edo, Intxaustik bere postura hartua du konfliktu horretan: Gabonetako zenbakian haren bigarren artikulua publikatzen da, «Bergsonen Jainko intuiziñoa» (8, 1958, 12-20), itxura guztiz filosofiako azken kurtsoan Erriberrin gauzaturiko azterlana, baina 59ko urte hasieran, labur eta gaizki esateko, euskara mordoiloan Arantzazun birregokitua (ik. «1959ko urte onetan...», Ib., 12; Intxaustiren gutun batetik ageri denez, zenbaki hau otsaileko lehen egunetan argitara da; eta halatsua izan ohi zen beti «Gabonetako» zenbakiarekin, oporralditxo profitatuz prestatzen baitzen). Artikulua argitara baino lehen hor Gabon edo Urtezahar aldera Josebak idatzi dion eskutitzari («nik gabonetan idatzi nioan, 'Bergsonen Jainko-intuiziñoa' artikulua kritika eskatu ta *Yakin*'i buruz zerbait galdetuaz»), Txillardegik honela erantzun dio 1959-01-04an:

Nere lankide ori:

Zurea artu dut, eta bi aldiz irakurri mutur batetik bestera. Pentsa dezakezunez, oso pozgarri izan zait nere iritziari buruz diozuna; eta berdin ere «Yakin»i buruz esaten didazuna. Beraz, erantzutera noakizu, eskerrak eman ondoren.

[...] Bergsonen artikulua irakurriko dizut, eta nere iritzia jakin nai ba duzu, eman egingo dizut. Baña, egia esan, gutxi balio dezakeala uste dut, ezpaitakit nik sobera Bergsonen filosofiaz. Ementxe dut frantsesez «La pensée et le mouvant», bañan ezin betarik aurki irakurtzeko.

Zuen «Yakin» ori alde batetik oso zait atsegin: orain arte euskeraz esan ez diran gauzak esaten saiatzen zeratelako. Asmo au ongi dago zalantzarik gabe.

Badakizu, alere, Bastarrika'ri nik egindako eskutitz latza ezagutu ezker, ez nagoela danetan konforme. Eta nere ura irakurrita, eta Bilbo'koa, eta 'Eganen azaldu dudan azkeneko artikulua, eta abar, ezagutzen ba dituzu, badakikezu gañera zergatik enatorren bat, eta zertan datzan nere diferentzia: erabilli dan izkuntzari buruz batez ere. Onetzaz luzatuko naiz, ba, gero nere iritzi osoa emateko.

Nere ustez, berrogei ta amar urte ontan, *esportazio-eusker*a egin dugu bakarrik. Euskeraz idatzi dugunean au pentsatu dugu aurrenik: ez beza atzerritarrek itzik batere konpreni. Auxe zan kakoa. Bost ajola guri esaten dana: *ez dedilla uler*, erdal izpirik ere *ez dedilla nabarmen...* Euskera «garbia» bear dugu...

Baña «garbia» ote dan jakiteko, zer egin dugu? *Erderari* begiratu. Ots, euskera egitean, *erdera* izan dugu arretan lehenbizi; eta gero, gero bakarrik, euskera. Erderaren arauz pentsatu dugu. Atzerritarren lekuan finkatu gera, *erderatik* epaitu dugu euskera.

Eta, zer lortu dugu? Bilbo'n esan nuena: «erdera de signo menos», erdal itzez esateko. Erdera-eza, edo «anti-erdera». Ez ordea, euskera.

Oraindik ere, guzoi, neuri ere bai aitortzen dizut, olako lotsa-edo ematen dit erdal itzak erabiltzeak. Ez bear ez danean: enago euskal itz jatorren aurka inñundik ere. Baña badirudi «arbola» esateko, gonpazio batez, bildur naizela, lotsa naizela, itz zabaldua bada ere. Edo «familia», edo «zopa», edo «galtzetiña». Lotsatu egiten naiz benetan. Garbikeriaren sus-traia tinko dago nigan oraindik, geiegi begiratzen diot erderari itz-kontu ontan.

Eta bein eta betirako, euskaldunari eta euskerari begiratu bear diogu; eta ideari. *Eta ez beste ezeri ere*. Bestela, galduta gaude.

Euskaldunontzat idatzi bear dugu, ez kanpotarrentzat. Eta euskeraz, eta ez erderaz. Kultura ta euskera egiazkoa: orra or bi muturrak.

Beraz, bi gauza bear ditugu derrigor: 1) *ZERBAIT esan bearra* [dena azpimarratua, «bearra» hiru azpimarratuz!], zerbait *unibersalik* alegia, arimari edo gizonari dagokion zerbait egiazkorik eta mamitsurik; eta 2) *EUSKERAZ* [letra larriaz eta azpimarratua] esan, eta ez guk asmatutako sasi-izkuntza zoro batez. Orra, nere ustez, bi baldintzak.

Kristauak beti izan dute buruan eta biotzean erejia bat: munduari utzi, eta mundu ontan berean ere «zeruan» bizitzeko tentazioa. Oientzako, kristaua «garbia» da, eta eluke munduan nahasi bear.

Guk ere, berdintsu, «garbitasuna» aipatzen dugu bein eta berriz: euskera «garbia», mendia, baserria. Ez bide dugu mundu nazkagarrian «nahastu» ta «zikindu» nai. Eta erejia deritzat oni ere.

Kristauak MUNDUAN sarturik, gaia jaso ta goratu egin bear dugun bezelaxe, euskaltzaleak ere euskera MUNDUAN sartu bear dugula iruditzen zait. Mendi-tontorrera eraman ez, baña kalera, «jalgi adi plazara». Orixe bai egokia, Detxeparek esan zuena. Beste ori ez da garbitasuna: garbikeria utsa da, iges-keria, eskapismoa. Orrengatik nere nobela ez da baserriko nobela bat; eta orain aurkeztu dudana bigarrena ere («Peru Leartza'ko» ori) ez da baserrikoa ere, kalekoa baizik. Utz ditzagun ametsak eta txorakeriak.

Eta, oni elduta, zer egin dezakezuten galdetzen didazu. Ez da errexa erantzuten. Euskerari buruz badakizu nere iritzia: arrazakeririk gabeko izkuntza bat.

Mamiaz, berriz, zer esango? Zer egin dezakezute prallegaiok?

Au erantzuteko datoak bear ditut. Alegia: zer asmo dezute? Nork jasoko du «Yakin»? Nolako jendea da: ikasia ala arrunta? Zenbat ale zabalduko dira? Nun? Erantzun zaidazu oni guziari buruz, eta nere iritzia emango dizut. Baña, orain, ori jakin gabe, ezin dezaket egoki erantzun.

Nere ustez, filosofia (oso tomista ez bada behintzat) irakurgarriagoa da teologia utsa baño.

Eta, Literaturako sail bat irekitzeari zer deritzazu? Liburu-kritika, edo olako zerbait (nobela, teatro, eta abar). Zabalakunde geixeago izango badu, behintzat, geuri prakadunoi interesatzen zaiguna ikusi bear da apur bat.

Baña, dana dala, zeatzago jakin naiko nuke zure iritzia: zer nai duzute izan dedin?

«Karmel» ezagutzen al duzu?

Zure erantzunaren zai nago, beraz. Biziki poztutzen nau zure berotasunak: ia frantziskotarrok behintzat Euskalerriarren erritasuna maitatzen duzuten, orain arte ontan bezela. Zorionak, beraz.

Agur!

Txillardegik aipatzen duen bere «Bilbokoa», Intxaustik aditzeraz baino ezin zuen ezagutu oraindik. 1958ko abenduan «Euskalzaleen Biltzarra»k Bilbon bilera bat egin zuen —batzuentzat mordoiloizaleen konjurazio moduko bat: Orixekek haren aurka bere protesta altxatu du—, hainbat konferentziarekin hizkuntz ereduaz eta batasunaz: tartean ziren A. Villasante, A. Irigoyen, San Martin, G. Aresti, etab., eta S. Altube eta Mitxelena ere; hilaren 13an Txillardegi «Batasunerako bidea» gaiaz mintzatu zen («dijo una serie de verdades ya olvidadas por nosotros», gogoratuko du Arestik X, 136). Baina interbentzio horiek estreina 1959ko udazkenean eman dira argitara *Euskera*-n eta Intxaustik irakurri eta komentatu ditu (*Jakin* 11, 1960, 86 eta hurr.). Ezagutzen zituenak 1956ko «Ez bat eta ez beste» *Egan*-en, eta Euskaltzaindiaren 1956ko Arantzazuko Biltzarrari «Karta idigia» ziren, eta hurbilago Bastarririkari jipoia (6, 1958, 85 eta hurr.), Txillardegiren norabidearen aski erakusgarriak. Oinarri hauen gainean zuzendu zaio Intxausti 1958ko Gabonetan Txillardegiri iritzi bila.

*Jakin*-en aipatu 8. zenbaki hori agertu berri-berritan, Josebak neuri Arantzazutik Erriberrira idatziriko gutunean, honela zioen berak filosofiako estudianteen artikulua eskatuz (1959-01-22):

[Artikulu horiek] bi nota aiek baditzate, aski da: gaia GAURKOA ta euskera ERREXA. Ez dakit jakingo duzun —edo obekiago esateko ba-dakit jakingo ez duzuna—: orain bi aste-edo, askorentzat birao eziñentzuna dan itztxo bat idatzi nion bateri: «orixekeria» erabat eta bein betiko suntsitu egin bear dala, nere ustez, esan nion. Bueno, gauza asko esan dezaizkizuket gai onetzaz [...]. Euskera idazkera, gaurko euskal estiluaren aldetik egin dudana aldakuntza bazeneki! (Ideatan esan nai dizut). Aspaldi bateko «erdera-lotsa» aiek galdu ditut: Jainkoari eskerrak! [...]. Begira: gai egoki bat gaurkoa ta

gaurko filosofia bateri buruzkoa bada, obe —ar zazute eta xee-xee, «orixekerigabe» esan eta kitto.

Jarraian Bergsoni buruzko bere artikulua kritika eskatzen zidan, hau abisatuz ordea:

Ba-dakizu zure zeregiña. Euskera erreza dala uste dut; eta nekeza ta ulergaitza gertatzen bada, bijoa inpernuko zuloetara. Ez dut besterik nai! Ez dakizu zuk, noski, Luis Mitxelenak esan zuen ura: Orixe'ren —obekiago: Zaitegi'ren— edo Berriatuaren euskera aukeratzekotan, onena autetsiko lukela. Bai nik ere! Nere lan au «erdelkeria» irudituko zaizu bear bada; ala gertatzen bada, esaidazu eta orain gutxi norbaiti idatzi diodan eskutitza bialduko dizut. Ba-dakizu kittarra jotzea zer dan? Ba-dakizu kittarrea errezena nola jotzen dan euskera lanetan: «goi» (???) literatura egiñaz. Ain goikoa egin dute ze (?) iñortxo etzaie atzetik ain goraiño iritxi. Gogoratzen duzu, orain urtetebe, Txillardegik esaten zuena: «zuek euskera iltzen ari zerate», ba, ni ere ortan nago. Ura biozkada zan; baiña ez biozkada utsa. Gere buruak usteltzen, suizidatzen ari gera [...]. Irakurri ezazu Txillardegik azkeneko *Egan*-en zenbakian idatzi duena: «Piarres gaixo» (= euskera).

(Garaiko zentsura giroa oroitzeko — beste pasarte batean hau idazten du: «Bertso xistrin batzuk bitarteko dirala, 'Aránzazu' debekatuko duten dabilta. Fiat voluntas Domini... Hispaniae!»).

Euskaltzalego guztian bezala, Erriberriko estudianteen arteko euskaltzale taldetxoan ere su-ta-fu zebilen garbi/mor-doilo eztabaida. Honela zioen Josebaren hurrengo gutunean (1959-02-16):

Ba-zekiat euskera kontuetan dituzuen eztabaidatzaz zerbait. A-ze nolakoak entzun bear dizkiagun oraindik. Ba-dakik oraiñarteko *Yakin*ek izan duan euskara kimikoa nolakoa dan. Ez dek jendeak —obekiago: jakintsuek eta sentidu komundun guziek— itz egin ez dutelako; baiña buruak gogorrrak noski. Eztabaidaren batean abillenean, nun abillen jakin dezakan agertzen diat: Euskaltzaindi dena ia aurka zeukak oraingo *Yakin*ek: Mitxelena, Irigoien, Txillardegik, Villasante: euskeraz lan pixka bat egiten duten guziak. Bein baiño geiagotan entzungo idan euk ere, or nengola esaten nuan ura: «Bost-sei urtean euskera ikasi, ta oraindik zenbait idazleen idazkera odeigaindikoa ulertzeko, egundoko borondatea bear zala, eta... azkenean gutxi-gora-beera jakin zer esan nai zuan.

Noiz ulertuko ote zizkiagu, ba?». Orain ori ta beste orrelako asko esango nizkikek; orain askorentzat euskal-biraoak diranak ere esango nituzkek. Dana dala laister izango dizkiagu *Yakin*'en eztabaida gogorren batzuk: karraxi egin ezkeroko bat-edo-beste bide oneratuko dek, eta ori bear diagu. Egun auetan ba-dizkiat eskuartean *Yakin*'erako lan batzuk [...]. Eskuartean ditudan lan aukerak onela ditek izenburua: «Schopenhauer: zorion billa?», eta besteak onelakoren bat izango dik: «Euskerakeria?». Mutur-joka gogorren bat sortuko zidak; baiña itz egin bearrean aurkitzen nauk, eta ez nauk iñola ere ixilduko, ez bainegok bakarrik. Ba-litekek Pazkoatoko alean dana ez sartzea, eta ola bada bi ataletan argitaratuko diat. Orainarteko bide onetatik etzegok jarraitzerik: aurrera edo atzera jo bearrean gaudek. Enbeitak eta biok eskubide osoak zizkiagu eta gai auetan bat gatozek: etzegok etxe-barruko burrukarik. Artikulu oien bidez jakingo dek nik pentsatzen dedan dena.

Pazkoaldiko zenbakian «Euskerakeria» bezala iragarritako testua irakur daiteke, bitartean «Illobira bultzaka» izenburuagaz (9, 1959, 83-88). Aldiz Schopenhauerri buruzko artikulua urtebete beranduago agertuko da (12, 1960, 31-37).

Bere gutunarekin batera, berak Txillardegiri emandako erantzuna bidali zidan Josebak. Hauxe (nik jasotako kopia kalkatuak datarik ez du):

Gure asmoatzaz galdetzen didazu. Benetan esaten dizut: Yakinlariok ez gera oraindik bat etorri. Eztabaida, bai, baiña izan ditugun billeratan ez dugu ezer garbirik alde onetatik erabaki; auzia nebulosa, illun xamarra gelditu da beti. Izan ere oinbeste etxeetatik urtean bein batzen geranok jomuga jakin bat errebista bateri ezartzeko denbora gutxitxo dugu egun pare batean. Beraz, auzi au emen, Arantzazu'n gaude-nok erabaki bearko dugu, teoriz —*Yakin*lari guzien baime-nez, esan nai nuke— ez bada ere, praktikuki zer egin bear dan jakiteko beintzat. Beraz, *Yakin*'ek zer nai duen agertzen dizudanean, zuzendaritza berriak —bi bakarrik gera eta onetan, gutxi gora-beera, bat gatozela uste dut— *Yakin*'ekin egin nai lukena esaten dizut.

*Yakin*'en asmo larriena eta nabarmenena euskal-kultura egitea da ots, euskeraz KULTURA egitea. Kultura onek ez du arrunta, «cultura general» dalako ori izan nai. Gure elburua goraxego jartzen dugu. Baiña ez genuke jakintza oso espezializaturik egin nai ere, ori irakurle ta lankideak urritu ta oraingoz euskal-errebista batek egin ez dezakena nai izatea

bailitzake. Goi-maillako kultura, espezialistena izango ez bada ere. Leenik, filosofia ta Teologia, eta aal badedi baita gaiñerako jakintza ere; baiña ba-diteke *Yakin*'ek beste jakintza auetarako lankide ikasirik ez izatea; orregatik, filosofia ta Teologia erabilliko ditugu, batez ere. Gerorxeago zerbait esango dizut gaiari buruz.

Zein irakurleentzat idatzi nai dugun ere galdetzen didazu. Esan dizudanetik atera dezakezu ori. *Yakin* ez da kaleko gizon arruntarentzat, oientzat ba-dira beste euskal-errebistak-ta, nai aiña ez bada ere. Gu biok —Kepa Enbeita aundiaren billoba dut nire laguna— ez euskalzaleak, euskaldunak, euskera-dunak, baizik. Orainarteko euskal-idazle geienen errua euskalzaleei begira idaztea izan da: euskaldun guzientzat ez ote da, ba, euskera? Euskalzaleoi euskera monopolizatzea zillegi ote zaiugu, ba? Ez dut uste; beraz, euskaldunei begiratu nai genieke.

Irakurleak zenbat izango ditugun jakin nai zenuke. Bai nekeza galdera oni erantzutea! Zenbatera iritxiko ote gera? Noraiño joan ote gaitezke? Orain 250 ditugu; etorkizunak du itza. Inprentaz argitaratuko bagenu, eta aldizkarian bertan aldakuntzatxo bat baiño geiago egin... zenbat arpededun izango ote genituzke?

Literatura-sail bat ez ote litzaken ongi etorriko, galdetzen ere duzu. Bai, orrelako zerbait egiñik, *Yakin*'ek suskritore geiago egin litzazke; baiña bear bada zerbait galduko luke. Onelako sail berezi batek arrisku bat izango luke. Pekatu nagusien artean ba-da nagikeria deritzaiozun bat; eta ori genuke gure etsai: lankideek ez ote lukete errezenera joko? Nire lagunen artean gertatzen dena esaten dizut: geienak ez dutela filosofia edo Teologiako gairik erabilli nai, nekeza baita. Gaiñera, ba-da literatura gaiantzat ere txoko bat, berezia ez bada ere: kultura-sailla.

Kritika, teatro, zinema t.a. erabiltzeak ez lioke, geiegi eman ezean, kalterik egingo; baiña *Yakin*'en gabiltzenok gauza ote gera orrelako lanik egiteko? Edo, erarik bai aal dugu? Liburu-kritika egiteko erarik ba-da, baiña gauza aal gera? Euskal-liburu askori egiten zaien zenbait kritika bezelakoak egiteko, bai noski, kritika oiek benetako eritziak baiño «amenismu» geiago baitira. Teatro ta zinema kritika, berriz, apaiz-praillegaiok egiteko erarik ez dugula uste dut, aktualidade gabekoa izango bailitzake derrior. Dana dala, auek guziekin ez dizut zerbait egin ez ditekenik esaten, eta ordua iristean, ba-liteke orrelako erabakiren bat artzea.

Orain eskuartean darabilligun leenbiziko egitekoa, *Yakin* leenbaitleen irarkolara eramatea da. Zeuk ere ongi dakizunez, au [ezin] dezakegu txanponik gabe egin, eta euskera-kontuan



areago. Orregatik diru ori nunbaitetik bildu nairik gabiltz. Au lortzen ez badugu, alper-alperrik egin nai izango ditugu aibat aldakuntza, multikopiaz argitaratzen dugun bitartean ezer gutxi egin dezakegu-ta, bear bada ain gutxi ez bada ere.

Inprentaz ateratze onek ekarri digun leen-auzia zera da: nola aurkeztuko dugu? Zein formatu emango diogu? Emen ere, ikusia dago, Yakinlari guziok biltzen bagera ez gera ezertara iritxiko, eta etxe barruan, ixillean gauzak egitea izango da onena. Eredutzat errebista asko ditugu: «Razón y Fe», «Hechos y Dichos», «Insula», «Indice», t.a. Nire eritziz, «Indice» tankera litzake egokiena. Eguneroko itxurakoa, eta orregatik irakurgarria, berealakoan leitzera daramakiena. Gero, noranai eraman nai danean, patrikan eramateko egokia. Onelakoa egiñik, marrazkiekin ere argitaratu diteke, etxean beti edo geienetan izaten baitugu lan ori egin dezakenen bat. Baiña ba-du beste akats bat ere: gordetzeko ez dala ain egokia, eta berealaxe urratzen dala.

Ba-da oraindik beste aurkezpen klase bat ere: oraingoa bear edo, obekiago, aundixeago bat, leenagoko «Euzko Gogoaren neurri iritxi gabe. Neurri onek oraingo *Yakin*’enak baiño erreztasun ugariago izango lituzke presentaziño polit bat egiteko. Azkenik, baten-batek «Euzko Gogo»k orain duen neurri orretakoa argitara dezagula eskatu digutenak [sic!] ere ba-dira orrela noranai eraman ditekelasanez. Tamaiñu au kaxkarregia iruditzen zait, presentaziño pobre xamarra baitu. Nire ustez, bi neurri auen artean aukeratu bear dugu: oraingo *Yakin*’en baiño aundixeago ori, edo «Indice»na. Badakit, aurrez, nire lagunak «Indice»ren neurri ori oso nekez onartuko dutena; baiña propagandarako-ta ori bezelakorik ez dagoela uste dut. Zer deritzazu zuk, zein neurri nai zenuke zuretzat?

Eta noan *Yakin*’ek duen problemarik gogorrenera: bere euskera. Ba-dakit, ez luke orrela izan bear, *Yakin*’en leenengo buru-austea bere gaia, mamia, izan bear luke; baiña lankide askoren «orixekeriak» (ixo!, gero, entzuten badigute, kopeta zimurtuak ikusi bearrean gaude-eta!) jeroglifiko biurtu digute ia euskera, eta emen dago orain koxka: euskera-jeroglifiko ori euskera-euskera (beste zerbait esango nik baiño... geroxeagorako uzten dizut) egiten ez badugu *Yakin*’ek ez dauka zer egiñik, irakurlerik ez baitu izango.

Nik nai nuken euskera au da: euskera-esperanto. Geiegi esatea ote da? Ba-liteke. Euskerarekin onelako zerbait gertatzen ote zaigun nago: euskera zaar zalekeria daukagu ezurrerataiño sarturik. Euskera zaarra dala jakiteak arrotu egiten gaitu; baiña oore au ez ote zaigu kaltegarri? Ziur nago,

daukagun zaar-mentalidade onekin, juduek beren izkuntzarekin egin dutena egin bearrean aurkitu bagina euskaldunok, orain iru milla urteko euskera berpiztuaraziko genuen guk; baiña alegiñak egin eta azkenik pot egingo genuen. Euskerarekin orrelako zerbait gertatzen zaigula uste dut: euskera zaarra daukagu eta euskaldun ikasiari —eta berdin ez ikasiari— ulergaitza egiten zaio euskera, bere izkuntza. Ba-dakit, ba-dugu zuzendu ez dezakegun beste utsune bat ere: eskolarik eza. Baiña gauzak onela diran bitartean zirkusantzi ori ere gogoan iduki bear dugu, euskeraren gaurko arazoa erabakitzean. Ez daukagu etxoiten egoterik, denbora obeak etorriko dirala pentsatuaz: gaur bertan egin bearreko lana daukagu, bestela gutxienean uste dugunean eskuartearen ilko zaigu gure izkuntza. Orregatik, gizaldiek ezarri dioten lastrea kendu egin bear diogula euskerari uste dut. Bear-bearreko duguna utzirik, jantzi zaar ta alperrikakoak kendu; nire ustez ez daukagu beste salbaziorik. Zer utzi bear diagu, ba?, galdetzen du batek. Egia, ez da erreza esatea, gauza konkretuetan asi ezker bereala baitator mutur-joka gogorra.

Leenik, erruz erabili bear genuke latera eta gerkeratik datorren kultura-terminologia. Oneri onela erantzun oi zaio: bai ederki; baiña euskal-itx jator ta eder bat atera dezakegunean, ez. Nire ustez, ain egoki ta jatorki sortu ditzazkegunak oso gutxi dira. Terminologia au dena euskeratik sortzen badugu, iztegi berri oni bizitza ematen urteak joango zaizkigu, eta au iristen dugunerako, euskera gajoaren illetak kantatu bearrean gatzazkizu. Gaiñera, gure izkuntzan kultura-iztegi berri bat, beste izkuntza kulturadunengandik bereizitutako bat, sortzen badugu, gure jende ikasiak ez du inoiz terminologia berria ikasiko. Jende ikasiak [sic!] euskeraz bere kultura erabiltzeko gauza ez bada, berriz, kitto, gureak egin du: erri arrunta atzetik joango zaizkio eta orduan euskerak bere semeak galdu ditu.

Itz-kontu onetan oraindik aurrerago joan ditele [sic!] uste dut. Ba-dira zenbait euskal-itx errian erabiliak; baiña oso zabaldua txikia dutenak. Onelako itzakin idatzi oi dute euskera «garbian» egin nai duten askok. Ez ote au ere garbikeria? Nire eritziz, onelako itzak banatu egiten gaituzte euskaldunok, eta batasunerako bide bakarra itz aoik utzi —gure-gureak izanarren— [eta] erderatik artzea ez ote da? Erdera ez ote dezakegu gure laguntzaille arazo onetan biurtu? Euskalkieriak eman ezin digun batasuna ez aal diteke erderatik artu? Zergatik ez beste izkuntzetatik bizigarriren bat sartu? Euskera arbola zaarrak ez ote digu onelako txertu berri bat eskatzen?

Oraiñarteko ori iztegiari begiraturik esan badut, berebat esan ditekete sintasistaz ere. Egia, nekeza da ta oso aldapa-gora egiten zaigu joskera berezia uztea. Neri beintzat personalki etzait gogoko joskera berririk, bestera oituta nagoelako, noski. Baiña irakurleek ori eskatzen badigute, nola ukatu, bestela erderara joango bazaizkigu? Leenen euskeraren bizitza, ondoren bere aberastasunak. Eriotza-burruka beltzean gabiltz eta ez daukagu, burruka onetan nekegarri zaizkigun tresnak eskuetan idukitzerik; ala bear bada, billoitsik jardun bear degu mutur-joka onetan.

Eta *Yakin*'eko beste puntu bateri buruz. Gure errebista onek ez ote du praille-kume arpegia argiegi? Ni baitzean nago. Ia piska bat «laizizatzen» dugun. Sakristitik atera bearrean arkitzen dala deritzat. Baiña ori ez [da] bi edo iruren artean egin dezakeguna, lankide guziena baizik.

Eta oraingoz bukatzera noakizu. Barka ain luze ta aspergarri izana. Bidal idazu, mesedez, esan dizkizudan auen guzion eritzia. Eta berdin nire artikulua: gaiaren aldetik —berez garrantzitsuena izanarren— ez daukazu lanik artu bearrik, egiten baduzu obe; baiña batez ere euskera, idazkera, epaitzea nai nuke. Agur, eta agindu nai duzuna zure serbitzari txikien oni.

Gehienak bezala, ni neu Orixezalea nintzen, poetarena baino gehiago prosistarena, h. d., batez ere Meza-Bezperetako itzultzaile kreatiboarena. Ez dakit, zer idatziko nion, Intxaustik 1959-03-07ko gutun luzean honela erantzun zidan, besteak beste:

«Orixezeria» gaizki xamar erabilli ez ote nuan galdetzen zenidan. Ori zeuk ikusi bearrekoa da, ez baikera gizonok gerean epaille zuzen. Zer esan nai nuan? Ba-ditekela Orixe euskera geiegi jakitea ta lurtean ez bizitzea... Ez naiz orain emen geiago luzatuko, edo... bai. Orain egun batzuk Orixe'ren eskutitz bat jaso degu, *Yakin*'erako. Dirudianez —neuk ez det oraindik dana irakurri— axioren bat egin diote: inprentan zerbait aldatu-edo. Au gaizki da, ez nuke iñola ere onartuko; baiña berak esaten dituan ta egiten dituan apologiak ere ez. Or nunbait, zokoren batean berezikeriren bat arkitu duala ta bere belarriari oso ederki datorkiolako, ta beste gabe, euskal literaturan bururatzen zaizkion ta etzaizkionak sartu nai dizkigu. Euskalki batean idatzi nai duanean, bapo; baiña, Orixe bezela, euskaldun guzientzat idatzi nai danean, nola baztertuko ditugu, ba, guziok erabiltzen ditugunak ta nola artuko berezikeri oiek? Onela euskera-batasuna zakurraren ip.ra joango da. Euskal idazleak euskeraren jabe gerala uste

degu, ta ez, jauna!, ez gera euskeraren jaun ta jabe. Ez, orixe!! Ta, ez, Orixe! Euskeraz, aditza esate baterako, zerbait batu degu: ia danak gatazko erabiltzen dute; baiña Orixe arkitu du nunbait *gakio* (ezta *gakizko* ere) esaten dutela. Bi erri izango dira *gakio* bedeinkatu au esaten dutenak; baiña Orixe'ren belarriari goxoago zaio *gakio*, ta, jakiña, *gakio* erabilli bear da, euskal-literaturan oraiñartean erabilligabea izanarren. Orixe etzaio dejenerazio bat ere izan ditekenik bururatuko; bai zera!, pollita baita, emeagoa, ta, gaiñera, Orixe euskal idazleak ez ote du, ba, ortarako eskubiderik...?

Aurrekoan esan nizun «Euskerakeria» (orain «Illobira bultzaka») Orixe'ren kontrakoa ere ba-da, nik bertan aitutzen ez badet ere, ez bainaiz gizonak kritikatzan ari, giza-jokaerak baizik. Lan au, seguru asko, Orixe'ren eskutitz orren aurretik joango da *Yakin*'en. Ba-liteke Orixe, baita besteren batek ere, erantzutea: ez nuke besterik nai. Prest nago edozertarako; euskaltzain bat baiño geiago nerekin ba-det, ta ondo xamar pentsatutako lana da. Eztabaidaren bat sortzen bada, askok edo batzuk irakurriko naute ta ba-liteke norbait esnatzea. Oinbeste artikulu-itzaurrekin, ba-dakit zai geldituko zerana; ez da beste munduko gauzarik; baiña bai biotz-biotzetik ta burutik irten zaidana. Euskerakerian oraiñarte gobernatu nauan aberzalekeriarekin (biozberakeria?) ez det ezer nai: maitasuna bai, baiña buruzkoa izan dedilla. Ziur egon zaite: euskerarenak egin duala garbi ikusten dedanean, egun ortan bertan artuko det nere erabakia. Euskalerraren alde alperrik ari bagera, egin dezagun lan gizadi osoaren alde. Buruz joka gaitezen. Jainkoak bakarrik daki euskal idazle askok euskerari egin diogun kaltea: «illobira bultzaka» ibilli gera ta dabiltz. Ez det nik iñor kondenatu nai, ez; ZERBAIT desegin nai nuke. Auxe otsegin nai nieke zenbaiti: «Euskal idazle: IXIL ZAITEZ, zure euskera odeitarrez, euskal irakurleak urritu ta gure izkuntzari semeak kentzen saiatu nai baduzu. Arren!!!».

[...] *Yakin* zergatik da *yakin*, eta ez jakin?, galdetzen dezu. Berasaluze Anaiari orixe bururatu zitzaiohalako. Ta Berasaluze Anaiari zergatik bururatu zitzaion? Ona emen kokka. Lehenengo arrazoia: olerkaria zalako. Bigarrena: gizon batzuegan teoriak bizitzak baiño indar gehiago duelako [...]. Olerkariaren arrazoia au da: 'j' baiño entzungarriago, goxoago ta... emeago ta emakumeago da 'y' biguin bat... Ai! Zein gogaxagari! (Gogora 'gaki'oren arrazoia: danak dira kofraditarrak ok). Ta neu ere aitorketatxo bat egin bearrean naiz: neuk ere pekatutxo eme au egin det, ta siñisten ez badezu zoaz *Yakin*'en argitaratu nuen leenbiziko lana aztertzer.

Teoriazko arrazoa: ‘j’ ez da euskera jatorreko itz-otsa, ori arabetik dator: kendu egin bear degu beraz. (Ez aal dakizu ‘euskerari’ gertatu zitzaiona? Goiz batean adimen argi batek —ba-dakizu noski nork— intuizio bat *ukan* (ja, ja, ja!!!) zuen: euSkera, euSkaldun, t. a., ‘eguzki’ itzetik jaio dira; orregatik ez dago ‘euSkera’ idazterik, orrek ‘euZkera’ izan bear du, ta arrezkeroztik (ja, ja, ja!!!) asko dituzu filologiko problema ori politika-bidez erabaki dutenak: Maixuak esan baitzuen, ta orain beti ‘euZkera’ idazten dute). ‘j’ kontuan ere parentesi arteko istori ori gertatu da. Izan bear zukeana gauza bat da, ta dana, izango dana ta izan bearko duena beste bat.

Garbi/mordoilo auzia minkortzen zuen alderdi bat, horrek orduan zuen dimentsio politiko hori zen. Alegia, Arana Goiriren teoriaren eztabaida inplikatzeko zuela, eta jariatu ki EAJ-PNVko jende askorena (nahiz eta Koldo Mitxelena, esaterako, jeltzide puntuzko izan). Arana Goirirekin —ez gauza bera direlako, baina— «jesuiten eskola» guztia (ik. 21, 1981, 150) ikusten zen kuestionatua: Orixe, Zaitegi, Olabide, etc. Aipatzen ari garen martxoko hau hemezortzi folio bete-beteko gutuna da, gehiena ortografiako, aditzeko, gramatikako nire mila itaunei erantzunez. Momentu batean honela dio:

Olabide’k *dikat* [hikako ‘diat’] ere erabiltzen duela-edo esaten didazu. Bai, ez naiz arritzen, Olabide’k gauza asko egiten baititu, ta auetan bat euskera ‘illobira bultzaka’ eraman. Ez da gutxi, arraiopola!, onetarako ere indarra ta kemena bear baitira. Ezagutu dedan geometrarik bulartsuena da Olabide. Ba-dakit, ni neu ere noizbait izan naizela esango didazuna; baiña, a! gizajoa, onen alboan ume zirtzilla naiz ni. Ez aal duzu iñoiz Olabide’ren Itun Zarra irakurri? Ez? Orduan ez dakizu oraindik Olabide’ren geometria jatorra zer dan.

Orain jesulagunek Biblia osoa argitaratu digute. Bai egoia liburua! Bai prezioz, ta baita enkuadernazioz ere... Ez dute, ez, alperrikako lanik egin! Bai zera! Euskera, amona xarrara, zaartzaroak eraman nai ez badu, olabidetarrak garbituko dute oraingoan. Ez dabilte auek txantxetan: olabide-zale talde bat bildu nai dute, bere Biblia zabal dezan; etxerik-etxe ibiltzeko asmoa dute. Arantzazu’ra ere etorri omen zan jesuitaren bat, saltzen lagun zezaioten; baiña, esaten dutenez, etzuen arrera berorik izan. Orain Gasteiz’en omenajeren bat egitera dijoaz Olabide’ri: bere borondate onak merezi zuen, bai. Ba-liteke borondateak bakarrik merezi izatea baiño...

Berrero garaiko giroa aipatzeko: buruhauste bakarrak ez ziren ortografia edo garbi/mordoiloarenak. Fraide erakundearen antolaketa hierarkikoa ezagutuz gero erraz asmatzen da, Arantzazuko ikastegiko aldizkaritxoak lurperatzeko, administrazio katolikoarentzat, zuzenean debeku bat baino metodo duinagoa, Aita Probintzialari Donostian dei bat egitea zela alarma piska bat eraginez, hark Arantzazuko Guardianoari presio egin ziezaion, eta Guardiano ikaratuak estudianteen Maisuaren gainean, honek estudianteei aldizkari lanetan aritzea galarazteko, eta bake santu, hautsik harrotu gabe. Idazten du Intxaustik:

*Yakin*’etzaz azkeneko berria. Gobernuak, Espainiko Gobernu katolikoak, muturra sartuko ote duan-edo gabiltz. Donosti’n norbaitek itz egiñik izan bear du. Muturreko beroren bat artzen badegu, gere erruz izango da, baimenik gabe ta Gobernu osoa itxulipurdikatu naien baikabiltz. Izan ere, bildurgarriak, bildurgarriak gera gu. Kontuz ibilli dedilla jendea. Justiziak eskatzen duana da: legez kanpotik dabillenari zigorra zor zaiola.

Horrelakoak behin baino gehiagotan egon dira. Hala ere, presioak ez zirela nahikoa eta (Frantziskotarren Probintziari eskertu behar zaio, *Jakin* aldizkariari beti babes osoa eman diola, inolako bere interesik gabe, ekonomikoak edo), administrazioak 1961eko abendura arte itxaron du aldizkariaren aurka zuzenean interbenitzeko, orduan bai, debeku eta isunez.

1959ko Pazkoaldiko zenbakian (apiril hasieran urte horretan) aldizkariaren fundatzaileei agur esan zaie: «Eraikilleak ba-dijoaz. Lemazain berriak etorri». «AGUR! Bastarrika’tar Iñaki, Mendizabala’dar Fernando eta Bereziartuata’ar Iñaki». Zuzendari berriak Kepa Enbeita eta Joseba Intxausti dira. Agur hitzok Kepa Enbeitaren eskuaren itxura dute. Zenbaki berean Joseba Intxaustik «Illobira bultzaka» publikatu du. Handik gutxira, 1959-04-27an, hau kontatzen zidan:

«Illobira bultzaka»k ezer iritxiko duen? Bai zera! Ni ere pesimista naiz: zaarren artean ezer ez, baiña ba-liteke gazteren batek gogoan artzea. Dagoneko A. Iturria’rekin izan det ar-

tu-eman bat. Karta gogortxo bat egin zion [Juan] Azurmendi'ri nere orri buruz; baiña arrezkero damaturik-edo da. Joan dan igandean izan zan emen eta Azurmendi'ri gaizki artu nuen berea galdetu zion; geroxeago baita neuri ere asarraturik nengoen. Nik ezetz erantzun nion eta berarekin itz egin nai nuela (berak ere beste ainbeste zion berean), ba-nuela bat etorriko giñanaren itxaropena-ta..., baiña etzuen astirik izan. Ala zion bere eskutitzean, beste gauza askoren artean: «Irakurleak esango dute au irakurrita: Ba-zetorkiguk arroputz bat». Ta nik nereko: Esan dezatela, norbait zuzentzen bada.

Gutunaren bukaeran Joseba izpiritu polemikotik gogoeta filosofikora itzultzen da:

Ez dakit jakingo dezun; baiña Schopenhauer'ek onelatsu dio bere liburu batean: «Errealidadeari askoz geiago gerturatzen zaio pesimismua, optimismua baiña». Ta zuk eta nik gai onetan berdin pentsatzen degu. Emendik iru urtera [karrera amaitu eta apaiz ordenazioa] erabakiko det euskerari eman bear diodana; binbitartean saiatuko naiz (itxaropena omen da azkena galtzen dana; baiña galdu ditekena au ere) zerbait egiten ta nere lanak pot egiten duela ikusten badet..., beste bideak artu eta kitto: zertarako eremu gorrian aldarrika jardun?

Gaxteen istilu txikion erdian 1959-04-02an istilu mandia etorri da, «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz», mordoilo bidearen —labur esateko— onarpen ofiziala bezala Euskaltzaindiaren partetik (Akademia «berria» esango zukeen Orixek erdeinuz). *Jakin*-ek deklarazioaren orria bere harpidedunei zabaldu zien. Ideia bat egiteko garaiko giroa nola zebilen, 1959-07-14ko gutunetik merezi du atal batzuk honera ekartzea:

Euskaltzaindiaren erabakia nola artu dezute or [Erriberrin]? Ba-dakizute, Euskaltzaindiak ez du lanik egiten... ta egiten duanean, utikan, i!, orru egin. Euskaltzaindia alper-zoko bat besterik ez da..., ori guztiok dakiguna da..., euskaltzainiak bezin alper ta nagirik nun? Baiña bere eginkizunari ekitean, «ttontto alena, ixillik egon adi!» esan. Au da askoren jokaera. *Yakin*'ekin biali genituan orrietatik Donosti'tik bat itzuli egin ziguten, arpideduna (ura beintzat) okitua omen dauka Euskaltzaindiak. Mitxelena'k Olabide'ri esaten dizkionak bai egoiak beste askorentzat, arpidedun onentzat, esate baterako.

Orain egun gutxi izan da au Arantzazu'n. Emakume bat da, Donosti'an euskal-eskola bat daukana. Balioko andrea,

ba-du bizarrrik mundua astintzeko ta ume-eskola eramateko areago oraindik. Bai orixe! Orrek manejatzen ditu egoki ta trebeki aurrak! Au dana ezin ukatu. Onelako asko bagenitu, beste kuku bat genuke abeslari gure Errian! Baiña... joan zaitte, urreratu zakizkio elkarrizketara... Berealaxe berotzen da, ta kitto, ez dago ura entzuteko.

Orria itzultzean, zera esaten zigun: *Yakin*'en gauza asko zituale ezin ikusiak. Oni erantzunez, eskutitz labur ta xamur-bigun bat egin nion, entzuteko prest geundela beti esanaz. Baiña konturatu gabeko pekatu astun bat egin nuan, asieran onela nion: «Andre errespetagarria: Pake ta On». Agur onek erakarri didan zaparrada! Donosti'ko dozenerdi bat emakumeen erdian esan zizkidan danak. «Errespetagarri» orrek karta lurrera eroriarazi omen zion, ta, gaiñera, frantziskotar batek egin bear orrelako agur luzea. Dana dala, «errespetagarri» ura etzan egokia izan, alajaiñetan! «Labor antipatriótica» egiten ari omen gera gure euskeraz, ta ez gu bakarrik, baita Euskaltzaindia ta euskaltzaiñak ere, ta ikusia dago, lanbide galgarri orretan ez daukate oiek muturrik sartzerik. Euskaltzaindiari makurtu? Ez, arranoa! Gaiñera, ez omen dakigu geure kontra dauden euskaltzaleen taldea. Guk, gaurko euskal-egoerari makurtu nai omen dugu, ta au ezin diteke iñola. Egia esan, ez dakit oso garbi zer esan nai zuan; baiña irakurri zazu Mitxelena'ren kritika: «Etzeuzkan, ordea, gogoan diren euskaldun kaxkar-ezjakiñak, *bear lirakean* euskaldun jantziak baizik, bihar edo etzi ugariago sor *litezkean* euskaldunak». Au dek, au! *Izan bear lirakean* euskaldunentzat lan egin, ta binbitartean geran euskaldunak lur jo dezagula, *izan litezkeanak* ez baitira iñoiz ilko. Iltzeko bizitza behar leenengo. Olabide'k, ta beste askok, ez digute «benetako euskerarik» eman. «Apropos» jardun zan «saio-euskera» egiten, jolasean, iñoiz serioki euskaldunontzat idatzi gabe. «Izkuntz-eredutzat, ordea, gidari segurutzat, [ez dezakegu Olabide] [sic] iñola ere» artu. Zer nai dezu gauza tristeagorik, oinbeste neke ondoren, eredu jatorrena izan zitezkean lana, idazlearen joera txatxuagatik, izan bear zuana ez izatea baiño? Ta oraindik ba-dira orrelako euskera ori euskal-baserrietara eraman nai dutenak. «Liburu au ez da iñondik probetxugarriago bide orretatik amildegiak agerian uzten dituen aldetik baiño». Ta onoko au: «Argituko aal ditu Jainkoak guztion begiak, gure izkuntzaren onerako». Itz auetan dago Mitxelenak Olabide'ri egin dion kritikarik zorrotzena. Ogei urteko lan ta buruausteez merezi izan duten eritzi zanpatzaillea. Ez aal da penagarria onela indar-kemenak galtzea?

Donosti'ko emakume onek, aitatu dizudanez, beste au ere esan zidan: «Oraingo zirkunstantzieren itsatsiak zaudete». Pe-



katu aal da? Zer egin bear ote degu? Dana utzi ta izan bear lukena ta inoiz izan ez dana gogoan artu? Askatasuna datorrenean, au ta bestea gertatuko omen da. Nork daki garaiz etorriko dan? Binbitartean euskerak bizirik iraungo ote du? Ta nork daki orduan zer geratuko dan? Optimismua bear da, gero, batzuek nai duten bezela lan egiteko... ta ez txantxetakoak gainera. Batzuek uste dutenez, abertzale garbi ta zintzoak ezin ditezke inola ere mordoillo (barkatu, ez da itz egokia baiño) tankerako izan, aberri aurkakoa baita jora au: Aberriak garbia izan bear du, bai odolez ta bai izkuntzaz. Gu konturatu gabe, m...tu egin gera; ta au ez da nik esana, entzuna baiño. Egia esan, nazka ematen dit onelako mentalidade itxiak; Jainkoari eskerrak nere maitasunak ez dute zenbaiten jokabidetan errorrik. Errusi'ko idazleen joera datorkit orain burura. Turgeniev'i etzala errusitarra bota zioten arpegira, Europa-alderako grifa berezia zualako. Edo etxe-barruko eskatasuna ez ote degu kanpoko ondasunez estaltzerik?

Argi dago gaur sermolari nagona...

[...] Eskuartean det *Alderdi*. Euskaltzaindiaren aurkako edo bere agiriaren kontrako bi lantxo dakazki; abertzaleen gidari izan nai duan errebista batean onelako lanak agertzeak min ematen dit. Onela, nola batuko gera? Euskera gaietan ez da ez politika, ezta politikurik bear: «zapatero a tus zapatos». Euskerak linguistak bear ditu gidaritzat. Zapatero onenak ere babarrunak gaizki egostea ba-liteke, au ez baitu bere alorra. Altube Jauna Euskaltzaindiaren alde irten dala-edo jakin det. Au ikustean, ala omen zioten abertzale batzuk: «Tira, Altubek ola dionean, ez da ain txarra izango». Au abertzale jatorra dala ba-dakite-ta. Azkeneko au arrazoia askorentzat. Politikak erabakiko digu oraindik oiñetakoan neurria ere. Guzira eldu diteke.

Hala ere, dena ez zen ozpina bakarrik gerraondoko berrastapen haietan. Agian orain bezalatsu, orduan ere lumako jendea ibiltzen zen bereziki mokokalari. Arantzazura jende asko joaten zen dantza eta festara, hirietako polizia eta Guardia Zibilen kontrolen ihesi, euskaltzale eta ez euskaltzaleak, errepublikarrak ala komunistak, baina batez ere abertzaleak. Josebaren gutun hau ere hamahiru folio eta erdi luze da, uztailaren 14an hasi eta hurrengo egunetan jarraitua. Bosgarren orrian hau kontatzen du —horrek ere garaiko giroa osatzen baitu—:

Gaur arratsaldean —uztaillak 19, igandea— OARGIkoak izan dira Urbian. OARGI au zera da: Organización atlético-recrea-

tiva de Gipuzkoa. Onek berak Bizkaian JUVENTUS du ize-na. Gipuzkoakoak noizbait euskal-sariketaren bat er jarri du. Bi gazte-talde auetakoak izan dira emen. Eguraldi txarra zute-la-ta, gure pelotalekuan izan dituzte beren jolasak. Bilbao'ko txistulari batek jo, ta dantza egin. Azkenean, aurten Azpei-ti'tik Zumaiara izan duten «marcha regulada»n garaille irten ziraneri kopa bana eman zizkieten. Ba-zan an irrintzirik! Ura umorea! Urrillean ere etortzekotan joan ziran. Eguraldi kax-karrari eskerrak, arratsalde ederra igaro degu.

Hurrengo orriak hemen ere ni «alfabetatzeko» eta euskal gramatika irakastekoak dira («iritzi»ren konjugazioa, etab.), halako batean berriro gai zaurira itzultzeko:

Gogoratzen dezu aspaldiko «Illobira bultzaka» ura? Izan dira erantzunak, bai. Orixe, Zaitegi, Umandi ta A. Iturria kontra, oraindik ez dakigu zeren kontra dauden baiño. Mitxelena (aspalditxotik au da neretzat gaurko euskalaririk jatorrena. Dá-maso Alonso'k esan duanez, onek azaldu duan bezelako doktoradu-tesirik ez omen da, literatura-saillean, Madrillëko Uni-bersidadean, berak an daramazkian urteetan, agertu), Arrue, Villasante, San Martin (Eibar'koa. Onek ekarri zigun Zaitegi'-ren berririk. Onela galdetzen omen zion Zaitegi'k: «Baiña, gi-zona, nola uzten dizkiete onelako artikuluak argitaratzen?») [sic!, frasea bukatzeke]. Orixe'k ixil-kartatxo bat egin zion errebista zuzendaritzari: ofm [frantziskotarrak] dakazkiten ar-tikuluak ez omen ditu irakurtzen. «Izatearen azterketan»i egin dio erantzun agiria, azkenean notatxo bat dualarik; eus-keraz, garbi amorratura jo gabe, 100'etik 98 pentsamendu ederki esan omen ditezke. Bai noski; ez diot ukatuko, ta 100'etik zergatik ez eunak? Euskera ori ulergarria izango litza-ken jakin bear. Emen kokka. «Aitorkizunak» baiño... (Barka-tu. Ixiltzera noa, geiegi esatera ninjoala uste det...).

Leen aitatu dizudan errebista batean [*Alderdi*] onelako lan-txo bat agertu da: «Gure 'Orixe' piztuta». «[...] Arantzazu al-dizkarian A. Villasante'k eta Euskaltzaindi-izenean azaldu di-guten agiri (sasi-agiri, obeto esateko) ori ezkerro, su berriak artuta dabilkigu». Ta geroxego: «Orixe jatorrak bialdu die ao-aundi oiei erantzun zorrotza». Bai, ain zorrotza izan ere! Basarri Jaunak (oni zuzendu zion erantzuna egunerokoan ar-gitara zezala eskatuz), osorik bere egunerokora ezin bial zeza-kean erakoa. Zoritxarrez, ez det Orixe'ren au irakurtzerik izan, baiña Basarri berak A. Villasanteri idatzi zionez, etzan ain egokia. Basarri'k zionez, su oiek ez dira gaztarokoak ta onak, zaartzaroarenak, ta baita, zoritxarreko bere gaixotasu-narenak ere.

1959/60ko Gabonetako zenbakian Intxaustik Bilboko Euskaltzaleen Biltzarreko hitzaldietatik, in *Euskera IV* (1959) kaleraturikoak, Villasanterena eta Txillardegirena laburbiltzen ditu. Intxausti Txillardegik limurturik dauka:

Bai ao-gozagarri ta adimen-garbizaile auxe! Idazle zaarren alako bizitasun bat sumatzen da orrialde auetan; ba-dugu noski *yakinlariok* zer jasorik oraindik gazte, baiña umotua, dan Txillardegiren lumatik (11, 1960, 88).

Bai burutsua Txillardegiren lan au! Ba-da emen zer ikasi ta ausnarturik (Ib., 90).

Intxaustik eta Txillardegik batak bestea aurrez aurre 1960ko urtarrilean Errege ondoren ezagutu du. Hona hemen Intxaustik berak 1960-04-11ko gutunean nola kontatzen duen:

Ilbeltzean [urtarrila] Donosti'ra joan nintzean. Zertara? Ba, aditza argitaratzeko asmotan [...]. Ontarako, baimena iritxi ondoren, Donosti'ra joan nintzean L. Mitxelena'gana; au, ordea, Salamanca'ko Ikastetxe Nagusian uan eta ez nian berarekin egoterik izan. Baiña Txillardegik ezagutu nian. Oso jatorra, oso. Bere izkribuetan oso dogmatiko badirudi ere, itz egitean oso neurtuak zituk baietz eta ezetzak. Leenengo aldiz komentura etorri zitzaidean, ta urrengoan berera joan nintzean. Oso etxe edo bizitza egokia dik, poliki apainduta esan nai nizek. Emaztea ere euskalzale, ezkon-aurrean Donostiko euskal-eskoletan maixtra izana ('andereño' esaten ditek bertako umeak). Orain urtebete exkax bi bizki izan zituztean. Sarre-rako egon-tokian trixtura utsez egindako kuadro beltz batzuk zeuzkatek. Emaztea agurtzera etorri zitzaidanean, ea bereak ziran galdetu nioan, 'Forcada'z izenpetuak baitzeudean, ta bera ere ala dek, baiña Txillardegik zera erantzun zidean: «Ez, gizona, ez, ez dago oraindik ain gaizki, bere anaiarenak dira».

Orain amabi urte asi omen zian euskera ikasten, batxillerra zala-edo, eta ederki itz egiten dik orain. Alkarrekin iru bat ordu egingo genituan eta denbora guzian euskeraz jardun ginen. Bere bizibidea ofizina-lana dala esan zidaan; bera injenieroa danez, teknika lana izango dek noski. Urkixo Mintegian euskal-eskola ere ematen dik, ta baita 'Peritaje Mercantilekoei (ala dala uste diat) Akademiren batean beste zerbait. Galdetu nizkioanak politiki erantzun zizkidean, dan-danetan bat ez banator ere. Benetan, noizbait ikasi dik mutillak.

Igaz aitatu nian bere nobelak [*Peru Leartzako*] irarkolan egon bear dik, berak esan zidanez eta beste nunbaitetik jakin dedanez. Berdeska-berdeska omen dek, azaburu irikia baiño

berdeagoa. Kabaretetik kabaretera dabillen baten istorioa. Berak esan duanez, ez omen da, ala ere, bere idurimen-amets bat, Ferrolen ezagutu zuan baten erretratua baizik. Entzun diadanez, moral-aldetik epaituaz irakur ez diteken oietako eleberria. *Yakin*'en kritikatzko bat egiteko asmoa ba-nian, baiña ixiltzea izango diat onena. Okerrena dana, berak bialtzen bazidak —'Leturia'rena eman baitzidean— kritika orren zai geldituko zaidak bearbada, ta orduan eskutitz ixil batean argi ta garbi esan bearko zioat.

### Gutun berean, egun batzuk geroago (04-22):

Goraxeago aitatu diadan Txillardegirenak irten dik. Atzo ekarri zizkiaten sail bat emengo dendan saltzeko-edo; baiña etzituztek artu, eta diotenez konprenitu omen ditek ezin zitekeana.

Merezi du gogoratzea garai hartako alderdi barregarri samar hauek ere, atrezzoaren parte dira-eta. Ematen du, gizartean ustelkeria politikan, ekonomian, sozialean, erlijioan, erabatekoa denean, alegia, sistema guztia esentzialki korruptua denean, behar bat bezala egoten dela konpentsazioz buruak puritanismo sexualean errefuxiatzeko, ongiaren eta gaizkiaren eskrupulu moral guztiak eremu pribatu horretarakoxe erreserbatuz. Irakurleak gogoratuko du Orixeren atakea Txillardegiren nobela honi (garbi ala mordoiloren atzean badago bi mentalitate, bi kultura ere). Eskerrak, Intxaustik ez du bere burua lakio horretan harrapatzen utzi, eta ez du gutxi egin. Hala, gutun berarekin jarraituz, hurrengo zenbakia, Pazkoaldikoa, Bilbon dagoela, jakinarazten zuen Josebak (*Yakin* litografiatu hura Arantzazun mekanografiatzen zen eta Bilbon bota), eta hilabete barru inguru jasoko genuela Erriberrin; maiatzaren erdi aldera, hortaz. Zenbaki horretan Intxaustik «Txillardegirekin solasean» lagun berriaren iritzien galde-erantzunketa idatzizkoa publikatu du (12, 1960, 81-86). «Aldatu egin da *Yakin* zenbait gauzatan. Euskera batez ere», ziurtatzen du berton Txillardegik.

Historia eta ipi-apa doiak beste toki batzuetan idatzitakoztat utzi eta, distantziatik balioespen orokor bat ematekotan,

baiets daiteke, garbi/mordoilo eztabaidak aldizkariaren traiektorian berehala, eta gerora nabarmenago, efektu ebidenteak izan dituela (hizkuntz ereduaz ez ezik, gaietan eta horien traiektorian, ikastetxe erlijiosoen arteko harremanen gorabeheretan, aldizkariaren aliatu eta etsaien kanbioetan, etab.), baina polemikaren transzendentziak, Intxaustik planteatu duen eran, filosofia eta teologiako estudianteen aldizkari baten barne muga apalak, eta azkenean *Jakin*-en historia ere, askogatik gainditzen zituela, eta hala ulertu dutela partaide guztiek. Bataila gurutzeala izan da gerraosteko norabideentzat. Ez baitzen eztabaida linguistikoa bakarrik. Ideal tradizional ala modernoagoak, mentalitateak, atxikimendu politikoen moduak, abertzaletasunaren zentzua oro har eta kulturaren kontzeptu osoa besarkatzen eta konprometitzen zituen nolabait, esan bezala. Orain hizkuntz ereduaren arazora mugatzeko: historia zuen asmo eta helburu espezifiko baten haizerritari erasotzen zion hor ere Segurako Kixote txikiak. Izan ere, garbi/mordoiloaren arazoa ez da berdina eremu guztietan eta inoiz ez da berdintzat hartu —salbuespentxo marjinalak salbu—, esaterako, a) sermoietan, dotrinan, eliz literatura otoi-tzezko edo onbidezkoan, per se genero lotuagoak ahozko mintzairari; edo ipuinak-eta, herri literatura xume eta poesia modu askotan (non ere garbitasunak ez baitu nahi eta nahi ez problema handirik sortzen); b) literatura jasoagoan, baina mundu rural tradizionalan kokatuan, D. Agirreren eleberri kostunbristetan adibidez, konfliktoa egon baitaiteke egon hor, arrunt literatura ororen printzipiozko problema bat ez ezik, infidelitate bat adieraz dezakeelako obraren izaera kostunbristari (ala ez); edo, c) gaurko biziera modernoa ispilatu gura duen literaturan, K. Mitxelenak galdatau eta Txillardegik praktikatu (aski garbizale!) egiten ari ziren bezala. Mitxelena edo Txillardegiren mordoiloaren defentsak lehen-lehenik «kalekoa» nahi zuten literaturari begiratzen zion: mordoiloa, hor, beldur izan behar ez zaion zerbait zen. Baina, d) mordoiloa zuzenean bilatu egin behar den zerbait da, eta, beraz, erresistentziak zuzenean atakatu behar dituen, euskararen

erabilera zientzian, akademian planteatzen bada, Intxaustik egin duen legez. Kuestionatua hor ez da euskara mordoiloa, baizik euskara garbia; Orixeren garbitasuna da ('filosofo' orde-  
dez 'jakinzale') justifikazioa galdatzen zaiona. H. d., hemen arazoa ez da 'eliza' edo 'bekatu' esatea zilegi al den, ezpada al-  
derantziz, zilegi al den 'zer-dana' edo 'zer-izana' esatea esen-  
tzia adierazteko, 'yainkolari' esatea teologorentzat edo 'yakin-  
kizun' zientziarentzat, Orixen maisuak egiten zuen gisan; eta, arenean, zein zentzubako zentzu duen *Jakin*-en haren ikas-  
le-miresleak 'arazgo' edo 'gaitia' (kausa) asmatzen tematzek, edo 'arimiztia' (psikologia), 'izaten-aburua' (existentzialis-  
moa) eta antzekoak, adibideak biderkatzen ez luzatzeko. In-  
txaustik artez terminologia tekniko guztiaren arazoa planteat-  
zen zuen, eta lumazo batekin gerra aurreko testugintza apu-  
rrarena bezala *Euzko-Gogoa* eta jesuiten eskolaren eredia ab-  
surdo eta suizidatzat kondenatu egiten zuen. Gomutatu beha-  
rrik ez dago, burutapen hauek Krutwig eta Villasantek ere au-  
rretik erabili dituztela teorian. Baina, haiek ez bezala, In-  
txausti praxi baten erdian zegoen: organo bat zeukan eskue-  
tan eta gazte andana langina inguruan; eta haiek baino errea-  
lismo handiagoarekin, abian zegoen ekintza bat eta ekipo bat  
pilotatzen jakin zuen, euskara definitiboki gero UZEI, Elhu-  
yar eta gaurko testugintzaren eredia bihurtuko zenaren bide-  
tik sarrarazteko. *Egan*-ek literatura kaletarra indartu nahi  
zuen; jakintza eta akademia «gora», nolabait esateko (Orixek  
«erri ikasia» deitzen zuenarentzako euskara hori), *Euzko-Go-  
goa*-ren ehizbarrutia zen. Intxaustiren erasoak desegin egin  
du bikoiztasun hori eta *Euzko-Gogoa*-ko eredia aurrerabide-  
rik eta jarraipenik gabe utzi du.

Gaur historiaren alde pertsonalari heldu diogunez gero, zein izan da Josebaren beraren bilakabidea, nola etorri da «Illobira bultzaka»-ko garratzasunera? Denok bezalaxe In-  
txausti garbizaletasunetik dator. «Illobira bultzaka» idatzi eta geroago ere oraindik «Europa izango da gure gaizkatzai-  
lle» bezalakoren bat itzuriko zaio (1960). Begiratu haren ko-  
laborazioak 1956ko *Gure Izarra*-n (kontsultatu ahal izan di-

tudan bakarrak) eta orientaziorik eza eta kaos nabarra sumatzen da —autoalfabetatu behar izan genuen denona—: Krutwig-Villasanteren inspirazioko ‘oikonomia’ edo ‘aikua-ziño’ tankerakoak ez dira guztiz falta; agian Berriatuaren ukitu bat ere igarri daiteke (‘produziño’, ‘proletariatu’, ‘errebolu-ziño’); baina ‘produziño’ itsusi horren ordezkotara bila ‘gauza-eragitea’ asmatzen da, ‘proletariatu’ ordezkotara ‘langilledi’ eta ‘langilletza’, eta ‘burgesi», etab.; Frantziako Iraultza ‘zaplaparta’ eta ‘matxiñada’ da, boterea ‘agintarigoa’, klaseak ‘giza-maillak’; ‘Estatua’ ez da baztertzen, baina ‘jaurerri’ eta ‘laterri’ aldamenean dituela; ‘azkatasuna’ idazten da eta ‘Gogo Guren’; eta aditz sintetikoa maite da oroz gain: ‘dagi’, ‘dagerz’, ‘darakuskizkiete’, ‘darorke’ —euskararen gure maitasun-ean gure aurreiritzien maitasuna ere egoten baitzen—. Erriberrin Josebak sekulako ahalegina egin du euskara ikasten (eta beste batzuei irakasten). Eta erdaraz ikasirikoa euskara garbian eman nahizko «indar neurketan», esperientzia etsigarria egin du, egundoko ahalegina kostatzen zela, eta azkenean inoiz ez zela adierazi beharrekoa doi-doi adieraztera iristen (kontzeptuek euren historia eta nortasuna dizute, eta euskarazko hitz berri batek ez dauka). «Maisuen» euskara garbia irakurriz esperientzia egin du, halaber, edo ez zuela ulertzen; edo inoiz ez zegoela seguru, zuzen ulertu ote zuten; edo ulertzen bazuten, erdarari eskerrak ulertzen zuela, lehendik bazekielako, zer esaten ari ziren; edo haien askalekuak ez zuela asetzen, beti esan behar zuenera hurbiltzen eta inoiz ez ailegatzen (Orixek hala nahita ere ‘agintari’ ez da ‘imperator’, eta ‘noizaldia’ ez da ‘denbora’. Eta Orixek ‘kultura’ hitza ezin pairatu badu ere —«k... zikin hori»—, berak proposatzen dituen ‘giza-lantzea’ edo ‘gizabidea’ alternatiba baliagarriak ez dira; eta gaizki egongo da latinez, baina ongi dago euskaraz). Garbizaletasunarekin, bada, nahiko eskarmentatua eta aspertua bazegoen Erriberriko bere esperimendu filosofikoekin. Baina horrek denak, eta Mitxelena-ren kritikak S. Barandiaranen *Ilias'ena*-ri eta Orixeren *Aitorkizunak*-i, 1956 (Olabiderena, 1959, «Illobira bultzaka» baino ge-

roagokoa da), eta Villasante, Txillardegi, Irigoyenen arrazoiek, gehienez ere bide hori okerra zela ikasarazi eta bera mordoilozale bilakatzeraren eraman izango zuten, eta kito.

«Illobira bultzaka» ez da sortu eredu garbizalearen nekarri eta antzuaren esperientzia hutsetik, ezpada sinismendu eta konklusio irmotik, bide hori (ez soilik alferrikako zailtasunena, ihesbideena, poxeluena, zehaztugabetasunarena, etab., baizik eta) zuzen-zuzen euskararen heriotzarena zela: kultura modernoaren posibilitatea ukatu egiten ziolako euskarari. Eta kultura modernorik gabe hizkuntzaren biziraupenik ez. Garbia nahi dugu euskara: h. d., iraganean, baserrian gordea. Hala, alde batetik Franco euskara akabatu nahita ahaleginetan baldin badabil, bestetik geu ari gara eginahaletan euskarari «hilobira bultzaka». Diktaturak balio oro debekatu egiten dio gizartean, eta bestetik gizarterako balio gabeko bihurtzen dugu geuk. Intxaustiren artikulua euskararen agoniaren angustiatik idatzia dago. Euskaltzale gazteari sostean argia egin zaio buruan, garbi ala mordoilo ez dela hobespen literario edo linguistikoen gorabehera, baina euskararen hil ala bizikoa. Eta nik uste, sentsazio hau Intxausti baitan piztarazi duena, Txillardegiren erasoa Bastarririkari izan da —euskararen hilketari horko erreferentziak errepikatzen dira Josebaren artikuluan—. Bere «konbertsio» antzeko honen eta heriotza angustiaren interpretazio hau agertu nion batean, Josebak anekdota bat kontatu zidan: nola behin Forun —hamabost hamasei urte izango zuen, latinitate ikasketak amaitzen—, paseatzeko orduan, Aita Inspektoreak bota omen zion: «zer zabiltzate hor euskararekin! Euskara hiltzera dihoa!». Hori, berak estimatzen zuen eta hark bera estimatzen zuela bazekien maisu batek esanda, prestigioko pertsona, Erroman estudiantua, euskalduna bera, «sekulako mina eman zidan!». Euskararen heriotzaren larrimina ez da poetena bakarrik izan. Euskara abandonatu duen askorena ere izan da. Gogoratzen badugu, Donostiako andrearentzat esate baterako, mordoiloak ere horixe egiten zuela —euskara hil—, barrunda genezake euskararen herio-



tzaren angustia hori —«el sentimiento trágico de la vida», existentzialismoa— zer izan den momentu hartan.

60ko uda partea, oporretan, Axularren *Gero* makinaz koptatzen pasa genuen beste bi lagunek eta hirurok Erriberri urrunean, 1964an Villasantek Bartzelonan J. Flors Editorea baitan egin duen argitalpen elebidunerako. Ariketa preziatu bat niretzat, literatura klasikoarekin eta euskara mordoiloaren ederrarekin harreman zuzenekoan bizitzeko, eta konplexu tontoak eranzten hasteko. Udagoenerako Arantzazura aldatu ginen; eta irailean aurreneko aldiz jakinlarien bilera batean parte hartu nuen. Bilera hauen historian bigarren aroa hasten zen.

## Bilerak eta euren gaiak: bigarren aldia

Bileren historian 1959koa seinalagarria da, zuzendaritza berria, urte osoa norabide berriaren alde lanean eta gatazkan eman eta gero, galtzaile atera delako batzarreko eztabaida eta bozketan.

Gure jardunaldi beroena eta luzeena —idazten du kronistak— betikoa izan zan, zuk ondo dakizuna, igaz ere ondo astindua izan baitzan [...]. Igazko bereizketa bera aurten ere: batetik irakurleari, bestetik euskerari begiratzen ziotenak: eta nork zeñi begiratu, ala pentsatu (10, 1959, 81).

Korapilo gordiarra mozteko, erabaki haxe hartu du hogeit laguneko batzarrak (Diozesietakoak zortzi —lau apaiz gazte eta lau seminarista—, frantziskotarrak bost, jesuitak bi, sakramentinoak bi, laterandarrak bi, beneditarra bat):

gaurrarte Yakin-en agertu izan dan kultur-terminoloji osoa bildu eta Orixe-ri bidaltzea. Orixe jaunaren lana —euskeraren eta euskal gaztediaren izenean arren eta arren eskatzen dioguna— auxe litzake: itz oien ordezkioak euskeraz eman, ondoan au adieraziz: berak edo besteren batek asmatua, edo erriak lendanik erabillia dan, eta euskal itz orri iztegi unibersalean dagokiona erabilliko luken (Ib., 82; Aita Onaindiaren iradokizuna zen hori, cfr. 7, 1958, 110).

Proposamen hau aurkeztu eta bozkarazi duen alderdiak, lehenengo momentuan aurkaria armarik gabe uztea lortu du

zalantzarik gabe (Orixe autoritate sakratua zen), baina bigarren momentuan Orixe bera utzi du nabarmentzioan (ik. Orixeren erantzuna, 14, 1961, 30-34).

Hala ere, zuzendaritza berriak 59ko bileran batzarrak hiru puntu garrantzizko onartzea erdietsi du: 1) hileroko agerkari txiki bat sortzea («Jakintxo»), aldizkaria arintzeko hizkuntzaren inguruko eztabaidak hara bideratuz; 2) garbi ala mordoilo eztabaida irtenbiderik gabeko zaku-kalea gertatzen ari baitzen, hurrengo bilerak beste gai batzuen inguruan antolatzea («urtean barrena pentsatuko dugu nola eta noiz billera ori egin»); 3) inkesta bat egitea irakurleen iritzia bila, besteren artean galdera hau ere egiten zela: «teknika eta kultura itzak euskeraz sortu bear ditugu, edo kanpokoak ere onartu?». Anekdotak gisa gomuta daiteke, joera berriaren etsai amorratuena (kalean, ez jakinlarien artean), beti ez eleganteak, EAJ-PNVko edo inguruko jendea izan dela. Jose Antonio Agirre lehendakariak, ordea, honela erantzun dio inkestari bere eskuko letraz: «Teknika ta [kultura itzak] kanpokoak artu bear dira nere ustez».

Bere asmo mordoiloekin Intxaustik *Jakin*-en barruan edo behintzat jakinlarien batzarrean oraingoz porrot egin badu, kanpotik ordaintxo bat irabazi du: Mitxelena, Lekuona, S. Onaindia, A. Iturria eta Txillardegik osaturiko epaimahai batek Josebaren «Schopenhauer edo zorionik-eza» mordoiloa hautatu du 1960 urteko idazlanik onentzat (14, 1961, 32).

Propioki 1959ko bilera hori lehen aldian tokatzen da, garbi/mordoilo auzien aroan. 1957tik 1960ra, Intxaustik eta Enbeitak lortu dute, *Jakin*-eko bilerak partaideen barne-hustuketa eta eztabaida egunak euskarari buruz izatetik, euskaraz zeinahi gairen estudiogune edo mintegi izatera ekartzea, bileren historian fase berri bat irekiz.

1960an, «beste urteetan baino programa serioagoa eraman» guran, bilerako gaiak aurretik prestaturiko hitzaldiak izan ziren, hizlari gomitatuenak, eta elkarrizketak gai horiei lotu zitzaizkien. Magnetofono bidez entzun ziren A. Omaetxebarriaren eta P. Lafitterren hitzaldiak («Necesidad del es-

tudio del euskera», «Herria astekariaren istorioa eta egungo bizitza»). Aita Onaindia «Apaiza eta euskera» gaiaz mintzatu zen, A. Garaialde Arrasate eta Leniz bailarako euskararen egoeraz eta euskararen aldeko jardueren esperientziaz. Garbi ala mordoilo auziari gagozkiola, «etzen inor ain gai sasian eskuak sartzen oldartu. Denok genekien alperrikakoa litzekela» (13, 1960, 72). Hurrengo bileretako ibilbidea formalizatzeke arautegi bat onartu zen hemezortzi «erabaki» edo paragrafotakoa. Bi erabaki seinagarri: lehenengo aldiz bilera hauetara laikoak gomitatzea onartzen da. Bestetik, garaiak halakoak ziren, bileretako partaidetza ez zegoen gehiegi irekitzerik; 8. erabakiak honela zioen: «[...] Gure ideiak libertatez eta bildurgabe ager ditzagun, zera erabakitzen da: entzundakoak bear den neurrian ixildu ta espiritu zabalez entzun ez dezakenik ez deitzea», alegia, ispi edo salatari posibleak. Araudi berriak hala xedatzen zuenez, hurrengo bilerako gaia deliberatu da: Filosofiaren Kondaira, Antzinate eta Erdi Aroa —testugintza hastapen bat—.

1961ean hasi eta, aldizkariak aurpegi berria erakusten du: inprimerian ateratzen da; gaien gaurkotasuna, garaunketa arina eta euskara erraza bilatzen da. Euskararen eredia eta kultur aldizkariaren eredia (kulturarekin gaien eremuren bat baino gehiago trataera jaso ulertuz), arazo biak elkarri lotuak zeuden, eta biak bakarra bezala moldabidetu dira: *Jakin*-ek publiko moderno bat bilatzen duen euskarazko kultur aldizkari modernoa izan gura du: eta, horretarako, euskara modernoaren beharra ondorioz inposatuko da.

Urte horretan alferrik bilatuko duzu bileraren kronika. Inprimategian hasi eta bi zenbaki soilik atera orduko, administrazioak aldizkaria itxi egin du Gabonetakoa irten baino lehen (hemen hurrenker horrela seinalatzen jarraitzeko, nahiz agerraldien periodizazio modu erlijioso edo eskolar hori, aurreneko zenbakietakoa, orain baztertua dagoen). Irakurleak aurkituko duena, seguru asko ustekabea —ia simbolikoa—, debekuaren aurreko azken zenbakiaren azken orrian aurkitu ere, Arestiren poesiatxo bat da (*Jakin*-ek ez

zuen poesiarik argitaratzen), marko beltz lodi batean enmarkatua, autoreak presio itzelarekin exijitu zuen moduan: «Azken poema. / Kantsazioaren aitzakiarekin / nire gradotik / dimisioa / presentatzen dudalarik, / beste enplego / nekagarriago bat / onartzen dut. / Gabriel Aresti eta Segurola». Gabrielek, bere haserre apokaliptiko haietako batean, poesiarik sekula gehiago ez idazteko juramentu eta promesa guztiekin, bere buruari poeta bezala ipini zion eskela da. Hori «lorailadagonilla»ko zenbakian (maiatza-abuztua). Irailean ohiko bilera egin zen aurreko urtean erabakitako gaiarekin: Filosofiaren Kondaira, Antzinate eta Erdi Aroa. Proiektuan aurreikusita zegoenez, Zaitegik egin behar zuen Platon, Andimak Aristoteles, Orixek Suarez. (Beraz, haserreak haserre, euskaltzaleak garai hartan harremanak eta elkarlana jarraitzeko gauza ziren). Jakina, haiek ezin egon izan dira bileran. Baina euren lanok egin ote dituzte? Baztarrika'tar Daniel estudiante jesuitaren gutun batetik badakigu, Orixek behintzat berrari esleituriko lana egiteko asmoa zuela eta Loiolako filosofia irakasle bati Suarez buruz bibliografia eskatu ere egin ziola (1960-10-08). Handik aurrerakorik nik neuk ez dakit. Dirudienez, egindako lan dexente galdu egin da, edo gaur ez dugu ezagutzen. Bileretako egitarauak agintzen duena zehatza da orduz ordu eta jarraitua gaietan: presokratikoak, Sokrates (Platon eta Aristoteles ez), Estoa, Epikuro; eta berdin Erdi Aroa Ernazimenturaino. Beraz, gai horiek denak egin dira egin eta bileran irakurri ere. Baina lanok Seminarioetako azken urteetako estudiantetek egin dituzte; handik gutxira ikasle horiek Seminarioak utzi eta auskalo bakoitza nondik zebilen mundurik hara. 1965ean P. Zabaletak *Filosofiaren Kondaira I* liburuan beste gabe «eskuetan dauzkagun lanak» argitara zituen, h. d., Antzinateko filosofia guztitik Sokrates aurrekoak soilik (K. Oiarbide eta P. Iztueta) eta Erdi Arotik Lehen Eskolastika (E. Muxika) besterik ez da ematen, bi lan bakarrik. Aldiz, Filosofia Modernoko beste bi lan eransten da (horiek ez baitira ezein bileretan eztabaidatu): B. Espinoza (I. Ajuriagojeaskoa) eta H. Bergson (E. Salaberry). Filoso-

fia Modernorako bazeuden beste batzuk aurreikusiak: hala Descartes (A. Solaguren, filosofiako irakaslea Erriberrin), baina hurrengo fase baterako. Erdi Arokoak ostera eginak zeuden eta arrazoiren bategatik ez dira bolumen horretan jaso: San Agustin (Uribe laterandarra), Bonabentura (Intxausti), Eckhart (Garrido) eta Ockham (Azurmendi), ez dakit zeinek Eskoto (Andonegi?). Berdin Antzinakotik Sokrates (J. A. Orbegozo), eta Estoa eta epikurotarrak (pasiotarrek orobat). Menturaz horietako batzuk honezkero galduak dira, tamala baita, agian altxor ikusgarria ez bazen ere hala galdua. Jakinlariek berek ezagutzen zituzten euren mugak. Lankideei gomendio batek honela zioen: «komeni litzake lanari azken ikutua eman aurretik, erderaratu ta espezialista on bati erakustea, bere eritzia eman dezan» (1960-12-14, Jakin Artxiboa). Eredu formal gisa J. Hirschbergerren Filosofiaren Historia proposatzen zen. Garbi-mordoilo kontuan irizpide tradizionala segitu da:

itzak, zorioneko itzak... Gure gaurko jokabidea: bakoitzak bere erara egin dezala, gero guzion artean-edo, emango al diogu bear luken batasuna. Dana dala: lanaren ondoan, orri batean idatzita, bialduko dizkiguzute itz oiek, eztabaidagai edo jakingarri izan ditezkenak.

Berriz ere garaia gogoratzeko: Seminarioetan euskaltzale taldetxoak gogoz ari dira, baina giro nagusia franko nazional-katolikoa da ezinbestean. Filosofiako historia programatu denean, Kongregazio oso ospetsu bateko ikastetxean —*Jakin*-en handik betidanik kolaborazioak publikatu dituzten arren— estudiante euskaltzaleek «ez konprometitzea» erabaki dute, eta hauxe izan da arrazoietakoa bat: «langintza orretan ari gerala balekitez, irakasleek agian fitxatu egingo ginduzkete» (1960-10-08). Edozein Seminariotan zeuden irakasleak, toleratuko zintuzketenak edo fitxatu zintzaketenak. Eta ordena erlijioso batean euskaltzale bezala fitxatua egoteak esan gura zuen, karrera amaitu eta Cochabamban misiolari buka zenezakeela batere bokaziorik gabe. Kontzilia ez da hasi oraindik.

Horregatik piska bat xokatzen du hurrengo bilerarako (1962) hautatu den gaiak: Iraultza, edo hobeto esan, «Asaldakuntza edo erreboluzioa gaurko munduan». Oraindik ez da 'iraultza' esaten ('akeita'gatik norbaitek esan omen zue-  
nez, «munduan diren hizkuntzetan euskara izango da kafea-  
ri kafea esaten ez dion bakarra» —ik. 11, 1960, 87—; eta erreboluzioari ez erreboluzioa, gehi genezake hurrean): bileraren prestaketako paperetan idatzi idazten da 'erreboluzioa' (-ziua), baina joera gehiago nabaritzen da 'asaldakuntza'ra (eta asaldaria). (Bakarrik, «emakumeen asaldakuntza edo 'emancipación' dalako hori» bezalako bat topatzen duzu gero gutun horietakoxe batean). Arazoak ez ziren lexikalak bakarrik. Jakinlari gazteen prestakuntza teorikoa eta eliz ikastetxeetako bibliotekak ere apenas ziren egokienak gaurkotasan amorratuko gaii ekiteko. Rikardo Arregik, adibidez, bibliografiarako Maritain, Yurre, Berdiaieff gomendatzen zituen. Gogoratzen naiz, iraultzaren kontzeptua lantzeko ni neu Ortega y Gassetez baliatu nintzela —logikoa denez, Arestiri ez zitzaion asko gustatu lan hura (gu gara be-  
launaldi batekoak, filosofia modernoaren munduko gailur-  
rak Ortega eta Unamuno uste izan dituenak)—. Hala ikusten da, report gehienak boluntarismo handiarekin Arantzazukook egin genituela (bederatzitatik bost); beneditar, pasiotar eta sakramentinoek bana; Diozesitarrik eta jesuitarik inor ez da egon bilera honetan. Rikardo Arregi (Donostia-  
ko Seminarioa) «bete-bete lan egiteko gogoz» ageri da behin eta berriz prestaketa aroan, baina gero kolaboratzeko ezindua aurkitu da. Datu hau ohartzekoa da. *Jakin*-ek ja ez du seminaristen barne aldizkari kolektibo bat izan nahi. Euskara mordoilo eta gai moderno eta politikoagoetan murgildu ahala, *Jakin*-en inguru naturala izan dena, Seminario eta ikastetxe erlijiosoetakoa, kaskatzen hasi dela, ematen du. Lehenbizikoz laiko batek paper inportante bat jokatzen du jakinlarien bilera batean: Gurutz Ansola izan da hori («Erri erdi-aziak ta beren ekonomia»). *Europa* liburuaren hitzaurrean erreboluzioari buruzko bilerako lanok aurki pu-

blikatuko direla, iragartzen da, baina orduan ez zen egin, eta orain galdutzat eman litezke.

Europa 1963ko bilerako gaia izan da. Kasu honetan programak iragarritako txosten gehienak argitaratuak daude aipatu liburuan: lankideen artean Ansola, Rikardo Arregi, Txomin Izagirre, Bitor Kapanaga, E. Salaberry aurkitzen dira, gehi beste bost Arantzazuko; eta liburuan falta dira K. Santamariarena tolerantziaz, A. Lekuonarena nekazaritzaren etorkizunaz, eta Gabriel Moral eta Gabriel Arestirena: «Europaren alde ala Europaren aurka? Euskaldun abertzaleak nola pentsatu behar duen». Gai berriekin jende berria inguratu da *Jakin*-era. Txostengile bakoitzak gidoi moduko bat aurkezten zuen galdera batzuekin, partaideen artean aurretik banatzeko, haria-edo izan behar zuena konferentziaren ondoko eleketan. Hona hemen autoreek berek aurkeztu dituzten gidoitxoen adibide batzuk:

G. ANSOLA: *Erritasuna ta Europartasuna*.

1. Nor da, gaur, Euskal-Errietan Europazale egiazkoa?
2. Europazaleetasunak ba ahal du zerikusirik erritasunarekin, euskalerritartasunarekin?
3. Zeñen eskuetan dago, gaur eta urrengo urteetan, erabakiak artzea Europara sartu edo kanpoan gelditzeko?
4. Kapitalismoaren interesak —euskal kapitalismoarenak— nora jotzen dute?
5. Kapitalismoak bagaramazki Europara, langilleen jokabidea nolakoa izango da eta nolakoa uste duzu, zure ustez, bear lukeela izan.

R. ARREGI: *Politika Europa Alkartuan*.

1. Nolatan dago demokrazia une ontan Europa ortan? Partiduekiko demokrazia? Frantzian gertatzen danak zerbait erakusten al digu?
2. Kristau demokraziak zertara jo bear du?
3. Sozialistak nora dijoazte, ezkerrera ala eskubira?
4. Komunismoa indartsu? Zergatik?

J. L. DAVANT: *Europa eta Ipar Euskal-Erria*.

1. Europa, zergatik eta zertako? Zer abantail aurki dezazke Ipar Euskal-Erriak?
2. Europa, noiz? Batasuna egin artean, zertaratuko da emengo Euskal-Erria?
3. Europa, norekin? Batasun ortan sartuko ote da España?
4. Europa nola? Estaduen bidez? Auiek nahi ote dute Euro-

paren egiazko batasuna? Beste norekin?

5. Zoin Europa? Ez ote du, orai Frantzian nahi ta nahi ez jasaiten dugun zentralismoa Europaren batasunak azkartuko?

G. MORAL - G. ARESTI: *Europaren alde ala Europaren aurka? Euskaldun abertzaleak nola pentsatu behar duen.*

1. Euskadiko historiaren notizia llaburra.

2. Hiru munduak.

3. Europa eta beste bi munduak.

4. Beste bi munduak elkarren artean.

5. Europa eta Euskadia.

6. Komunismoa eta Euskadia.

7. Euskadia Hirugarren Munduan.

(Gabriel Moral abertzalea —Arestiren lagun mina— 1961eko otsailetik uztaileira atxilotua eta bortizki torturatua izan zen, ik. Arestiren gutunak. Ez zen egon jakinlarien bileran). Programatik at, Gotzon Garatek Innsbrucketik lan bat bidali zuen «Irakaskuntza ta Europa Alkartua» gaiaz, ez dakit zergatik liburuan jaso ez dagoena.

Bilera gaiok garaiko giroan ulertu behar dira, bai horiek hautatzeko arrazoia, baina baita hautuaren esanahia ere. Iraultzak, zalantza gabe, momentuko deskolonizazio giroan, esanahia bizi-bizia zuen eta kontzeptualki lazoa, Marokoren independentziatik Kubako iraultzaraino gutxi gorabehera. Nazio arazo eta klase arazoaren auzia piztua zegoena, Europari buruzko gidoitxo batzuetan suma daiteke. Europa denaz bezainbatean, errealitate eta ikur konplexua zen hori. Batetik, Europa berriaren itxaropena zen, eta Euskal Herriak hor Frantzia eta Espainia modernoetan aurkitu ezin izandako leku bat jarrugi ahal izateko esperantza. Baina, sinplekiago, Ez-Espainia ere adierazten zuen; eta, bereziki, askatasun politikoa, demokrazia; edo soilago, modernitatea, kultura, eta hein honetan Euskal Herri tradizionalaren aldatzea ere bai. Joseba Intxaustik 1960an «Euskal Herri'tik Europa'ra» idatzi du, beldurrak uxatu («Europa-kulturak izaturik gauzka») eta kultura europarrera, hots, modernitatera deika.

Euskaldunok, zenbait gauzetan, alako atzera-gure bat ez ote dugun pentsatzen dut askotan. Gere buruak nun gordeko gabiltz [...], kanpoko munduaren bildur gera. Maizegi zu-



zentzen gaitu kontzientzipeco joera ezezagun batek: «Utik atzerri oiek». Trintxeraz barruan bizi gera (*Yakin'en geigarri* I/3-4, 1960, 1).

Euskara eta euskal kultura baserrietan gorde eta babestu nahi dugu («baserria da gure olerkitxoan ametsa edo gure nobelaen irudi joria»), baina «baserria ez da euskal-geroaren zuzendari izango» (Ib., 2). Aitzitik, gure irtenbide bakarra baserria laga eta salbazioa Europako kulturen bilatzean dago (euskarazko Unibertsitatean!). «Etorkizunak dilema bildur-garri bat dakarkigu: Europarekin garaipenera edo bera gabe ondamendira». Modernitatea, ordea, negatiboki ere irakur daiteke; eta euskal munduan badaude hala irakurtzen dutenak, batez ere moralki, eta are metafisikoki. «Europar [berdin: moderno!] biurtu nai gaitute», «ez dugu emen olakorik bear», aztoratu da Orixe *Peru Leartza'ko*-rekin eskandalizaturik (*Yakin-en geigarri* I/5-6, 1960, 7). Orixe, Bergsonen aurka (Intxaustik berriki Bergsoni buruz sinpatiazko tonuan idatzia dizu!) eta Txillardegiren aurka, Europa moderno horren guztiaren aurka asaldatu da, horrek bere us-tean gure moralak, erlijioak, kultura guztia fundamentu metafisiko tinkorik gabe —hots, Aristoteles gabe— uzten baitu. «Aristotelesen kontrakoa naizela esateak ez dit lotsarik bate-re ematen», osteratu dio Txillardegik (14, 1961, 53). Bestetik, baina, euskaltzale kritiko eta abertzale berrien idealek erraz talka egin zezaketen Europako balio konformistekin eta razionalitate utilitaristarekin. Horrela, buruak frankismo azpitik Europara atera eta, belaunaldi berri honentzat errealitate anbigua gertatu da hori: gazte batzuen Europa, existentzialista kritikoa bakarrik izango da, edo marxista geroxeago; edo-ta Europa bera, tekniko eta materialista, arbuaiatua izango da pentsamendu asiarraren alde (Txillardegi). Txillardegiren aurka K. Mitxelenak zientzia eta teknikaren Europa hori defendatu egingo du. J. Intxaustik Europa modernoa eta horren «adimen-gidaritza» mundu guzira zabaldua dela, Asiara ere bai (Txina eta Japon), eta etorkizunari begira ez dagoela beste aterik, oharrarazi du (*Europa*, 1965, 133-159).

Edonola ere, iraultza arakatu ala Europa bilatu, ala hori ukatu ere, Euskal Herri tradizionala behin betiko gainditu eta kultura modernoan, edo are modernoago batean (budismoan), murgildu nahi da.

## Bileren krisitik aldizkariaren krisira

Gaurko irakurleari ulergaitza egingo zaio apika, baina urteotako R. Arregi, G. Aresti, etab. gogoratzen baditugu, 60ko hamarkadan Euskal Herrian ezagutu diren bi inpakto intelektual erabakigarriak —68ko maiatz beti aipatu hori baino lehen—, esan liteke, aurrena Kontzilioa eta Joanes XXIII.a (Aresti: «Erroman nik ezagutu dudan on bakarra»), eta gero «marxismoa» izan zirela (kakotx artean idatzia, hala moduz ulerturiko marxismo bat zelako —eboluzioa Kontziliotik Marxismora joan da—), biak askapen doktrina edo fenomeno salbatzaile bezala gazteek bizituak. Gabriel Arestik Joanes XXIII.ari Arantzazun omenaldi bat egitea proposatu zuen («mundu guztiaren gorazarre merezitu du, baina ez euskaltzaleona»: X, 155), eta haren bi entziklikak, «Mater et Magistra» eta «Pacem in Terris», berak euskaratzea eskaini du. Egin-eginean, 1964ko bilerako gaia «Pacem in Terris» izan zen. Jakinlariei bakoitzak bere ekarpenaren gidoitxoia Aste Santua baino lehen bidali behar zuela gogoratzeko notatxoa, Zuzendaritzak pozaren pozez ixten zuen: «*JAKIN aldizkariarentzat iritsi da baimena*. Laister argitaratuko dugu lenengo alea». Maiatzean agertu da hori, oso-osorik Arantzazuko lankideek osatua; beste ikastetxe erlijiosoen partaidetzarik ez. Debeku urteetan harremanak urritu egin dira zalantza gabe; hasieretako interesa ere beharbada gutxitu egin da Seminarioetan kurtso berriekin. Bitartean Etxaide, Orixe, Altube hilak dira. Horiei omenaldi egiten die atarikoak (F. Mendizabalek sinatua):

Ain zuzen euskaldun aundi oietxen asmoak erori dira *Jakin*-en soroan aziak antzo, eta emen erneko dira berriz ere ta emen elduko, euskalzale jator oien oroigarririk bikaiñena bezela: euren euskera-miña, ta euren euskera gaurreguneratzeko jorran bizia, ta euren «euskal-erri baten arnasa mamitzeko»

alegiñak. Asmo ta elburu onetxek artu gaitu gaurko jakinlariok ere eta auxe eskeiñi diegu maixu maite biotzeko oiei omenik eta agurrik beroena bezela (16, 1964, 2).

Berrero, «Pacem in Terris»-en bilerako lanak ez dira publikatu, artxiboan ere bat bakarra ez dago. Bilerako hitzaldi bat, Jaxinto F. Setienena, aldizkarian publikatu da gero (18, 1965, 3-8). Arrazoia pentsatzen hasita, agian ohitura nagusitu zen, entzuleentzako gidoitxoaz gain hizlariak eskema zabalago bat beretzat bakarrik paratzekoa, haren adigurian libreki mintzatu ahal izateko, konferentziako testua inprimategirako pronto erredaktatzeke. Izan ere, 62ko bileran erabakia hartu zen eta 63tik aurrera praktikan jarri, «bakoitzak lan osoa irakurri ez baiño beronen laburpena presentatu bearko zuela, bestela irakurtzen joaten zaigula kasi denpora guztia» (Zuzendaritzaren gutuna, data gabe, 1963, Jakin Artxiboan). Bileretako lan diziplina galduz joan zen beraz.

1965eko gaia Agintaritza zen (Gobernua). Jakinlarien diziplina ez zen deus hobetu antza, Arantzazutik zuzendariak haserre idazten zien:

[...] Itza eman eta ez betetzen ere nunbaiten ikasi dugu. Gauza asko agindu genitun udazkenean egin genuen billerakoan. Alere, oraindik bi lagunek bakarrik bete dute an esana. Beste danak mutu.

Jakinlariak ez bakoitzak bere gaia aukeratu, ez gidoitxoia bidali, egin dute. Euskaldunak hitzetan luze eta eginetan motz bihurtutzat salatzen ditu.

Au dena jarri nai dut gure billerak antzuak ez ote diran adierazteko. An artzen diren erabakiak denon artean artzen ditugu, ta gero gutxi batzuek bakarrik betetzen dituzte [...]. Frutuak auek baditugu, merezi lukela uste dut dena bertan behera uztea (data gabe, Jakin Artxiboa).

Bilera honetako lanetatik ere bat bakarra salbatu da antza: X. Mendigurenen «Sozialismua ta agintaritza» (20, 1965, 51-58).

1966an bilerarik ez da egin; 67koa «likidazioarena» izango da. Hor bukatu da jakinlarien bileren historiartxoia.

Analisi sakonetan sartu gabe ere, fenomeno batzuk nabariak dira. a) *Jakin*-en barne prozesuaren aldetik: bileren fun-

tzionaketak berak dinamika galdu du. Aldizkarian, ostera, gaurkotasun sozial eta politikoaren bilaketarekin laikoen partzuergoa handituz joan da, ikastetxe erlijiosoetako lankideen kaltetan; teologia edo filosofiako gaien trataerak berak jada ez du eskolan erdaraz ikasitakoaren euskarazko garaunketa edo itzulpena izan gura. Hots, aldizkaria ez da jada estudianteen probaleku bat, jendaurrea irabazteko uzia dauka, beste formazio eta heldutasun bat eskatzen du, exijentea da. Beharbada «gehiegizkoa» bilakatua dago (laikoegia, etab.), barnetegiko isilean estudiatu eta nirvana teologikoan euren baitan bilduak bizi besterik gura ez duten ikasle gazte batzuentzat. b) *Jakin*-en kanpoko prozesuen aldetik: bitartean ordena erlijioso bakoitzak bere ikastetxeko barne aldizkaria dizu, hala nola, sakramentinoek *Arnas* (1959-67), pasiotarrek *Laiaketan* (1959-69), laterandarrek *Erein* (1960-66), karmeldarrek *Gogoz* (1965-68). Horiek aparte, karmeldarrek badi-tuzte *Karmel* eta *Olerti*, beneditarrek *Jaunaren Deia*, etab., idatzi zaleei plaza eskaintzeko. Beraz, jadagoneko jendea ez zegoen derrigor Arantzazura begira. c) Orokorki euskararen mundua aldatua dago: *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* indarrean, Arestiren *Harri eta herri*, etab. Euskal mundutxoan taldeak asko ugaritu dira eta espazioen berrajustapen bat ari da entseatzen. Hala, zenbat laikoago eta politikoago bihurtuz dihoan mundu hori, erreakzioz ikastetxe erlijiosoetan «espiritualismora» itzulera bat bezala nabari da: 1965ean «Euskal Herriko Apaizgaiak» mugimendua sortu da, Donostiako Seminarioan zentroarekin, ikastetxe diozesitar eta erlijioso guztietako ikasleen bilgune izateko (Arantzazukoak ere barne dira), eta —*Jakin*-en hastean seminaristen asmoa izan zen legez, baina gero baztertua gelditu— apaizgaien ikasketetako traktatu filosofiko eta teologikoak euskaraz emateko xedeaz (Antropologia, Eklesiologia, Kristologia, etab.). Iraupen gutxiko mugimendua izan da —bi urte eskas—, berehalaxe Seminarioen hustuketa masiboak ekin baitio Euskal Herrian. 1967an I. Zabaleta eta J. Gaztañagaren *Jainkoaren erria eta Eliz misterioa* argitara da.

Sortu eta hamar urtera krisiak harrapatu du aldizkaria. «*Jakin* ez da izan behar lukeana», *Jakin* problema da: 22. zenbakiko editorialean (1966), «Zuzendaritza billa» izenburuaz, gehiago desiratzeorik uzten ez duen deblautasunarekin deklaritzen du Zuzendaritzak («‘Zuzendaritza’ deitzezirik badago gure kasoan...») bere, krisia ez ezik, etsipen erabatekoa. Iruzkina handirik ez du behar, aski izango da editorial horretako pasarte erremarkagarrientxo batzuk aldatzea:

Mintza gaitzen klaroki. Gure ustez, *Jakin*-ek ez du izan benetako zuzendaritzarik inprentan ateratzen hasi zanetik. Orain hiru urte zen hori! Esateko, herriarekin bizitzen has-tean bertan gelditu zen *Jakin* umerzurtz.

Zergaitik?

Egin dezagun historia laburzki.

*Jakin*-ek ez zituen gaurko xede berdiñak bere sortze eta lehenen pausoetan. Zenbaki haien azalean ikus ditekenez, «teologilarien yardunak» zebilzkian hasiera hartan. 1956-an jaio zanetik eboluzio bizian joan bada ere, 1964-an emango du *Jakin*-ek salto berezia.

Urte pare batez «etxean» [debekatua] egon beharrak zearo berritzen du aldizkaria. Orain arteño, Arantzazu-ko teologi-ixtudianteak osatu dute *Jakin*, Euskal-Herriko beste apaiz eta praille ikastetxeetako laguntzarekin. Aurrerantzean, ordea, «euskal gazteriaren» aldizkari izanen da. Filosofi eta teologi yardun gorenak erabat baztertu gabe, Herriaren izpirituz eta kulturaz kezkatzen hasten da. Teologi eta filosofi utsak ez dio deus esaten herriari. Ta laikoek ongi ikusten dute aldaketa hau. Horregaitik, gero eta ugariago dira *Jakin*-en agertzen diran laikoen idazkiak. Pentsakera oroek dute leku errebistan.

Aldizkariaren mami eta jomugak aldatzean, bidezko zen, noski, zuzendaritza ere, pittin bat bederik, berritzea. Baiña... lehengo eskuetan jarraitzen du, halabeharrez-edo.

Xinpleki esanda, hori uste dugu izan dela gure aldizkariaren oraindañoko akats nagusia [...].

Praille eta apaizgaiek bete zuten beren eginbeharra estriñako etapa hartan. Ta aspertu gera oraintxe esaten *Jakin* ez dela prailleen aldizkari bat gehiago. Areago, konbentziturik gaude, *Arantzazutasuna* ta praille usaia soiñean dituen bitartean, *Jakin* ez dela izango euskal gazteriaren kaset. Garbi, ezta? [...]

Bestalde, ez pentsa praille ixtudianteok aparteko interesik daukagunik gure posibletasunen goitik dagon errebista bat zuzentzeko. Gaurdaño, burukomiñak eta eragozpenak baka-rrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizi-moldean.

Arantzazuko Zuzendaritzak, turbustua bere espiritualitatean, salmentan baino ere, oparitan eskaintzen duela aldizkaria, esango genuke, nahi duenak beretzat har dezan. Hau dena ulertzeko, kontu handikoa da garaiko giroa ez ahaztea, baina ez gara luzatuko: abertzaleak euren artean haserre (EAJ eta ETak lehen aldiz Aberri Egunerako deia toki diferentetara egin dute), mugimendu berriak elkarrekin lehia gorrian (abertzaleak, espainolistak), etab.

1967ko bilera —azkenekoa— ez da egin Arantzazun, Oñatiko Bidaurretan baino. Hamar urte lehenago bezalaxe, gaia aldizkaria bera da berriro eta horren birrantolaketa eztabaida. Bitartean bide asko ibili da, diferentzia nabarmena da: jakinlarien estreinako bileretan aldizkariaren ereduaren eztabaida hizkuntz ereduaren eztabaidan bokaleratzen zen beti. Orain hizkuntz ereduaren gerrak ahaztua dirudi; konfliktua zuzen-zuzen aldizkariaren izaera ideologiko-sozialaren mailan planteatzen da: erlijiosoa ala laikoa. Zuzendaritzak, ezagutzen dugun planteamendua, mahairatu zuen:

Alegia, *Jakin* ez dela ia —ez duela izan behar— fraille ta apaizgaien kaseta soilik. Suplentzi-lana izan dela eurena, orain artekoa. Ta heldu dela ordua subsidiario eginkizuna esku egokietan uzteko (25, 1967, 61).

Honezkero *Jakin* ja ez da aldizkari bat soilik —adierazten da—, mugimendu bat da; eta ez teologoena, ezpada euskal gazteriarena; beraz, har beza gazteria horrek berak aldizkaria. Euskal gizartea —irakurtzen dugu— eta bereziki gazteria «pluralista» da (hala esaten zen ja 1967an!), eta *Jakin*-ek iritzi pluraltasun horren plataforma irekia izan behar dizu.

Eremu hontan dauka *Jakin*-ek ere bere posibilitaderik handiena eta egitekorik premiazkoena: euskaltzaletasunaren une kritiko eta kezkatu huntan batzuen eta besteen lokarri bilakatu den funtsezko giroa sortzen lan egitean (Ib., 62).

Gaia halakoxea zen, eta bilera honetan talde polita bildu da, estudiante erlijioso nahiz laiko gazteak, interes handi(ar)ekin, eta Zuzendaritzaren hizpideak «diskusio aberatsa ta interesgarria altxa zuen». Izan ere, eskaintean zegoena zen,

edozeinek har zezakeela eta etxera eraman aldizkaria (edo mugimendua), eta interesatuak ez bide ziren falta. Kronistaren esanean: «Erabaki konkretuetara iristeko amorru bizi bat nabari zan Oiñati'ko billeran parte hartu zuten oroen baitan». Gauzak horrela —«relata refero»—, Karlos Santamariak, aldizkaria gazte talde iraultzaile Jainkoak daki zein koloretakoren baten eskuetan eror zedin beldurrez, hura ezain talde jakinen esku bakarretan gelditzea ezinduko zuzkeen planteamendu diplomatikoa prebaliarazi zuen —aldizkaria salbatzearren, azken finean—: «*Jakin*-ek debate edo polemikarako 'tribuna libre' antzeko izan behar du»enez, Santamariak proposatuta, batzarrak arlo diferenteak bereizi eta bakoitzeko arduradun/eragile bat izendatu du. Gero arduradun/eragile bakoitzak bere zati edo arloko lankideak bilatu eta ekipo bat eratuko du, berak jardunez zenbaki bakoitzean bere gaiko artikuluen eta zenbaki berezien eragile eta arduradun gisa. Batzarrak honela bereizi zituen eztabaiden plataforma izan behar zuen horretako arloak eta arduradun/eragileak: Rikardo Arregi, politika jeneralerako; Karlos Santamaria, zientzia eta pentsamendurako; Andoni Lekuona, soziologiarako; Xabier Kintana, biologia eta eboluziorako; Ibon Sarasola, literatura, poesia, zine eta teatrorako; Jose Antonio Arana, euskal legedi eta kondairarako; batzarretik kanpo izendatzeko gelditu zen erlijio eta eliz arazoetako eragile/arduraduna. Zuzendaritzarik ez dago, ezpada, garaiko espiritua zen bezala, asanblearismo kasi purua da: asanbleak komite bat mandatzen du arloz arlo zuzendaritzan erantzule izateko urtebetez, eta hori urtero aldagarri izango da. Gero errealismo tindu bat gehitzen da opaen kapituluan:

*Jakin*-ek programa bikain hau beteko badu —baiña ez nolana, baizik egungo Euskal-herriak merezi duen tamaiñan—, talde edo redakzio-ekipo sendo bat sortzea, beste irtenbiderik ez da ikusten.

Orain arteko Zuzendaritzak argi aitortu zuen bere eziña aldizkariaren programazio berria itxuraz aurrera ateratzeko. Talde konprometitu bat, beraz, zenbaki bakoitzaren bizka-

rrezurra aurrez tajutuko duena. Bati eta besteari lanak, artikulak eskatzeko eskubidearen jabe. Merezi dutenak argitaratu, ta gaiñuntzekoak baztertzeko eskubide berdiñarekin. Bi edo hiru hillez behin elkarrekin biltzeko konpromixoarekin.

Hasiera batean, *Jakin* talde hau zati bakoitzerako izendatu diren eragilleek osatuko dutela, onartu zen (Ib., 63-64).

Egitasmo eder hori udazkenez aprobatu zen, baina askoz udaberritiagoa zela izan, oraindik etortzeko zegoen 68ko maiatza baino, edozeinek ikusten du. Demokratikoago ezin. Baina oso pragmatiko, ez. Aldizkariak funtzionatzeko norbait gainean egon beharra dago etenik gabe; erredakzio taldeak kideen diziplina eta asistentzia seguruarekin kontatu behar du. Urtearen buru aldera Arantzazuko estudianteez iragarri bezala aldizkaria utzi egin zuten. Presaka eta larri Joan Mari Torrealdai egin behar izan du haren kargu, oraingo zuzendaritza dimisionarioaren aurretik azkeneko zuzendaria izana bera. Erredakzioa Donostian jarri eta aipaturiko komite handiarekin (gehi iparraldetik P. Xarriton eta R. Kanblong, eta kazetari tituludun eta profesional gisa A. Iturria) hamabostero bilerak konbokatuz hilabete batzuez ahalegindu eta gero, praktikak laster erakutsi du komite handiaren barruan ekipo txikiago eta dinamikoago baten premia. Horrela sortu da Donostian *Jakin* berria diseinatu eta abian jarri duen zuzendaritzako troika: Karlos Santamaria, Rikardo Arregi eta J. M. Torrealdai. Hirukote honek aldizkariari aurpegi berria eta egundoko bultzada eman dio. Lau puntutan, laburki: honezkero aldizkaria ez da Arantzazuko menditarra, hiritarra da; ez da estudiantena, euskal kulturako jendearena da; lehen aldiz zuzendari liberatu bat dauka; eta erredakzio taldea laikoa da proiektu laiko batekin. Bakarrik, urte eta erdi barrura berriro debekatua izan da aldizkaria Franco hil arte. Aurten *Jakin*-en fundazioa eta fundatzaileak omentzen ditugu: aldizkariak bere historia gorabeheratsuan fundazio eta fundatzaile bat baino gehiago izan duela, aitortu behar.¶



G A I A K



**123** JON MIRANDE  
Pio Barojaren euskotasunaz

# Pio Barojaren euskotasunaz

JON MIRANDE

Pio Barojaren heriotza zela-eta, haren euskotasunari omenaldi hau agertu zen Parisko *Euzko Deya*-n, 1 décembre 1956, 2. plaman, egilearen izenik gabe. Testuan hainbat zantzu dagoela, iruditu zaigu, autorea Jon Mirande baino besterik ezin izan litekeela, pentsarazten duena. Uste horretan, dagoen original frantsesean berrargitaratzen dugu, omenduaren hala omendailearen oroiz gure aldetik, Pio Barojaren heriotzako berrogeita hamar urtegarrenaren kariaz, eta Miranderen izkributxo bat orain artean aintzat hartu gabekoa errekerperatzeko asmoz halaber.

Edozergatik dela ere, Barojaren euskotasunaren gaia, ikusten da, behin eta berriro pizten dela gure artean. Hainbat interbentzio dagoen arlo horretan, haizu izan bekigu hemen frantsesezkoaren alboan gaztelaniazko eta euskarazko bana gogoratzea garai beretsukoak. Gaztelaniaz Luis S. Granjel, «Presencia de Vasconia en la vida y en las obras de Pío Baroja», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País* IX, 1953, 155-167 eta 363-387. Artikulu honetan, paisaiatz gain, Barojaren Baskoniarentzat arrazaren inportantzia

nabarmentzen da, eta Barojaren identitatean ere euskal arrazak (eta beharbada piska bat germaniarrak) jokatzeko zuten rola: berak ematen zion inportantzia, adibidez, euskal deitura garbieraren zerrenda luzeari, gehi batño italiarra, edo hobeki lombardiarra (eta, beraz, saxona Barojarentzat!); nola hortik esplikatzeko zuten bere psikologia pertsonala, idiosinkrasia; usteke-  
ra horrek nola influitu duen haren nobelazko pertsonaia diferenteen aiurri beti barojarrean, nobela guztiak bere autobiografia modu bat bihurtzeraino, etab. Iruditu zaigunez, argitaratzen dugun ustezko Miranderen testua, Granjelek inspiratu izan lezake agian heintxo batean.

«Gurea ote dugu Baroja?», galdetzen zuen K. Mitxelenak ere Barojaren nekrologikoan («Pio Baroja», *Egan* 5-6, 1956, 173-178). «Gu» hori zein den zehatz ez da mehatzen, eta ez(in) egiteak berak aski adierazten du agian, abertzaleak ulertu beharko dela. 1956an eta *Egan*-en, fronte askotara batera begira idatzi behar: Euskal Herri kanpoko eta barruko abertzaleak, ez beti kointzidentek, baina aldizkari barruko ez batere abertzaleak ere bai, eta *not last* zentsura, oso kontuan eduki behar. Mitxelenak euskal arrazarik ez du ezertarako aipatzen, eta ez aipatze motibatatu bat suposa geniezaioke. (Dena dela, agian ohartxo bat merezi du konstatatzeak, Mirande edo EAJ-PNVko *Euzko Deya*-n irakurriz gero hain problematikoa kausitu ohi den arraza hori, Amigos del País-en Buletinean inolako problemarik gabe aipatzen dela garai horretan). Euskal lurraren Barojaren maitasuna eta azaldaketa literario paregabea goraiatzen da, etab. (Azorinek ere hori ez du gaizki egin), eta, artikulua azken aldera, haren gutartasuna esanahitsukiro bi puntu hauetantxe nabarmenduz harritzen gaitu. Bat, Don Pionen golko funtsean kristaua:

barren-barrengo ixuria kristau-ixuria zuen, eta ez zuen hortik Nietzschek makurtu. Onbera agertzen zaigu, urrikaltsua; txiki, otxan, ixil, paketsuen adiskidea.

Barojari bere agnostizismo kritiko antikristaua barkatzen ez zioten abertzaleengan pentsatuz apropos horrelaxe formula-tua seguruenik.

Bi, haren idazkera garden erretorika gabekoa: estilo natural itxuraz simple, erraz, arrunta, «ez da guretzat maixu txarra». Euskal Pizkundean Lizardik ez gaizki, eta Zaitegi eta Orixek beti ez hain ondo entseatu duten prosari begira, eztenkadatxo batekin amaitzen da Mitxelenaren Barojaren gorazarrea:

Lehen, esaldi luzeetan barrena zalantzarik gabe murgiltzen ziren euskal idazleek ez zuten horrelako kezkarik [Axularrek-eta]. Orain berriz, bide berrien bila eta labur-beharrez ari garenok errenka gabiltza sarritan, oinetako estuegiak min ematen baligute bezala.

Hiru artikulu Barojari buruz, ispilu politak hirurak ere ideia bat egiteko euskal mundutxoko giroari buruz *Jakin* sortu den urte horietan.

JOXE AZURMENDI

## Le basquisme de Pio Baroja

[*Euzko Deya*, 1956-12-01, 2. or.]

Quelques jours après avoir reçu l'hommage d'Hemingway, un grand romancier espagnol est mort: Pio Baroja, dont les inconvenances politiques ou irreligieuses avaient blessé plus d'une fois les sentiments du peuple basque.

Mais, que nombreux soient les compatriotes qui l'admirent ou le détestent, Baroja est indiscutablement l'écrivain le plus basque que le pays basque ait donné à la littérature espagnole. Son individualisme caractéristique, sa haine du théâtral, son antipathie pour la rhétorique, son style attrayant, ses interprétations du paysage basque, ses descriptions de types du Pays, la persistance de l'écho racial tout au long de l'oeuvre de Baroja, tout accuse l'origine basque de son auteur. Même la parcimonie avec laquelle il administre la tendresse dans ses romans, dénonce la pudeur d'une race qui tient pour peu sérieux l'expression des faiblesses sentimentales. Et sa sympathie pour les hommes d'action —pour ce type d'homme qu'eût peut-être voulu être ce Basque timide— est également un écho de cette race qui se distingue aussi bien par la timidité personnelle que par l'esprit d'entreprise.

Relisons les oeuvres du grand romancier... Baroja proclamait lui-même avec satisfaction sa nature basque et, faisant allusion de quelque sang italien qui courait dans ses veines, il se déclarait «Basque des trois côtés et demi». En effet, un nom lombard (Nessi, de la région de Côme) figure parmi les ancêtres que le romancier exhibe orgueilleusement dans ses «Mémoires»: Baroja, Nessi Zornoza, Goñi, Arrieta, Alzate, Izaguirre, Oyarzabal, Arrola, Emparan.

Baroja n'accepte pas qu'on le range littéralement dans les écoles que lui, Basque, tient pour exotiques: «Je suis un écri-

vain sans école définie, mi-réaliste, mi-romantique. Qu'ai-je de commun avec les gens de la steppe? Rien, je crois. J'ai pris comme modèles des types du Pays basque et des zones voisines».

Par contre, il ne comprend pas le basquisme de certains écrivains qui aiment «la rhétorique pompeuse, l'emphase, le ciel bleu, les maisons au toit plane, la flore méridionale et les fêtes de taureaux». Baroja, face à ses écrivains d'origine basque, mais hispanisants, proclame et explique son basquisme: «Il est logique que je sois basquiste, car l'ambiance froide et humide me plaît, la verte campagne avec des chênes ou des haies, et la fumée qui sort de la cheminée comme des filaments bleus et blancs. J'ai de la sympathie pour ce reste de matriarcat existant dans le pays et qui est comme une tendance opposée au patriarcat qui subsiste dans d'autres pays».

C'est-à-dire que le basquisme de Baroja est tellurique et traditionnaliste. Mais il ne comprend pas non plus le traditionnalisme de certains Basques pour qui la tradition commence avec l'évangélisation du Pays (vers le XI<sup>e</sup> siècle dans les villes, selon Garcia Villada, et vers le XIII<sup>e</sup> siècle dans la campagne). Baroja préférerait peut-être l'excès contraire: la tradition à partir de la christianisation des Basques, mais en faisant marche arrière. Car le catholicisme est universel par définition, tandis que le paganisme basque est plus typique. Entre les sorcières de Zugarramurdi ou les jésuites de Loyola, et entre la mythologie basque ou le culte catholique, les préférences de Baroja répondent, entre autres raisons, à cette déclaration: «L'universel, l'oecuménique ne me plaisent guère; j'ai de la sympathie pour le local et pour ce qui a un air spécifique».

D'autre part, il insiste: «Me sont sympathiques dans le basquisme: la simplicité et l'obscurité de l'homme à la campagne, peu enclin à l'affectation et à la pédanterie, son peu de dogmatisme, l'inexistence de grandes villes<sup>1</sup> et même l'ancienne tendance de direction de la maison par la femme, qui donne une impression de reste de matriarcat... Au-des-

sus des considérations sociales et littéraires, le Pays basque me plait para son ambiance humide, ses cieux gris et ses brumes, les chênales et les hêtraies bordées d'une infinité de chemins creux, et les *caserios* noirs et solitaires, d'où l'on entend au loin le mugissement des boeufs. Si l'on demande à un homme quelconque s'il préfère un temps pluvieux au soleil, il répondra: «Quelle folie!» Il n'y a point de folie. Car moi, du moins, je m'y sens mieux. C'est-à-dire, je me sentais: car, maintenant, je me sens aussi mal par la chaleur que par le froid».

Finalement, le basquisme de Baroja n'était pas exempt d'une certaine satisfaction de caractère anthropologique: «Le fait d'appartenir à un groupe ethnique aussi rare et aussi particulier que le basque donne une certaine sensation d'étrangeté...» «Je crois parfois, dit-il dans «Juventud, Egolatria», que les Alpes et les Pyrénées sont tout ce qu'il y a d'euro-péen en Europe. Au-dessus d'eux, il me semble voir l'Asie; au-dessous, l'Afrique».¶

---

1. «L'amour de la ville, des cérémonies et de tout ce qui est recherché me paraît rhétorique, c'est-à-dire, creux».